

EUSEBIO ERKIAGA

# *Txurio Txoria*

*Sarrera: Igone Etxebarria*



SUTONDOAN

SUTONDOAN liburu bilduma honek Bizkaiko idazleen idazlanik ederrenak irakurleari eskuratzea dau helburu. Lanok aukeratzea Labayru Ikastegiko Hizkuntza Arloaren ardura da, testuak gaurkotu oharra jarri eta aurkezpen sarrerek egiteagaz batera. Argitarapena ostera, Labayru Ikastegia eta Bizkaiko Aurrezki Kutxaren artean egiten da. Edozein generotan idatzitako lanak hartzen dauz bilduma honek, zein hitz lauz zein bertsoz, nahiz ta gehienak hitz lauzkoak diran, bai elaberri bai aldizkari lanak.

Lanon edizioak gaurko irakurleei zuzenduta dagozan neurrian aspaldikoak diran lanetan idazkera gaurkotuaz ganera, lagungarri izan daitekezan beste ohar batzuz orniduta aurkezten dira, hiztegia edo datu jakingarriak esaterako. Bestelako lanetan, gaurko idazkera erabili moduan errespetatu dogu, *Txurio Txoria* froga.

SUTONDOAN bildumako liburak, bestalde, azterketa lan bateg aurkeztuta dagoz. Oraingoan Igone Etxebarriak egin deutso Sarrera lana Eusebio Erkiagaren elaberri honi, idazle honen estiloa eta ekintzaren garapeneko arlorik garrantzitsuenak aztertuz. Pertsonai nagusiaren autobiografia dogun elaberri honetan narratzailearen eskutik lapur talde baten gora-beherak azaltzen jakuz, talde horren buru dan Txurioren joan-etorriakaz batera.

TXURIO TXORIA  
*Eusebio Erkiaga*

EUSEBIO ERKIAGA

# *Txurio Txoria*

Lardabio giroko  
elebarria

*Sarrera: Igone Etxebarria*



LABAYRU IKASTEGIA

BIZKAIKO AURREZKI KUTXA  CAJA DE AHORROS VIZCAINA


KULTUR EKINTZA

© LABAYRU IKASTEGIA - BIZKAIKO AURREZKI KUTXA  
Aretxabaleta, 1, 1.º  
48010 BILBAO

ISBN: 84-505-4600-1  
Depósito legal: BI-1.718-86

Fotokonposaketa IPAR, E. K.  
Particular de Zurbaran, 2-4  
48007 Bilbao

Inprimatzailea: Ibarsusi, S. A.  
C.º Ibarsusi, s/n  
48004 Bilbao



## Sarrera

Eusebio Erkiaga literatur sorkuntzan nahiko ezaguna dogu orain arte egin dituan beste lanetatik. Lino Akesolok berak *Jaioko dira* elaberriari egin eutsan sarreran gaurko idazleen artean goi mailakotzat jotzen dau Erkiaga.

Lekeitiarra dogun idazle hau, 1912an jaio zan. Oinarrizko ikasketak herrian bertan eginda gero Bilbora joan zan Perito Mercantil ikasketak egitera. Gerra ostetik ia Bilbon bizi da, jubilatatu arte Banco Vizcayan lanean ibiliz.

1952an Euskaltzaindian sartu zan urgazle moduan, 1963an euskaltzain oso bihurtuz.

Idazle moduan militantziak bultzatuta hasi zala dakigu, gazterik hasi be, gerra aurrean, 1930ean lehenengo artikuloak kaleratu zitularik. Aldizkari askotan parte hartu izan eban bai gerra aurretik bai ostean. Aitatu daiguzan «Euskadi», «Egin», «Eguna», «Yakintza», «Egan», «Euzko Gogo», «Anaitasuna». Nahiko dogu zerrenda hau ikustea arlo honetan hainbat lan egin ebala jakiteko.

Baina hau ez da izan Eusebio Erkiagak landu dauan arlo bakarra. Literatur sorkuntzan esan geinke genero edo arlo gehienak landu dituala, eta ez edozein modutan, maila oneko idazle izatearen ospea balio izan deutesen idazlanak eginaz baino.

Behar bada ezagunena elaberri lana dogu. Baina beste arlo batzutan be murgildu danez, honeek aipatuko ditugu lehenengo ta behin.

Antzerkigintzan egin izan ditu lan batzuk. Euren artean bereziki aipatuko dogu «Kanpaien atsekabez» izeneko lana, 1959an saritua Loramendi olerkariari Arrasaten egindako omenaldian.

Olerkingintzan be hainbat lan egin izan dau, lanotatik asko sarituak izanda, esaterako «Nekazariarena» (1950) «Azkueren heriotzan» (1951) lapurteraz idatzia hau, «Axular handiari ohore» (1956) etabar.

Baina duda barik nobelagintzak emon deitso Eusebio Erkiagari osperik handiena. Arlo honetan be zenbait lan argitara emonda ditu. Lehenengoa 1958koa dogu *Arranegi* izena daroana, urte bi geroagokoa dogu *Araibar Zalduna* gipuzkeraz idatzikoa, biak sarituak. *Batetik Bestera* 1962koa, birritan argitaratu izan da (bigarrenez orain hau argitaratzen dogun liburu sorta honetan 1985ean) eta *Jaioko dira* 1984koa. Zerrenda honeri orain argitara emoten dogun hau gehitu behar deitsagu, *Txurio Txoria* izeneko hau, bai eta ohar bat jarri be. Elaberri hau argitaratutako azkena bada be ez da Eusebiok idatzi dauan azkena, *Jaioko dira* baino lehenagokoa baita. Idazleak berak azaltzen deusku liburuaren hasieran jarritako oharren atzerapen honek izan dituan arrazoiak.

Azkenez, aitaturko dogu, Eusebio Erkiagak oraindik idazteari ekiten deitsala, eta honen froga hor dago 1986an Bizkaiko Aldundiak eraturako elaberri lehiaketan jaso eban saria. Hori be laster kalean ikustea espero dogu, hurrengo etorri dai-tekezan lanen moduan on etorria izango da ta.

Errepaso hau ikusita esan geinke Eusebio Erkiagak idazle moduan egindako lana aberatsa ezeze ugaria be ba dala, kontutan hartuta gainera euskera bera debekatuta eta zapalduta egoan urteetakoa dala idazle honen produzio gehiena.

Guri dagokigun elaberri hau be *Txurio Txoria* izenekoa, 1963koa da, *Batetik Bestera*-ren hurrengokoa eta denpora aldetik hurrekoa nahiz eta orain arte argitaratu barik egon dan. Zergaitik ez dan argitaratu? Idazleak berak jarri deutso Sarreatxo bat nobela honeri bertan bere arrazoiak azalduz. Hainbeste urtetan, izenburua aldatu, euskera eredu baina, testua laburtu, egokitu, danetarik egin eta gero hemen daukagu nobelatxo hau. Idazleak adierazi deuskunez «hobeto izango dalakoan» egin izan deutsoz aldaketa guzti honeek. Bere gora beherak be izan ditu argitaratzea dala ta, baina guzti hori idazlearen oharrean azalduta dagoanez ez dogu barriri errepikatuko eta nobela beraren barruan murgilduko gara beste barik.

Nobela osoa pertsonai baten bizitzaren inguruan garatzen da. Melki dogu pertsonai hau, elaberriaren protagonista eta bere ahoz ekintza osoa lehenengo pertsonan kontatzen dauana.

Argumentoa gitxi gora behera holan laburtu geinke: Protagonistak, Melki, egun batean Txurio deitzen daben gizon bat ezagutu dau, eta ordurarte bizitza normala izan dauan honek guztiz bestelako bizimodua erosten behartuta dago, urten ezin dauan sarean preso balego lez. Txuriok zuzentzen dauan lapur taldean sartu da eta apurka apurka deskubritzen doa zelangoz azpizoko eta behar txarrak egiten dabezan «nagusiaren» aginduak betetearren. Baina honetaz konturatu danean nagusiaren aurka jartzeko gogo bizia sortu jako azkenean hiltzen dauan arte, heriotza honegaz taldekide guztiak libre geratuz.

Ez dogu oso liburu luzea hau, baina bai aberatsa eta erre irakurtzekoa. Narrazioaren ordenaz zerbait esan behar dogu oster. Liburua irakurtzen hasten garanean ekintza hasita dago, «in media res» deitutako hasiera mota dogu hemen. Hau da, ekintzaren erdian hasten da liburua, zati nahiko luzea irakurri ta gero hasten da narratzailea historia honen hasiera kontatzen, hortik aurrera orden kronologikoari jarraituz.



Beraz, esan geinke historia bera «Txurio» izeneko kapitulu- luan hasten dala. Kapitulu honetan Melkik Txurio, edo «nagusia» gero askotan izendatuko dauanez, zelan ezagutu eban eta honek bere zerbitzari izateko zelan harrapatu eban kontatzen deusku. Horren aurretik bere lehenagoko bizitza, zer egiten eban, zelan bizi zan gogoratzen dau. Liburuaren helburua Txurioren menpean lan egiten dauan aldia azaltzea bada, hori kontatzen hasi aurretik, bizimodu horretan sartuta egoan garaian bere aurreko bizimoduaren laburpena egiten dau oroitzenaz baliatuz.

Oroitzapen honetan asko azpimarratzen dau protagonistak Errazu erlojulariaren heriotza. Melkik honegaz batera egiten eban lan erlojuak konpontzen, eta dirudienez asko gustatzen jakon lana zan. Errazuren heriotza gogoratzen dauanean badirudi Melkik hor ikusten dauala bere bizimoduaren aldaketarako oinarria. Bera zer egin ez dakiala edo gelditzen da eta Txurio agertzen danean bere bizitzan bere esanetara jartzen da ia ia konturatu barik nahiz eta gogoz kontrakoa izan. Hortik aurrera gauzak gero eta konplikatuago bihurtuko dira: lehenengo lapurreta txikiak, familiagaz daukazan harremanak guztiz apurtu, gero lan garrantzitsuagoak aginduko deutsez. Prozesua luzea da, apurka apurka doa ikasten, ikasitako hori «nagusiaren» aurka bihurtu arte.

Melki dogu ekintza osoan protagonista, berak bere bizitza kontatzen dau, baina ezin dogu alde batera itzi Txurioren garrantzia. Melkik azaltzen deuskun bere bizitzaren aldi horretan Txurio dau zuzendari eta gidari zer eta zelan egin behar dauan esaten deusana. Biok dira era berean protagonistak, baina ez hori bakarrik, alkarrentzat antagonistak be badira ta. Bien arteko indar neurtzeak tentsioa sortzen dau nobela osoan zehar. Eta hasieran Txuriok Melki menperatu dauala emoten badau be geroago eta argiago ikusten da Melkiren gogoia nagusiaz bengatzeko eta bere indarra nagusiarenaren gainetik jartzeko. Amaierak arrazoia emoten

deutso eta nagusia hiltzeaz bere poderea besteen gaintetik gelditzen da.

Baina ez dira bi honeek ekintzan parte hartzen daben bakarrak. Lehenago aitatu dogu Melki lapur talde baten sartu dala, edo sartu dabela. Talde honetan beste lagun asko dagoz, batzuk zuzenean Txurioren agindupean dagozanak, beste batzuk taldetik kanpo baina eurekaz zerikusia dabenak.

Pertsonai askok hartzen dau parte historian, batzuk aktiboak izan arren ekintzan zuzenean parte hartzen ez daben beste batzuk baino garrantzi txikiagokoak. Euren arteko harremanak nondik edo zertatik sortuak diran batzutan nahastetsu iruditzen jaku, beste batzutan ostera, pentsatu be egingo ez geunkezan zehar bide eta kasualitateak sortuak dira.

Pertsonai ezbardinen artean beste banaketa bat egin geinke: batzuk deskribatzerakoan, edo euren jokaera ikusita laster konturatzen gara euren alde txarra azpimarratu egiten dauala narratzaileak. Azpijoko, lan zikin, zikoizkeria, berekoitasuna dira pertsonai batzuen ezaugarri ia bakarrak. Beste batzuegan ostera, giza balioak azpimarratzen dira beste edozeren gaintetik, euren birtuteak, besteengan eragin handia dabelarik. Alde honetatik pertsonairik osoena Melki bera dogu. Honek era bietako ezaugarriak erakusten ditu. Alde batetik Txurioren agindupean taldeko besteen moduko lan zikinak egiten ditu, baina beste aldetik borondate ona agertzen dau beste batzuekiko. Adibidez, Zeline txikitako laguna barriri ikusten dauanetik bizimodua honeri laguntzera bideratuko dau.

Pertsonaiak, Melki izan ezik, beste guztiak lauak dira, ekintzan parte hartzen dabe baina hasieratik amaierara jokabide antzekoa dauke, ez dabe euren izaera aldatzen, beti jokatzen dabe bardin, bakoitza hasieran jarri jakon izaerari dagokion moduan. Arau honetatik urteten dauan pertsonai bakarra

Melki dogu, izan be hau da pertsonai konplejuena ta. Baina honek badauka bere arrazoa: narratzailea bera da eta bere bizitza da kontatzen dauana, horregaitik bere izakeraren alde guztiak agertzen dauzan bitartean besteenak bereagaz zerikusia dauken neurrian bakarrik aitatuko ditu.

Melkiren bizitzaren hariari jarraituz momentu ezbardinak aurkituko ditugu, bakoitzean gertakizunen batek bere jokabidea eragin eta aldatu arazten daualarik.

Lehenengo ta behin oso gaztetan mekanika eta antzeko lanak atsegin jakozala ta, Errazu erlojulariagaz batera lanean hasten da. Honetan oso pozik dabil eta ondo doakio baina Errazu hil egiten da bera kalean geldituz. Gertaera honek Melkiren bizitzak izango dauan aldaketaren premonizio antzeko eginkizuna betetzen dau. Premonizio hau Txurio ezagutzean beteko da. Txuriok protagonistaren bizitza bere menpean jarriko dau, bere esanetara, aldi batez. Baina beste kasualidadezko gertakizun batek barriro itzuliko dau Melkiren gogoaz Txurio ezagutu aurreko urteetako bizimodura: Zeline aurkitzeak. Zeline Melkiren auzoan bizi zan txikitan, eta orain ez dala pozik bizi ikusteak guztiz etsipenduta izten dau. Sortutako ardurak bultzatuta laster aurkitzen dau Zelineren sufrimenteraren arrazoa: bere senarra, Karol, hain zuzen be Txurioren laguna dana, bera umekaz itzita, beste emakume batzukaz ibiltzen da. Hemendik aurrera Melkik helburu bi izango ditu: bata Zelineren zoriona lortu, edo lortzen lagundu behintzat, eta Txuriori merezi dauana emotea. Txurioren maltzurkeria eta zikoizkeriaz nekatuta hareri behar dauan tratua emoteko gogoaz gero ta indartsuago hazten doa Melkiren barruan. Halako baten, Txurioren aginduz egin behar dauan lan baten helburu biok betetzeko aukera aurkitzen dau. Karolek Melkiri berarentzako lan egiteko eskatzen deutsanean harek onartu egiten dau baina baldintza bategaz: Karolek bere emaztea zoriontsu egin beharko dau. Beste alde batetik aukera ona da

hau Txuriori atzea emoteko. Beraz, aukera hau aprobetxatuz Melkik Karolegaz bat egiten dau hemendik aurrera bere helburu eta pentsakizun bakarra Txurioz bengatzea dala. Asmo hau gero ta biziago sentitzen dau askatasuna lortzeko, bizitzan beste bide bat hartu ahal izateko aukera bakarra dau. Holan ba, asmo horri ekiten deutso azkenean bere helburua lortu arte: Txurio hil da, libre dagoz bai bera, bai taldeko beste ki-deak be.

Argumentuaren garapenean progresio kronologikoagaz batera tentsioa gorantz doala somatu daikegu klimaxera heldu arte.

Garapen honetan pertsonai nagusiaren bizitzan aldaketa edo bira garrantzitsua eragingo daben gertakari klabe batzuk dagoz: Errazu erlojuariaren heriotza, Txuriogaz lehenengo topaketa, Zeline aurkitzea, Karolen proposamena Txuriori lepoa emoteko. Gertakizun guzti honeek protagonistarengan eragin handia dauke hurrengo pausua emoteko orduan. Beste alde batetik gu irakurleori be hurrengo gertatuko dana aurreratu egiten jaku, pistak emoten deuskuz. Esaterako hasieratik Melki ez dator Nagusiaren gauzak egiteko moduagaz guztiz bat. Baina desadostasun hau, askoz argiago agertzen dau momentu batetik aurrera. Birritan aipatzen dau Melkik Nagusiarri merezi dauana emoteko gogoia. Lehenengoz, lapurreta bat egin behar eta ezin izan ebanez ezer lortu guzurretan ibiltearren astinaldi ikaragarria hartu orduan. Eta bigarrenez, Karolen proposamenaz bere gogoia aurrera eroateko aukera ikusi orduan. Azkenez, Txuriok bera hiltzeko ahalegina egin ostean bizitza horri begira jarriko dau. Beraz, lehenagotik aurreratu egiten deuskuz gertakizunak.

Pertsonai nagusiaren aldaketan artean deigarriena azkenean somatzen doguna da. Melkik Jaungoikoarengana jotzen dau parka eske, lehenago egindako pekatuen parkamena gura baleu lez. Melki bera lagunaren salbatzailea da, askatzailea.

Bere aldetik amaitu dira lapurretak, indarkeria, etab., baina ez deritxo nahiko, horren sortzailea dan Txurio akabatu behar da. Orain arte Txuriorengan izan dauan Nagusia orain Jaungoikoarengan aurkitu dau. Aldaketa hau frogatzen daben aipamenak nobelaren amaieran jarraian aurkitzen doguz: Jaungoikoari egiten deutzazan otoitz eta eskaerak, bere izena defenditzea; bere burua Lazarogaz konparatzen dau Txuriorengandik ostonduta dagoanean: «Ausaz, Lazaro nintzan, zuloan sartuta, baina ustel usainik eta kiratsik bakoa»; beste behin «Jonas Txikerra bainintzan» dino. Aldaketa erdi mistiko edo konbersio baten aurrean ete gagoz?

Guzti honek bestalde badauka zerikusirik tentsioaren progresioaz. Ekintza Txurio ezagutu dauan unean hasi dala kontatzen badogu lehenengo topaketa honetatik aurrera Melkik egin beharreko lanak gero ta arriskutsuagoak izango dira. Hasieran lapurreta errezak, gero garrantzitsuagoak, eta azkena nobelaren klimaxa, arriskutsuena, azken desenlace edo amaiera eragin dauana.

Kontaketa aldetik be luzeera ezbardina emoten jako gauza bakoitzari historian zehar daukan garrantzia kontutan hartuta. Hasierako zatian, Txurio agertu arte, kontaketa nahiko geldia iruditu leikigu. Ez gara oraindik ekintzan kokatu, pertsonai asko aurkezten deuskuz narratzaileak, dana jaku ezezaguna, pertsonaiak danak deskribatzen ditu, ezaugarri gitxi emonda bada be. Behar bada irakurketa pixka bat astundu egiten jaku lehen zatitxo honetan. Baina historia bera hasi ta berehala ekintza izango da garrantzitsuena. Pertsonaiak ezagutzen ditugu, beraz, hortik aurrera aktuatzen ikusiko doguz. Hari bat hartu eta honi jarraituko deutso narratzaileak. Baina hemen ohar bi egin behar ditugu. Alde batetik, mamia eta azalaren arteko parekotasuna, eta etenak bestetik. Hobeto azalduko doguz oharrok.

Narratzaileak lapurraren lanak kontatzen deuskuzanean,

zehaztasunak emotea eta kontaktaren luzeera lan honen garrantziaren arabera moldatzen ditu. Esaterako lapurreta errez bat danean arin amaitzen dau, baina azkena adibidez, amaiera zelangoa izango dan erabagiko dauana, bai eta arriskutsuagoa dalako be, oso zehatz, detaile guztiak aipatuz deskribitzen dau, liburu osoaren kapitulurik luzeena eginez.

Bigarren oharrari buruz ostera, etenak deitu doguzanak, ekintzaren narrazioan egindako parentesi antzekoak dirala esan geinke. Argiena «Saule» izeneko atala litzateke. Atal honetan parte hartzen daberen pertsonaiak danak dagoz ekintza nagusiagaz lotuta, baina haritik apur bat desbideratzen da. Behar bada honegaz lotu geinke pertsonaien deskribapenak egiterakoan ekintza astiroagotzea ere.

Ekintzan zehar pertsonai ugarik hartzen dabe parte, batzuk beste batzuk baino garrantzitsuagoak dira, jakina, baina hala ere danetaz egiten dau narratzaileak deskribapena, laburra bada be. Ezaugarriak behinenak behintzat azalera-tuta agertzen dira. Batzutan gertatzen dana zera da: pertsonai talde bat aurkeztu gura danean lehenengo taldea bera aipatzen da, baina gero banan banan deskribitzen ditu, beraz, taldekide guztiak pasatu orduko, bakoitzaren deskribapena laburra izanda be, luzatu egiten da. Hau gertatzen da adibidez, Txurioren taldeko morroiak nortzuk eta zelangoak ziran adierazterakoan, eta baita Polpoldarrak, Andra Polpolen familia osoa alkartuta dagoan egun batean aurkeztu nahian.

Guzti hau narratzailearen eskutik datorku. Narratzailea protagonista bera dala esana daukagu. Honek idazleari zelanteko askatasuna emoten deutso gura dauana esan ahal izateko pertsonajaren pentsakera izango balitz lez. Bestalde, narratzaileak lehenengo pertsonan hitz egiten dauala ohartzen gara, bere subjektibotasunari atea zabalik itziz. Azken baten, autobiografia baten aurrean egongo giñateke.

Melkik askatasun osoa dauka bai bere bizitza gura dauan erara kontatzeko, bai besteei buruz berak dituan eritziak agertzeko. Eta era berean, idazleak be askatasun osoa dauka pertsonaiaren subjektibitatearen aitzakiaz nahi dauana adierazteko.

Narratzaile honek batez be bere bizitzan zerikusi izan daberen pertsonak eta ekintzak eurak narratzeari emoten deutso garrantzia beste gauza batzuri zehaztasun bako tratamentua emonaz. Bigarren taldekoen artean lekua eta denporaren tratamentuak merezi dabe aipamen berezia.

Lekuaren aldetik ez da inon ezelango izenik emoten ekintzak non gertatzen diran jakiteko. Badira halan ta guzti be zeharka bada be ideia bat egiten lagundu leikuguzan datuak. Esaterako, behin, Txurioren morroiak alkartuta dagozan baten, zera dino Melkik: «*Euskalduna* buruz eta biotzez errez saltzen zana ez zala jakitun egoan». Beraz pertsonaiak Euskal Herrian kokatu beharko doguz aipamen honen arabera. Eta Euskal Herria barruan beste hau be esaten jaku: «Gure matxinadea *kalean* sortua eta *kalean* egina izan. Ez mendi, malkar ez itsasoetan». Ekintza *kalean*, hirian kokatzeaz gain, nobela osoa irakurri eta gero hiri honen ezaugarri zehatzagoetaz jabetuko gara: hiri handia da, era askotako auzo, jentemodu, taberna eta abar daukazan hiria, eta hau gitxi balitz portua be hirian bertan dago. Asko imaginatzea litzake beraz, nobela Bilbon kokatuta dagoala esango bagendu? Ez dogu uste idazlearen gogotik asko urruntzen garanik hipotesi honetan, Bilbon ezaugarri honeek beteteaz gain, euskal beste hiriekaz konparatuz nobelaren ardatza dan historia gertatzeko eszenario egokiena baita. Dana dala idazleak ez deutso izenik jarri hiri honeri, historia hau beste hiriren baten be gertatu eitekean eta. Baina ez gara harritu behar jokaera horregaitik. Eusebio Erkiagaren nobelak begiratzen badoguz gehienetan ohartuko dogu leku zehaztasun eza, ez dau leku izenik emoten oso gitxi-

tan baino, nahiz eta zer ingurutan kokatu nahi dan ekintza aditzera emon. Iñaki Sarriugartek *Batetik Bestera* elaberriari egindako sarreran ideia bera jasotzen dau, Erkiagaren nobelak giro huritar, urbanoan kokatzen dirala dinosku, huritartasunaren ardatza Lekeitio izanik, bere jaioterria hain zuzen be<sup>1</sup>.

Denborari dagokionez arazoa ilunago dago. Aipamen bakarra Melkik egindako azken lapurreta Gabon Zahar gauean izan zala dogu. Ez dogu beste daturik denbora aldetik ekintza kokatu ahal izateko, eta hau berau be ez jaku oso lagungarri ez baitakigu zein urtetako Gabon Zaharrari egiten jakon aipamena.

Ekintzaren denporari buruz be ez dakigu ezer zehatzik, zenbat denpora lehenago hasi eta zenbatgarrenean amaitu dan. Gauza solteak kontatzen ditu Melkik, batetik bestera denbora pasatu arren ez jaku zenbatasun zehaztasunik emoten, ezta zein aste egun edo hiletan dagozan be. Beraz, honetaz ez daukagu datu bat ere.

Idazleak darabilen hizkera aztertu orduan orain arte jarri izan jakozan adjetiboak gogoratuko ditugu lehenengo ta behin. Mitxelenak *Arranegi* nobelari egindako komentarioan<sup>2</sup> «olerkaritasuna» eta lirikarako ixuria azpimarratzen ditu Erkiagaren prosazko idazlanean. Bestalde, herrikoitasuna dario-la ere esan izan da. Ezaugarri bi honeek dira aurkitu jakozan garrantzitsuenak.

*Txurio Txoria* nobelan be biak argi ikusi geinkezala esango dogu.

---

<sup>1</sup> SARRIUGARTE, Iñaki: «Sarrera» in ERKIAGA, Eusebio: *Batetik Bestera*, Labayru Ikastegia, Bilbao, 1985, 18 orr.

<sup>2</sup> MITXELENA, L.: *Egan*, 1958, XI, 102orr.



*Poetikotasuna:* Eusebio Erkiaga lehenengo olerkari hutsa zan, narratzaile izatea geroagoko gauza da bere literaturgintzan. Berak poesiari buruz daukan eritzia ez da gauzak era abstraktu edo lan konplikatu batez adieraztea, idazlearen sentimenduak kanporatzea baino, barruko sentipenak hitzetan ixuri, gauzak errez eta sentikortasunez agertzea litzateke poesia. Baina sentiberatasun hau idazleak ezin dau poesia idazten dauanera mugatu, prosa idazterakoan be ageri agerian azalduko dira inkonzienteki bada be. Hori da Eusebio Erkiagari gertatzen jakona, ezin bere olerkaritasuna prosazko idazlanetan alde batera itzi.

*Txurio Txoria* nobelaren gaiak ez dau berez poetikotasunerako biderik eskeintzen, gogorkeria, konpetentzia eta norgehiagoka da nagusi. Hala ere, zikinkeria eta joko maltzur horren artean maitasunak eta gizonaren birtuteak euren lekua dauke, eta esan geinke idazlearen aldetik besteen ganetik jarrita dagozala. Pertsonaien tratamentuan, batez be protagonista-aren kasuan, maitasunezko tratua dagoala esango genduke. Pertsonaiak zapaltzaile eta zapalduen artean banatzen badoguz idazleak zapalduen aldeko jarreraren kokatu beharko genduke. Nobela honetan Txurio da zapaltzaile bakarra azken baten, eta bere jarrera kritikatu egiten dau idazleak. Behar bada, nobela idatzi eban garaiko gizarte egoeraz zerikusiren bat aurkitu daiteke arazo honetan.

Pertsonaien tratamentuan ezeze eurak darabilen hizkeran be poetikotasuna errez aurkitu daiteke. Behar bada puntu hau apur bat zehaztea komeni jaku. Pertsonai guztiek ez dabe askotan narrazioan parte hartzen, beraz narratzaile dan Melki pertsonai nagusia hartuko dogu oinarri moduan. Melki, lapur talde bateko partaide dan neurrian guk era batekoa imajinatu geinke, baina bere jokaerak eta esakerak aztertzen badoguz laster ohartuko dogu beste balio batzuri, giza balioei hain zuzen, garrantzi handiagoa emoten deutsela. Esakera sinpleak, harrotasun bakoak, zapalduen aldeko jokaerak, guttiz senti-

bera agertzen jaku, bere helburuak erabat zehatzak dira, bi-deak beste era batekoak badira be.

*Herrikoitasuna:* Eusebio Erkiaga literaturazalea dala ez dago zalantzarik. Bere irakurketa eta idazle ereduak ugariak dirana be argi dago, baina honeen artean behar bada bereziki aitatu behar doguna Txomin Agirre da. Mitxelenak berak, aitatuko lanean, ez deutsalara Txomin Agirrerri zorrik adierazi eban.

Beste alde batetik, Erkiagak herri hizkera eta herri literatura sakon obserbatu eta beragandu ditu, euskeraren alde lanean ihardun dauan denporan zehar.

Zein da orduan guzti honen ondorioa? Labur esanda hizkera herrikoia eta aberatsa dala esango dogu.

Eusebio Erkiagaren edozein elaberrik daukan baliorik handiena hizkuntza mailan aurkituko dogu. Agortu ezineko iturria dogu euskera aldetik bere idazkera. Esaterako, hiztegia asko landu dauan arloa da, eta askotan ikusten doguz berba kateak «edo» «eta» loturakaz kateatuta. Baina ez da garbiza-lekeriak eragindako hiztegia, herriak darabilena eta euskera idatzian klasikoengandik hasita erabili izan dana baino. Bestalde Eusebiok hizkuntzaren sena ondo menperatzen dau eta horrek atzizki, konposaketa eta erakarketaren bitartez berba barriak sortzeko ahalmena damotso.

Baina hiztegia aberastasunaren ezaugarri bat bada herrikoitasunak berak be aberats kutsua emoten deutso. Herri esakerak, loturak, espresio bereziak, ugari eta egoki darabilz Erkiagak.

Azkenez, beste ezaugarri bat be aipatu behar dogu: ezizenak erabiltea. Txurioren menpeko morroiak ezizenez izendatzen ditu Melkik elaberri osoan: Zozokume, Gibelurdin, Birbiz, Maltzurko, etab. Eta ez hori bakarrik, momentu baten esan egiten dau «Nagusiak» nahiago ebazala izengoitiak. Honen arrazoai bi izan leikez nobela moeta kontutan hartuta. Alde batetik, ohituta gagoz bai pelikuletan bai errealitatean

klandestinidadean edo legearen agindutik kanpora dabilzanak izengoitiz izendatzera. Baina beste alde batetik Euskal Herrian oso ezaguna dogu ezizenak jartzeko joera eta zaletasuna. Txomin Agirrek *Kresala* elaberrian kapitulu osoa eskeintzen deustso ohitura hau azaltzeari. Bigarren posibilitate honek era bitako pertsonaien izendatze moduak hartuko leukez elaberri honetan: aurrerago aitatu doguzanak eta Polpoldarrak deitutakoak. Polpoldarrak Andra Polpolengandik hartzen dabe izena. Andra Polpol familia ugariaren burua da, eta bai senarra bai sei seme-alabak beragandik jaso dabe deitura hori, izan be, bera da ta familian dana egin eta desegiten dauana.

Elaberri honek zer ikasi asko eskeintzen deusku aztertzen gabilzan arlo honetan, bizkaiera ikasi nahi dauanarentzat eredugarri izan daitekellarik. Gure on etorria ba, berandutxobada be Eusebio Erkiagaren lan honeri.

Igone Etxebarria



## Egilearen oharra

Eleberri honen lehenengo idazketea «Irrizuri» izena ebala orain hogetabi urte egin neban. Geroago, zerbait aldaturik, «Neurria» neritxon. Harrezkero, «Latzaldi» izentzat eukala, moldiztegira eroan eusten, orriak irarri eta probak neuk zuzendu ere bai; horraitino, ez eben argitaldirik burutu. Baina lanaren testua eta proba horreek, norbaiten edo norbaitzuen eskuetan dagoz, jabea neu naizen arren. Beraz, zerok niri bihurtzea bidezko litzateke.

Azkenik, lan honen testua laburtuz aldatu egin dot eta sartzaldeko euskalkian atondu.

Orain, behin betiko, nobela honetan hainbeste bidar ahotan hartua dan lagunaren izena dauko. Hona hemen, ba, TXURIO TXORIA.

Bilbon, 1985.



## Erremin

Nahaste baltzetan ibilteaz zeharo aspertu eta iguindu nintzan. Ez dakit hainbeste denpora, bide-zidor hareetan zehar, zelan emon neban. Barriro hastea balitz...

Zertarako, ostera, ez azaldu nik orain, orduko zio, errazoi eta agerpideak?

Behinola, Erraulek hotsegin eustan harian zehar, telefonoz.

Erraul, beste izenez edo goitizenez Haginandi, aita onaren seme zan. Haren ama ere, txarra ez zan izango, kontixu. Baina ezin autortu, horraitino, aingeru zanik ere.

Erraulek lanbide berezi eta apartak izan zituan. Neuk lez. Lanbide batek ere, ez eban iraun luzerik izan hagan.

Anai-arrebak ere ba zituan, ta ez gitxi. Aita, amaren esanetara bizi zan, gehienbat. Baina ama bera, andra Polpol, ez zan inoren berbetara makurtuko. Ez zan bigunbera, ez zan amoregile. Latz samarra, bai ostera.

Erraulen deia ez jatan bapere gustoko izan. Haren barriketea entzuten ez nintzan gogara egon.

Gure «nagusi» izandakoak, niri deitu ei eustan. Barrero ere, nire premanan ei egozan. Eta zertarako? Santubideak urratzen hasteko, ez nunbait.

— Melki —esan eustan amarrukiro Erraulek—. Ba al dakizu nagusia (berba hau, aho betean, eztitsu ebagi eban), zu ikusteko gogo biziz dagoana?

— Ezin, ezin dot. Lanak menperatuta nauka, eta ganera...

— Lanari tiro egin neutsan nik aspaldi, eta badakizu? ez dot bapere damurik. Hobeto bizi gara honelan, eguneroko lan bardin neketsuari lotuta baino.

— Eta ganera, Erraul, osasuna ez dot lehen baizen mardo.

— Gaztetasuna horren errez galdu al dozu, mutil?

— Txo, Haginandi —esan neutsan—, zoaz beste nunbaitera! Ez dot...

Eta azken berbea esan baino lehen, telefontresnea bere zertxoan neuk esegi neban.

Berehalakoan, madarikatua! hitz gogorra bota neutsan Haginandiri.

Nondik nora jakin izan ete eban ni non nenbilen? Baketan bizi izaten zergaitik ez eusten lagako?

Gizon baten menpean jarri ginan, etzun ginan. Eta harek, menpeko asto apalak baiginan hartu ginduzan. Haren grinetara eta setakerietara bezatuak, gizon baino ere papao ta txorimamu antzean ibili ginan. Eskubidea geuk emon geuntsan ala harek berak beragandu ete eban, ez dakit.

Nagusi bihurria, nagusi zeken eta zikina.  
Ez eban harek bapere atximurkadarik bere barruan susmauten.

Zerik nazkagarrienak eta doilorrenak ere, jolas bailirean esten zituan.

Nagusiori Txurio eritxon. Menpekoak horrelan aita-tuten eben. Egia esan, haren izen benetakoa eta egiazkoa zein zan ere, ez neban anartean jakina.

Ni... bitzta baltzeko gizona nintzan, gaztea izan arren. Zigorrak ere izan nituan, eta...


Bospasei ginan taldeko. Txurio genduan buru, gazte- ez-gazte zoli ausarta. Begiak ere zuriak zituan, azala lez.

Lapurretan-eta jardun ohi genduan. Lapurretan, bide berexi askotan: ostuketa ixilekoak, lapurreta zu-riak; paper aizun eta faltsu, estrapelu, kontrabando usai- neko zerak. Pistoleru ere bai.

Txuriok berak sarri zituan bizkarzain diralakoak; go- rilak. Ganera, beste norbaitzuen bizkartzainak lortu ta bereganduteko eskabideak ere izaten zituan.

Joko zikin eta eskuketa bihurriak egiteko eskaintzak egiten zalea zan Txurio. Eta haren esanetara ibili be- har guk!

Andra lingirda eta neskatila txankame batzuk ere izaten genduzan hornigarri eta betetzaille.



## Lekutako dozenerdia

Talde honeen izenak eta nortasuna adierazo nahi neuke, handi mandi badaere.

Gizon bigunen jarduna eta jokalegea itxuraz jaztekoak, zera, apalen papera egitekoak, Zozokume eta Gibelurdin izan ohi ziran.

Lan gogorretara, barriz, hor egozan Birbiz eta Maltzurko.

Bakoitzaren hazpegiak eta gorabeherak esatea, polita litzateke.

Birbiz txit ernea eta zolia zalako, buruzagiak, Txuriok, ezizen hori ezarri eutsan. Egikera bizkorrekoa zan, ernea, zain-joa laster sumatzen ebana. Lotia eta nagia zan, ostera, gure «laneko» unada eta aldia eta ahalegina amaitzerakoan. Gerrari-arimea eukala esan ohi eban berberak. Eretia zanean zazpi ahaleginak egin, baina gerozago, nasai patxadan egon.

Dirurik baldin bazan, orduan bai, bizitzeari poza eta alaitasun haragikoia eskaini, eta grinaldiak asetuz, gozartu, laket izan. Txintxinik ez baldin baeben —ez aldean, ez etxean— nagi eta bagi, egonarriz gainditu gorputza eta gogoa. Horraitino, jankar areago zan, salobera baino.

Zozokume, bestelakoa zan. Kataeme antzekoa, ixil



eta dendunez, eskunarrudun lapurraren jita eta sena eukazan. Berbaz, gozoa zan. «Diploma» esaten geuntsan Maltzurkok eta biok.

Zozokumeren istoriorik ere, ba nekian. Hau, seminarioan egon zan urte batzuetan. Eta handik atara eban atara, kantu bigunez berba egiteko eukan modu mazal hori. Mintegitik etxera zergaitik bialdu eben, ez dakit. Lehenengo urteetan minbera bizi izan zan.

Harrezkero, zerik asko ikasi eban; emakumeen artean konkistatzaile izena irabazi ere bai, ez jakin bidez ala bidebaga. Ule gorristea zan, ingelesume izan ez arren.

Maltzurko eta Gibelurdin ere guztiz maite zituan Txuriok. Ni, barriz, egunak joan egunak etorri, begiko samarra aina.

Maltzurko ez zan jakintsua, baina argia bai. Eta eskola handirik izan ez arren, ba eban berezko doerik. Inork ezer adierazo baino lehen, Maltzurkok ba ekian besteren aburu eta eretzirik agertzen. Horretan, emakumeen sen hori erakusten eban.

Igarle aierukor izatea, eta jazorikoa ikusi ondoren, tantua beti euren alde jotea.

Gibelurdin zan laugarrena. Ni neu, boskarrena nintzala, esan beharko.


Ez zan edozelakoa Gibelurdin ere. Harek ere, ba eban bere nortasun ospatsua, eta besteakandik apartekotzen jakun. Apur bat ameslaria zan. Beharbada, ames astunak, luzeberak, berankorrek ebazan, aleman-txiste antzekoak. Gibelurdinen esate gazigozoak ere, entzun eta handik geroetara barre egitekoak izan ohi ziran-eta. Begi biribil handiak, kóstaldean takartaren begiak, esa-

kunea. Eta sabel-eriona, aparta. Haren barruko haizeak zeharo bildugarriak ez baziran ere, kanpora nahirik sarri samar izaten. Inoiz zarataka, iskanbiletan, lapur-joko ixiletan genbiltzanean, benetan ezegoki ta salatari, arraiotan! Beste batzuetan, ihesaren agertzaile, kirats iguina, larrigurea zertzen ebana izan ohi zan.

Holakoetan, Gibelurdini esanalak esaten geuntsazan.

— Horixe dok Bach-en fuga... usaintsua!

Gibelurdinek orduan barre tentela egin, sorbaldak jaso, begiak takartagotu, eta hor konpon!



## Polpoldarrak

Gela ez apain ez txiro baten, han egozan batzandurik, senide billeran lez. Polpodarrak ziran; andra Polpol eta haren semeak besterik ez, une haretan.

Andra Polpol, dana gizena. Haren bularrak, haren iztarrak... Ez eukan gerririk, goialdeak eta behealdeak lerrozut bardina, igeltseruak berunarria dingilizka jarri, eta ezin artezago goiti-beheti.

Buru handian, adats harro ugaria. Arpegia ere, ez txikia. Begiak, tamainukoak, eta aho hedatuan, marraizoaren haginak.

Andra Polpol, etxeko erregina lez —beharko!— siloi zabalean nasai nasai —bestelan ezin ba, eta— jesarrita egoan.

Haren alboan, sarri askotan lez, amaren esan gozoe-tara, Txolin, seme nagusia. Baserritarrak izan balira, etxaguna izan eitekena. Honek jarten zituan doinu disku baltzak, amaren gogara betiere.

Gorka, hurrengo semea, batera bestera ebilen, ohi ebanez, eskuetan paper eta liburu.

Ba nekian honen mundu, sehaska, ohe ta bizilekua: idazkiak, paperak, gutunak, liburu handi ta txikerrak. Ez egoan inoiz ere bakarrik, halan egon arren ere. In-guruko horma, kuadru, leiho eta abar zituan hitzegiteko

lagun, solaspide. Honeekaz berba egiten eban sarritan, amagaz eta anai-arrebakaz baino areago. Aspaldiko eza-guna neban; gatzetxotakoa.

Anton, hirugarren semea, itsasoetan ebilen.

Laugarrena Erraul zan; «Haginandi».

Neskatilak, etxeko alabak, ez ziran agiri han.

Euren adiskideekin, arrats-jolasen bat ei euken.

Han ibiliko ziran, bata besteagandik urrun eta hurrean. Aiztatxo biok hain banaak eta ezbardinak ziran-eta!

Saule eta Lore aitzak, bai alde handikoak! Berehalakoan ohartu nintzako horri. Saule lehenengoz ikusi nebanean izan neban haragi-dardarea gogoan dot.

Honek, berezko grinen joerea indartsu agertzen ekian; Lorek, ostera, beste buruera goitar antzekoak edo, ernerazo eustazan. Neskatila txairoa eta txukuna zan. Ez jakin andra Polpolen alabea ez ete zan ere.

«Haginandi» bere amak garatz handietako ikertzaile edo arduradun egin gura izan eban.

Arratsalde berandu haretan Erraulek euren etxera eroan ninduan.

Eta Gorka agurtzeko beta pozgarria izan neban arren, haren ama ospatsu andra Polpol ezagutzeko atsegin eskasa ere izan neban.

Andra Polpol diruduna ez zala ere, hainbat ezago haundiki, gogo ta gurari puztuz bizi izan ei zan edonoiz. Hamalau urte bete baino lehen ere, andra handi izateko garra betiro erakutsi ei eban.

Aita ta ama jende beharra izan arren, andra Polpolen lilurek, apaltasunak alde batera lagata, ez eben neurri medarrik opa gura izan. Haren haize-orratza handitasunezko haizeek orraztuten eben. Haren guraria ames-iparrerantzerako imaneztatua egoala zirudian, aspaldietan egon ere.

Birloratasunok irakiten jarteko, guzurra —guzur apaina edo guzur traketsa— alboko ta auzo ezezik, senide hurko ere izan behar. Gazte denporan neskatilak aho zabalik egon ohi ziran Polpolen ipuin biribil eta esanaldi lorez eta bitsez jantzirikoak entzuten.

Txolinek, disku bat bera aukeratzeko ere, ahalmenik ez eban. Amak, amaxok argituko eutsan burua, haren ondoan egoan bitartean behintzat. Amaren haizea izango eban itaurreko, hotsemoile, artezkari.

— Zein disku jarriko dot, amaxo?

Eta, andre Polpolen senar jauna?

Ausaz, senar bai. Jauna oster, ez. Etxe haretan ez egoan Polpolen jaunkuntza besterik. Sendiaren egonleku haretan aita ez zan buruzagia. Erkaba taxuak ez eukan han sustrairik. Matriarkadu eredu a zan garai eta nagusi. Aita, irudia besterik ez zan. Horman esegita dagoan kuadruko marrazkia. Harako, urliaren etxean no da to. No, praka ta guzti. To, ixiltasuna ahoan.

Andra Polpolen senar gizarajoak Beñat eban izena. Ez zan hain zuzen Beñat Mardo, kanta zaharrekoa, Beñat makal baino. Beñat oilo.

Begia ezarri eutsan Beñat gazteari andra Polpolek

bere sasoian. Ez gehienbat itxuraz galai morrosko ederra zalako; bai oster, diru-usaineko edo diru-ekarle izan eitekela susmoa ebalako.

Beñat itsastarra zan. Urrunetako itsaso eta lurraldeetan, harako India etzunaldikoetan ibilia. Eta anartean, han bere uritxuan, gazte zan garai haretan ere, eukitsua eta diruz atsitua ete zalakoa zabal izan zan.

Polpol ernea ez egoan lo. Begi zuhur ebilen beti ere, eta gura ebana lortu eban. Gizarajo bat kuturtzea eta menperatzea. Baina ez ezer bakoa.

Saule haren alaba beroberea ezagutu eta geroetan, Zelineren gomuta samurrak jo ninduan behinola.

Txikitako nire neska laguna, nora sakabanatu eta atzendu ete jatan hainbat eta hainbat urtetan? Halan ere, zelan ahaztu neska maitagarri haxe?

Xaloe zan, garbia, gurbila, lotsa handikoa, mazala.

Bihozpean urratua izten dauanetariko neska xarmanta, gogogarria.

Aspaldi izan neban, barru barruan, halako mineri nekatsua.



## Erlojulari zaharra

Gorkaren anai Erraul Haginandi ere, gure artekoa zan bai. Txurioren artaldekoa.

Gorka bera gizon apartekoa zan, bedegarra. Ikastun, asmozale: alkarregaz ikasi genduan kolegio baten. Nik neuk, batxiler laburra besterik ez neban egin.

Jarraian, elektrogaietan hasi nintzan. Eta sari urria etxeratzen nebala-ta, auzoko gizon ezagun batek beste toki batera eroan ninduan. Erlojulari batengana, ofizio zehatzekoan saiatu nendin. Lanbide polita zan. Izerdi premina bakoa, horren baten.

Elektra arloa gogoko izan jatan arren, orduan behintzat erlojuen sabelak hustuten eta elementu banaak ikasten eta ezagutzen hasi nintzan.

Esku finak nebazala, atzapar artatsu eta leberak.

Erlojulari zaharren esanak, Errazu bere abizenez.

Bepuruko uleak moltzo ikaragarrian eukazan, eta horregaitik haren begiak ikusterik ez zan errez izaten. Neure artean satorra esaten neutsan.

Harrezkero satorrik asko ikusi dot. Gizon haxe bai-zen zintzorik ostera, bapere ez.

— Oker ez baldin banago, Melki, erlojulari azkarra izango zara, denporak denpora.

Nire nagusiaren esan bigun hareek pozez eta harro harro jarri ohi ninduen. Lausengua eta koipekeria, gazetetan batez ere, asegarri dalako. Ta ni ere, gazte nintzan.

Erloju barruko zatiak banandutea errazago zan, nunbait ere, geroago erloju osoa barriren barri atondutea baino. Estularriak eta komeriak orduan izaten ziran! Hainbat pieza lar gelditzen jatazan, sobera.

—Zeure kontura gehiegi eta sarriegi ibili gura dozu —zertzen eustan zaharrak—. Lehenengo arreta handiz ikusi egizu, egonarri luzez, pieza bakoitza nun dagoan, eutsita zelan dagoan, goitik zer daukan, zer behetik. Eta batez ere, zati bakoitzak, puska bakoitzak, zer lan egiten dauan, zein zerbitzu.

Horrelakoak esan eta astiro ta arduraz niri begira ta begira egoten ekian. Nik orduan, irribarrea agertzen neban ezpanetan, aho ertzean.

Harrezkero ahaztu dodan irribarrea.

Gaurko munduak ere ahazturik daukan irribarre gozoa. Gizonen ezaugarri parebakoa, barruko gurari onaren erion atsegingarria.

Erlojulariaren arau zehatza, hots bakana, bardin eta burduntzia, ostera, zorrotzegi barruratu jatan. Gaiaren jopu izatea zan. Hain zuzen, gizonak kendu ezin izango dauan morrontza astun eta luzarokoa.

—Hara, melki, hauxe dozu mekanikako zerik nagusia. Zer guztiek dabela izentauriko zeregina, bakoitzak berea, bakoitzaren joputza ta zerbitzua. Ezin da bestelan. Joputza horixe zein dan susmautea, igartea. Eta



zelan egiten dauan, egoki ala txarto, erraz ala baldar, arin ala neketsu. Horra hor arazo honetako jakituri gutia.

Eta une haretan, konpontzeko zituan erlojuetarik bat ezkerreko eskuan hartu, eskoiagaz sastaitxoari heldu, eta ganeko estalkia alde batean laga, eta neuri aurrez aurre begiratzuz, banaka banaka hasi zan, tokietatik erauzi-ala, txintol eta guzpiltxoak, garranga, tornilu, malguhari, ardatz eta orpoharriak niri erakusten.

— Erlojuak bere arnasea behar dau. Gizonak eta patariak lez. Geldi dagoan erlojua, hilda dagoan abere edo gizakia aina da. Gizonak goizero behar dau biztu, eta abereak be halantxe, bere losorrotik. Erlojuak, horraitino, bere lanaren preminea edonoiz dau, bere higidurearen beharizana, zirkin eta ingurabirearen eskabidea. Gorputzak lo egiten dabe. Baina, ordulariak ez dau lorik egin behar. Are gehiago. Erlojuak lo dagoanari dei egin behar deutso, itzar dadin, bizkortu dadin. Bakoitzak bere lanari barriro oratu degion.

Erlojularia filosofua ere ba zala esan ohi neban nik.

Maitagarri jatan. Eta haren ihesaldiak minez bete ninduan, atsekabe mingotsez josi.

Neguko goiz baten joan nintzan, betiko antzean, haren dendarantz. Hertsita egoan. Atea jo neban. Inor ez zan azaldu. Ez barrutik, ez kanpotik.

Orduak aurrera ta...

Goizerdira ginanean, haren bizitokirantz joan nintzan.

Bihozpean, ohi dan lez, aieru kaskarra eta kezkearen behazuna nituala.

Alborengoak jo, birikak hondatu, eta hil egin zan gizarajoa, handik egun batzuetara.

Errazuren heriotzeak ikaragarriri samindu ninduan. Maite ninduanaren erakutsia emon eustan gizon harek, inork ba!

Geroago, sarri askotan zertu izan dot: Errazu bizi izan balitz, eta nik haren lantegian jarraitu, ni bide baltz hareetan sartu nintzan hainbatean sartzea...

Errazuren hilobia ikustera behin baino sarriago joana naiz.

Gizon amultsu hartaz halako mineria izan dot.

Zintzoa izan jatan.

Elektra arlorra jo neban barriri. Halanbeharrez.



## Itxaine

Haginandik harakoan adierazo eustana, alperrik zala susmau ebenean, nunbait, beste bide baten zehar jo eben hareek.

«Hareek» aitatutean, nire buruzagia eta honen menpekoak, zertu gura ditut.

Bide bat utzi eta beste bat hartu eben.

Bigunagoa, leratsuagoa, bitartekotzat aukeratu ebena, emakumea izan zalako.

Elektra arloko lantokitik kalera urteteko nengoala, han ate-aurrean, leihopean, neskatilea ezagun bat ikusi neban.

Gonadun ha nor zan ondo nekian.

Hareen tartekoa zan. Bere izenez Itxaine.

Gure lantokiak urteerako beste ate bat izan baleu, handik joan izan ninteken. Ez zan gurbila ta itxurakoa leihotik ihes eginik joatea. Santa Kruzek parkatu deidala.

Ordua heldu zan eta gure lankideak, gazte eta zaharrrago, ba joaiazan kalera. Horreen artean irudibiatuta, antzaldaturik urtetekotan egon nintzan. Benetan, ez neban neskatilea haregaz topez egin gura.

Oiloa nintzala nigaitik esan egien ere, ez jatan atsegin, egia dinot. Honetan ba, «aurrera, gazte!» esan neure buruari, eta abiatu nintzan.

Nire jantzia eta ganekoa hartu eta kalera nintzan.  
Berehalakoan dei egin eustan.

— Melki!

Ez entzun egin neban, eta aurrerantz jarraitu.

— Melki, Meeelki...!!

Une haretan niganuntz aurrez aurre etorren gizoneko batek zertu ninduan. «Neskatila horrek zure galdezko oihuak egiten ditu: Hor dozu emakume apain bat...»

— Eskerrik asko —erantzun neuntsan—. Ez dot txintik ere entzun.

Guzur tentela, nire guzur hau.

Honetan, neskatilea, arineketa txikian, emakumeen betiko priesazko takoiketa urduriz, nireganantz etorrela nekusan.

— Melki! —zertu eustan barriro ere, baina apalkiroago eta zuhurrago ere bai—. Gortu egin al zara?

«Andren samurtasunak ohi dauan ondorengo kargarik helduko da, berba honeen ostean» —pentsatu neban—. «Asmo bihurriren bat, edo behintzat niretzako onuragarri ez daiteken zerbait.»

Itxaine neskatila atsegingarria zan, zertarako guzurrik esan.

Aho eta ezpanak polito zituan. Begietan malizi-osin edegia agiri eban, gizonaren irritsak gurugarri etsi ohi dauan erakoa. Eme erakarkorra zan, ezin ukatu.

Buruan ule moztua, moztua eta ez moztua, dana batean hezigaitz eta deigarri.

Udazkeneko urre-izlaz dotoretua, artaburu heldua-  
ren kolorez hor nunbait jantzia.

Gerritik gorakoa polita ta egokia. Ez zituan, zori  
onez, andra Polpolek eukazan, eta nik hainbestean go-  
rrotatzen nituan bularsagar biribil moltzo ikaragarri ha-  
reek.

Nire begira egoan eme gazte pertxenta haren asmoa  
zelakoa ete zan?

Nire zain egoteko, ezkontza aurreko kurtsoa alkarre-  
gaz egin gengian prest egoala niri esateko ete zan?

Ummmm...!

Itxaine ez zan —damuz dinot gaur— eleizbide ho-  
rreetan ibilteko beta eta aukerea izaten eban umea. Beste  
bide zabalagoetan egiten zituan ibilerak eta urratsak do-  
hakabe harek.

Ez etorren bere asmoz bakarrik, ziur asko.

Nagusi baltzak —Txurio izentzat euki arren—, harek  
bialduerazoa, nunbait, niganaino.

Zuritu gura izan ninduan, limurtu, beste behin egin  
ninduan lez. Barriren barri, taldeko izan nendila eskatu  
eustan. Irabazi onak, bizimodu nasaia, atseginaldiak eta  
abar... gerorantz lehen baizen ugari, eta ausaz, ugariago  
ere izango nituala-ta.

—Melki, zoratu egin jatzu, ala? Ez al dakizu harek,  
zu barik ere, gura dauan edozein asmo bete leikela?

—Horixe nahi neuke nik ere —esan neutsan—. Bete  
daizala gura dituan asmo eta amesak. Bete... ontziak, zu-  
loak eta hutsuneak ere. Baina... ni barik. Talde horren  
bizimodu makurrik ez dot jasan gura. Nahiago dot neu-  
re gisa, behartsu eta estu bada ere, ... nasai bizi. Baita  
lan eginda ere. Lekutan...!

— Askatasunez, zer bilatu dozu, eta zer idoro dozu? Ba dakust bai, Melki. Lana, lana eta lana, astoak eta mandoak lez, inoren menpeko eta inoren onuragarri dan lana. Ha zelako irabazia!

— Ixilik! —zertu neutsan, nire eskua haren ezpanetan lazkiro ezarririk—. Zuk zer esan zineist, Txuriotarrrentzako «miliziana» zikina besterik izan ez-eta!

Negarrari emon eutsan Itxainek.

Gogorregi hartu nebala autortzen dot harrezkero. Neskabila ha ere, bizimodu haretarik aldegitoko adorbako ume errukarria besterik ez zalako.

— Ba dakizu, Melki, zu ere maite izan zaitudala.

Ixilik lotu ginan. Biok ixilik.



## Andra Polpol eta Beñat

Egia zan andra Polpol ehiztarieme ona zana. Azkarrara.

Lehenengo senarra —aho-mihin gaiztoen esatez— denpora baino lehen bialdu ei eban heriotza-mugaz bestaldera.

Geroago, Beñat izan zan tupustapan hortik hemendik harrapatu ebana.

Beñat, Polpolek begizkoa egin eutsan ezkeru, sugeak kuturtu dauan txoria aina beratz eta hezi, tentelduta geratu zan.

Beñatek bere askatasun hegoak lumaturik, tipilduta aurkitu ebazan berehalakoan, eta konkortuta geratu zan.

Eta pentsetan hasi.

Izan ere...

Jaunak lurra eta itsasoa sortu ondoren, batez ere lurreko zer guztiak gizonaren menpe eta esanera jarri ei ebazan.

Gauza guztiak... emakumea izan ezik.

Hauxe, ohar bakan antzera, testu santuetan ere, sartu beharreko ete zan.

Arabiarrek, ostera, bestera uste ete daben. Kasu berezia ete zan? Honeek, emazte saila gehienbat euren

atzetik eroaten ei dabe. Emakume saila, mordoia... gizon batentzat.

Atzetik... Horraitino, alemanak sorturiko azken gerate handiaren ostean, han kontinente baltzeko lurretan zehar oinez edo kameilu ganean morroe azal iluna, eta emazte mordoia aurretik... lurretan lehergarri ziran mina indartsuak egotea eitekena zala-ta, bada ezpadan ere...

Une eta egoera haretan, arabiarren emaztekiak dragamina antzera... Baina hori, kasu berezia zan.

Beñatek mendebaldeko indietarik ekarririko ondasun maminak, han hor hemen trinkotu ei zituan, ganeko urteetan hareen preminea izango ebalakoan.

Dirua bai, ekarri eban. Osasuna, ostera, nahikoa lorrintua. Guztia beharrekoa, labur esateko.

Tropiko aldeko berotasun erreak, atebako laba goriaren beroak, gorputza eio eutsan. Ez egoan elbarritu, baina gibelaren ahalmena, gizonak hain beharrezkoa dauan soin-atal horren zera, zehatua eta urriturik geratu jakon.

Beñaten azal-koloreak ez zirudian euskaldun arruntarena, nahiz-eta lur barrutikoa izan. Beste paralelu bateko gizakia zirudian.

Kontrata lanetan ibiltzen zan adiskide bati utzi eutsazan diru mordoak. Hirugarren gizona lagun ebela, geroago, hirurok baltsa bat sortu eta eratu eben. Honetara, Beñat partzoneru bihurtu zan; sozio. Adiskide hori Ikert asmogina zan.



Harrezkero Beñatek ez eban esateko lan nekerik izango bere bizitzan.

Emazteak ezarten eutsazan buztarria eta nekea izan ezik.

Ikerten alboko, menpeko eta laguntzaile izango zan, kalean. Andra Polpolen otsein antzeko, etxean.

Ezkon-aurretik ere, Polpol izan eban gidari antzeko.

Polpolek bere senargeiari etxebizitza bat —ez handia— erosierazo eutsan.

Ezkontza ibiltaldia egin eta ganeko egun batzuetan, horraitino, urian bertan, ostatuan egon ziran, ostatuan bizi izan ziran, auzoko gonadunen mihin ez tentsuak ixilduerazo edo behintzat makaltzearren.

Jazoera entzutetsu horren inguru, ezkontza arazo horrezaz aurretiaz, auzoko andra eta neskatila azagunek egundokoak esan zituen ezkerero, Polpolek bere eskolea astindu eban, bestela baitakoan.

Bai. Esanak izan ziran.

Honako... Beñaten osasuna eta sustraia igarturiko landarea; Beñatek ez ebala diru handirik; ezkontzeko gogorik ere, ez ebala inoiz azaldu izan, Polpolek berberak horretara bultzera eban arte...

Indianuak goizean kamomila-ura besterik edaten ez ebala: ardaurik beinere ez, jakina! eta bazkaritan patatak birrinduta eta arrain zuria baino ez. Afaritan, barriz, salda garbia eta esne gurinik bakoa. Eta gauerdian, karabaina-ur mingotsa, eta hor konpon biharamonerarte.

Esames eta zitzimurtzi gazbakook guzurtatzeko, eta

mundu osoari eguzkiaren argipean, eta halan balitz iretargiarenean ere, agerpide biribil eta gogoangarriak erakusteko, andra Polpolek erabagi honeexek hartu eta bete zituan. Zera, lehen lehenengo:

Ezkontza osteko egunak kanpoetan emon ondoren, urira bihurtu arren, eztegu ogietan jarraitzea; zelan? hotolean bizi izanda. Hain zuzen, ez hotel motel asmatubarran. Motelkeriarik ez. Hotel jatorrean ez baldin bada ere, ostatu itxurazkoan, ez edozelakoan.

Bigarren. Euren buruak ostatu horretan patxadan erakusmenean jarri bakarrik ez. Zapatu iluntzeetan, ostatutik aparteko afari gozoak jatetxe berezietan. Domeketan, vermut eta bazkari, tokirik agirienetan. Eta ge-roago, bai zina, bai teatru, gertetan zana.

Itsu ez zanak, urian ikusi egizala senar eta emazte diru erionean jarraikoan. «Mutilak! Horreek bai, Beñat eta Polpol...!»

Andra gazteak ezkonbarritan zeregin eskas etxean, andra Polpolek bere soina, gatza eta mamin ugariak —orduan ere, izango zituan, ausaz— erakusteko aukerarik ez eban galtzen. Txukun guran, pitxiz beterik ibili ohi zan uriko kale jentetsuenetan.

Batean, senar behaztun kolorekoaren besotik. Hobe-to esan, Beñat gizarajoa zan emazte gizen eta benetan bulartsuaren beso lodietatik dingilizka joan ohi zana. Beste batzuetan Polpol bera, bakar eta burgoia, ardatza baino lerdengo —biribiltasunak aparte—, burdi-taketa baino trinkoago.

Hirugarren puntua, diru-kontua zan.

Egia esan, hauxe zan puntu lehena eta behinena Polpolentzat. Gizasemeen artean gizon dirudunak ere ba diran ezkeru, zetarako ezeuki ta narrugorri egoan koipezto bategaz buztartu, ezkondu? Gizon ederra, beharbada, oherako bai, baina pepe ginda bizi izateko? Aaaaa...!

Ganera gizon eder ederra izateak, galtzeko arriskuak gehitzen.

Andra mardo haxe ezagutu nebanean, ez nekizan nik haren istorio giar guzti honeek.

Gorkaren adiskide barriro egin nintzanean, eta honegaz ibili eta honen izekoaren etxera joaten ginanetan, laster jakin nituan Beñaten arreba neskazar errukibako harengandik.

Arreba horrek, lazka, esames eta nahastea besterik ez eban sortu bere nebearen eta honen emaztearen artean. Bedar saskarra erein, aitor eta emonkor izan behar eban lur gizenean.

Inoren etxean agindu gura, eta izan ezin.

Polpolen teoria artez joian.

Dirua norberentzat onuragarri. Eta auzoko begi luzeentzat, amorragarri.

Geza eta tentela izatea baino, harroa eta lotsabagea izatea hoba zala. Maitagarri izatea lortzen ez danean, bildurra besteri sartzea, komeni izaten dala.

Zana zala, zabalkundea ginda egoan.

Polpol eta Beñat unada atsegin haren ostean, ostatua

laga eben eta euren etxe barrira aldatu ziran, ordurako egoki hornidurik egoan-eta.

Gauzak eta egitadak agiri eta nabarmen egozan. Ganorabakoren batek izan ezean, uriko guztiak ekien arazo.

Arean ere, andra Polpolen senarrak dirua eukan; satsa lez. Jateko gogoia ere bai. Eta edateko.

Osasuna eta ondasuna, munduko doktrina jatorrean, zerik behinenak, buruenak eta guragarrienak.

Dana esan behar da-ta... Semeak izateko ahalmena ere bai. Edozeinek ez dauana.

Hau ere, erakutsi eban andra Polpolek.

Sarri askotan esan izan dot neure artean, andra Polpogaitik hainbeste gomuta eta kezka zergaitik izan dotan.

Hizpidea argi ta garbi emoten ez neuke jakingo. Niri neuri egindako kalteagaitik ez da, ziur asko, izan deustadan iguin eta destaina hau, eta txorro txorro esanalak esate hau. Zeharkakoa dot harezazko mingostasun hau. Besteren bitartezkoa.

Txuriok eta Polpolek, bakoitzak bere arloan edo, samaraino bete ninduen. Nire gogoaz besteko bihurtu jatazan.

Bata bai bestea ikusi baino ez ikusi, gurago izan jatan.

Lehenengoak nire kaltezko egipenak atondu zituan. Ni, anartean, gizon arteza ez baldin banintzan ere, harekek, Txuriok, gizon begi gogor eta bihotz gogorrago-

koak egin ninduan makur, bihurri eta minkor. Behin baino sarriago nire azken-arnasea emoteko arriskueta jarriarazoz ninduan harako Txurio maltzur eta iguingarriak. Nigan erein eban hazi txarrak, egunen baten...

Gaitz izango jat, bizi naizen bitartean, haren aldeko berbarik ebagitea, esatea.

Andra Polpolen bihurrikeria beste ixurki bateko ura zan. Beste larra bateko sasia.

Alde hori ez dot ahazturik.



## Txurio

Gizon honen erruz gorriak ikusia nago.

Eta ezin ahaztu orainarte. Ezta ahaztuko ere.

Gaztetako pekatuak ordaindu egin behar ei dira.  
Niri ere horixe gertatu.

Txuriok berak eginak, berekiko eta zelan pagatu behar izango dituan, ez dakit. Baina honetan egin ezean, bestean egin beharko. Ez dago norarik. Noraezeko da.

Txurio zelan ezagutu neban...

Estazino baten izan zan. Neguko jai arratsalde baten burdinbide geltoki zabal hedatsuan gerta nintzan. Eurria botalan zan. Aterpe bila edo, hantxe ni geratu.

Geltokira sartu banintzan, sartu nintzan!

Hari begira, honi begira baina inoren begira, ez horratino. Halanbeharra, ez dago besterik.

Egun haretan ez neban inongo nesgaz batzeko asmo berezirik.

Nagi ta luzakor ibili nintzalako, nunbait, ohi genduan kafetxera heldu nintzanean, lagunak aldegin eben eta bakarrik geratu. Bazkal osteko nagialdi kaltegarria izan neban.

Trena, izugarri luzea, geltokiratu zan. Atadian laguna ugari egoan. Atez kanpo, euri ta euri. Haizeak zinkurin eta espa negartiak egiten zituan. Ni neu hasarre

samar, baina nasai nengoan, inguru haretakoen joanetorri eta higikunak ikusiz, dubako zinea bailitzan.

Artean, oraingo tele-ikusgailurik ez egoan asmatu-rik. Jente heldubarria beribil bila, taxi eske hasi zan urduri, txingurriak lez. Maletariak erne eta adiguritsu, hari galde, honi erantzun, urrenari eskain, han ebiltzan egonezinez.

Andra, neskatila, ume, gazte, gizon, sendi, senar-emazte. Ugari eta eurrez nituan begion aurre. Batzuk es-tazinoruntz, besteak kanporuntz joan guran.

Zergaitik ez ete nintzan une haretan neskatila lirai-nen bati laguntzen saiatu? Hori egin eza, hamaika bidar damu izan dot.

Geldi egozanan artean, gizon bat egoan; begira ta be-gira. Nik ikusi nebanean jesarrita egoan, geltokiko zizai-lu luze baltz erdi zikinean. Lotura bi zituan, pardel bi, ezker-eskoi. Makila sendoa eskuan.

Amesetako zera dala uste izan dot sarri. Baina, tama-lez, tamalaren garratzez, gertari haxe egia izan zan. Nire ariman eta haragian jasan izan dodan neke eta oinaze lazgarria.

Elbarria zirudian, ibilpiderik bakoa, edo behintzat, errena, ointringoa.

Halako baten gizon harek buruagaz keinua, agur-imintzioa egiten eustala uste izan neban. Nik, orduan, beste aldera begitu neban, elbarritzako hari jaramonik egiteke.

Zergaitik ezezagun bati jaramonik egin?

Lagunabarrak han ebiltzan hara-horra, bakoitzaren bide eta bidegaiak atondu guran.

Harako gizona lehen ikusi neban alde haretara be-

giratu neban barriro, ohi dogun halabehar makurraren eraginpe zitalean.

Une haretan, harek, besoa jaso eta eskuagaz ere agur egin eustan eta atzaparrak batuaz, beragana joan neintela adierazo.

«Zer gura ete dau horrek? —ninoan nereko— . Gi-zajoa dirudi, bakarrik, pardelak alde banatan, ibili ezinik edo ta...»

Nagiak eten nituan eta harengana jo neban.

Hurreratu nintzakonean, irripar neurtua lakoa egin eustan. Begiak gorantz eta beherantz, burua jaso eta makurtu, aldizka egiten zituan. Soinekoak barriak barik maiztu samarrak. Kapela nabarra buruan.

Gizon apal itxurako harek, arpegi samurra agertu gura eustan, nunbait be.

— Parkatu, baina... ni hemen naukazu, bakar bakarrik, deslai, ganora barik, ezertarako ere baliatu ezin naitekela. Zuk al bazendu...

— Bai, jauna —erantzun neutsan lau lau, nigan neban hasiera onaren arabera—. Zer nahi dau, ba?

— Zera, pardel honeek eta neu batez ere, eroateko, burtarinen bat, taxiren bat behar dot. Zuk lortuko...?

— Baietz uste dot.

Atadira nintzan eta jente artetik kaleratu ere bai: Taxiak zoramenezko itsas-uhinen ganean ontzi koskolak lez, ebiltzan, joan-etorri oldartsuan lehenbiziko mailaraino zertu nintzan.



Zazpi ahaleginak egin nituan taxiren bat lortzeko, eta halakoren baten, taxi soster bat nigandu neban.

— Nitzat?...

— Bai, jauna —erantzun eustan taxista erneak—. Bizkor ibili.

Geltokiko gizon buru zuriak esker ona erakutsi gura baileuan, irri gozo nahia eskaini eustan.

Egoan jesarlekutik jagi, eta trinkili trankala ibiltzen hasi zan, makila sendoa eskuan. Ez neban jakin une harretan, amarrukeria zirtzila zanik.

— Lotura biok hartu, adiskide —gehitu eustan—.

Berba honeek, ostera, lehenengokoak baino zakar-txoagoak izan zirala susmatu neban.

«Gizon honek apala zirudian, baina...»



## Lagun hurkoak, ziria

Geltokiko gizona —geroago Txurio nardagarri bihurtuko zana— errenka lez ibiltzen hasi zan, eta ni haren aurretik ninoian, esku bakoitzean lotura bana, eta haren esanera.

Lagun hurkoari mesede egiten nihardualakoan.

Jente artean zehar, taxi poxpolaren ondoraino zertu ginan.

Taxistek atea edegi eta geltokiko gizona barrura sartu zan. Irribarre neurtuko gizona; burua goirantz behertantz erabilten ekiana.

Haren pardel biak ere taxiratu nituan, borondatezko maletari honek.

Ateari oratu eta txakada baten talka eginez, hertsi neban. Urguria eta adeitsua eta errukiorra izan nintzala-ta, barrua pozik neukan. Zoro hau, tentel handi hau!

Bapatean gizon harek leihoko kristala jatsi eta esku-turra bere ukabilez estutu eustan. Harritu egin ninduan, etxekotasun lar zalako.

— Zatoz neugaz, gazte; mailak igoteko gauza ez naiz-eta.

Ezetz esateko astirik ez adorerik ez nunbait, eta, horra! taxi barruan aurkitu neban neure burua.

Orduan, geltokian ezagutu —erdi ezagutu— neban gizonak taxisteari, argi eta garratz:

—«Armiarma» ostatura, Kupelgileen kalean.

Harri ta zur geratu nintzan.

Uri haretan bizi nintzan ni. Horraitio kale horren aipamen handirik ez neban; hainbat ezago, ostatu horren izenaz.

«Morroe honek, hemengo barri neuk baino gehiago ete daki?»

Une haretako nire tenteltasun geldoaz konturatu zan, nunbait, gizon buru zuria.

—Alkarregaz afalduko dogu —generatu eustan harek—.

Ordu zori baltzekoak une haretan hasi jatazan. Halan ere...

—Ez, jauna —behingoan erantzun neutsan—. Ez dot orain betarik. Mailak igoten lagun egingo deusut. Besterik ez. Eskerrik asko.

Halan ere, lagun hurkoak ziria sartuko eustanik, niri buruak emon ere ez.

Bertatik, begiraldi zorrotza egin eustan geltokiko gizonak.

Taxi barruan argi eskasa egoan, argi motel eta ganorabakoa. Hori gorabehera, gizon haren soaz, begirada ilunaz jabetu nintzan.

—Nigaz egongo zara, apurtxo baten behintzat —gehitu eustan—. Berbea, berbea da. Eta nirea, erregerena izan.

Lasterregi ez, baina heldu ginan aldauri antzeko inguru haretara.

Neu jatsi nintzan lehenbizi. Ihesari emoteko zirika-dea senti izan neban neure barruan. Arbin eta artega susmatu ninduan. Eta nik murtik egin orduko, berbaera zastadatsuz niri:

— Ez, gero, ihesik egiteko asmorik zertu! Alperreko litzakizu. Eta kaltegarri, ganera.

Urten genduan, beribiletik, biok.

Odola bapatean irakiten jarri jatala uste izan neban. Horraitino, zanetan epeldua geratu jatan, antza.

Atadira sartu baizen aguro, gizon buru zuria joteko ukabilak estutu nituan. Adoreak huts emon, ostera.

Halan ere, esan neutsan:

— Ez zaitut ezagutzen. Eta zuk ere ez ni.

— Zer...? Ez zaitudala ezagutzen? Hemen hartu dot zure irudiaren fotogaia.

Sakeletik Kodak bat atara eban.


— Hementxe zaukadaz.

Lipar haretan nik, ahopean, «Madarikatua! Hoba infernuan bazengoz, geltokiko gizon gris hori!»

Nire barruan karraskada latz dardaratia sentidu neban.

«Polizi gizona ete dot? Eta niri zer...! eskuak eta barrua garbi ditut eta!»

Ausardirik ezak, makalune txar kaltegarrian murgildu ninduan. Egun erremin eta ilunak orduantxe hasi jatazan.



## Very old pale

«Armiarma»-ko mutilak hartu eta lehenengo pisura jaso zituan gizon grisaren maleta biak. Honek, niri besondotik eutsi eta beste eskuan makilea, biok bateratsu igon genduzan armaila hotz hareek.

Goian, lehenengo etxoinean, gela-aurrekoan geratu zan, eta geratu nintzan.

Txuriok soinu tresna txiki bat hartu eta berehalakoan soinu joten jarri eban.

—Musikea atsegin al jatzu?

Musturrak zimurtu nebazan. Ez nengoan musika kontuatarako.

Zerbait erantzun behar, eta

—Ez naiz horren zale —zertu neutsan—.

—Ni, bai. Txikitan musika ikasten jardun neban. Harrezkero betidanik dot horretarako gogo eta zaletasuna.

Ixilunea egin zan.

Doinu aleak hurrenik hurren zurrunbiloan lez hasi ziran.

—Entzuten? —zirikatu ninduan harek—, hor dozu barruan izan oi ditugun grina sendoen ezaugarri antzera. Ni, biztu egiten nau; ernerazo.

—Musikeak ezer adierazoten al dau? —generatu neutsan, murriz, eta sudurra astinduz.

—Barruko egoera guztiak. Nik neuk, gogor girokoak ditut gogokoen. Burrukarako deiak dirudie. Nire burrukea, ostera, ez da gudu modu jakina. Nire onerako eta onurako gudu soila da.

Ez neutsan ezer ulertu eta sorbaldak jaso nituan, esker gaitz. Haren sintonia ez zan nirea.

—Ez al da ulergarri, ba? Oraindino gaztea zara —esan eustan—. Neugaz ikasiko dozu bizitzako liburu zabalean.

Ixilune barria gerta zan.

Txuriok buruan eukan kapela maiztua erantzi eban eta burutsik, buru-as geratu zan.

Buruko ulea zuri, guztiz murriztua eukan, sustarretik horren baten ebagia. Baina hasten joiakon eta uleak tente egozan, eskobila latzekoak ohi diranez.

Gizon harek berrogetaz urteak zituan. Gizon gogorren antza.

Erredize txiker baten atetxoa edegi eta urre koloreko boteilea atara eban, eta mahai ganean ipini.

Hurrengo, txol bi jarri eustazan begien bistan.

—Jesarri zaitez noiz edo behin.

Jesarri nintzan, haren esanera jesarri ere.

—Txorimamu bihurtu al haiz? —esan neban neure kolkorako—.

—Bideko nekeak uxatzeko, ona dot hau. Zuk ere, edango dozu.

Botileari txapela kendu eutsan eta nire txola muturreraino bete eban. Hurrena, berea.

—Koinak frantsesa dozu. Ez da txarra.

Orduan boteilea eskuan hartu eban eta haren sabelean idatzita egozan letrak erakutsi eustazan.

— Ikusten? Halako atsegin berezia emoten deust honetik, urdailetik hasita.

Ni, ixilik orduan ere.

— Alkar lenengoz ikusi dogulako... Hartu eskuan kopa hori eta alkarrengana topa egingo dogu.

Haren menera bigun, txola hartu eta glik!

— Bion osasunerako! —oihu egin eban buru laztzak—.

Drungada bana edan genduan.

Kale-aldean isokarro baten motor-hotsa nabari izan neban. Geratu egin zala zirudian. Motor-hotsa ixildu egin zan.

— Bakartadea atsegin ez baldin bajatzu, ba ditut lagunak ere —aitatu eban harek—. Ikus daikezunez, gainera, ez gara txarto bizi. Koinak frantsesik egunero edaten al dozu?

— Baina... zer da zuen lana, edo lanbidea?

Irribarre bihurria egin eban Txuriok.

— Lan... burutikoa, gehienbat. Eguneroko lan astunak eskuak lazten ditu, eta gerria nekatzen.

—Aaaa...! Irakaslea al zara?

— ... bai; irakasle naiz. Beste lagunok nire ikasle eta jarraitzaile dira-ta. Neu naiz artezkari. Besteok neure esanetara jarriak daukadaz. Eta pozik dabiltz. Zu ere, horretariko bat izan zeintekoz, gura izan ezkerro. Eguneroko ogia... izerdi handi barik irabazteko modua izango zeunke.

Txolak bete eta bete, edan eta edan jardun genduan.



## Behartsuaren makalaldiak

«Armiarma» ostatuan jazoriko guztia kontatutekotan hasi naiz. Egin neinkena zala uste izan dot. Ezin dot, barriz. Ezin.

Gonburu edan genduana ez da guzurra, horixe ez.

Musika sendoen eta makalen oihartzunak eskaintzen eustazan Txuriok, eta kopa artean, tabako kirrua ere, indomito erre genduan. Hau ere egia da.

Une baten Txuriok, gengoan gelatik aldegin eban, eta lipar haretan ez neban jakin zer egin, ihesari emon —lehen egiten ausartu ez— ... eta barriro ere...

Horraitino, ate bakar haretarantz oin puntetan abiatu nintzan, eta ixilik nenbilerakoan, braust! han egoan zerbait jausi zanean, sekulako iskanbilla atara eban.

Behingoan agertu zan Txurio ernea. Neure silarantz bultzatu ninduan.

Harik lasterrean azaldu zan lehenengo gizona.

Ez-ezaguna jatan. Ez neutsan bapere jaramonik egingo, gizon buru motzak horretara ez banindu.

Heldubarria Zozokume zan. Gizaki biguna ta malgua, polito jantzita. Ni baino dotoreago, bai behintzat.

—Hona hemen adiskide barri bat —esan eutsan Txuriok—.

—Gabon, jauna. Zelan dabil?



— Ez txarto —erantzuna, nik—.

Geroago beste lagun bat agertu jakun. Emakume zimela izan zan aktriz zaharra zirudian. Haragi umelak, harenak.

Arpegian arrozautsa ugari. Ezpanetan lukainka kolorea. Okozpeko azala emonda, dingilizka. Izurrak begi ertzetan. Gazteegi zahartua edo. Zalapartan berba egiten eban, ostera.

Geroago, lagun azkenak gazte bi izan genduzan: Itxaine eta mutil oldartsu bat, Birbiz.

Honeek ixilik heldu ziran. Apurka apurka barre al-gara luzeak sortzen ziran, edan eta edan egin ondoren. Ahoa zabaldu, begiak sarratu: txikitako joko horretan giharduan barriro, nik uste.

Beste mahai baten ganean oihal berdea zabal zabal jarri eta kartetan hasi ziran. Guztiak, Itxaine ezik.

Neskatila guri hau nire albora etorri, eta gozaro berba egiten hasi jatan. Ez dakit zeri buruz, horraitino. Halakoren baten mosu egin eustan, bigun eta amultsu. Besterik ez dot gogoan.

Lo-sorroan edo murgildu nintzan.

Itzartu nintzanean, neu bizi nintzan etxeko mailaduan nengoala konturatu, eta eskuan ontziska txikerra neukala ikusi neban. Usain sarkorra benetan, mingotsa, potix haretatik urteten ebana. Puf!

Amoniako garratza zan, besterik ez. Neukan mozkorra ibitzeko ta arintzeko laga eusten, nunbait.

Txurioren saileko gizonak eta emakumeek eroan ete ninduen etxeko atadiraino, eta zerbait goiraino ere? Bai, ziur asko.

Dirurik eralgi barik emon neban domeka arratsaldea. Duban. Koinak frantsesik orduan aina, ez neban ekitaldi baten edan. Eta hain salneurri merkean.

Horraitino, ezagunbarri gerta jatan Txurioren menpetik betiko ihesi egin nebalakoan, pozik jarri nintzan.

Jai-arrats haretako hasierea zelan izan zan jakin nekian arren, amaierea zelakoa izan zan ez jakiteak min emoten eustan. Une baten lotsatu egin nintzan, nire ibilera haren gorabehera osoa behar zan lez ez nekialako, zehatz, argi, garbi.

Larriena, zera. Nire bizitzan iluntze haretan galdu neban lehenengoz gizontasuna. Gizontasuna galdu. Ganorabako egitada hori ez jat sekula ahaztuko.

Zori onez, gizon kaska motz haren erpeetatik aldegi-na, urrundua aurkitu neban neure burua. Jare izango nintzan.

Zanbuluka bazan ere, han nengoan geure etxeko eskilaretan. Zanbuluka, eta urdaila azpikoz ganera nebala.

Etxera sartu eta sukaldera joan nintzan. Han bertan, estularri handiz, janari, edari eta behaztuna ere, egotzi neban. Eurrez edaniko koinak frantsesetzakoa...! Galantostu hustu neban errubako urdail neurea. Hesteak ere, iretargitara zertuko nituala sinesturik nengoan. Haxe zan estura larri ta larriagoa!

Orduantxe bota neban bigarren ainena, Txurioren kaltez. «Madarikatua...!»

Agiri zanez, nortasuna tilista-platerkada bategaitik saldu neban, zintzil ganorabakoaren antzera.

Txatxarkeria biribila egin neban.

Kirten baten joko.

Egunsentiak laster ekarri eustan lanerako deia.  
Haxe zan biharamona!

Astelehen goizak priesa itxura leratsua eukan nire kontra. Ez neban bapere lanerako gogorik.

Berandu joan nintzan lantegira, elektra-arazora. Arlo hori atsegingarri jatan. Izkutuko indarren gain, nire eskuen eta buruaren ahalmena izatea.

Eta... Txurioren indarrak ere, ez ete ziran izkutukoak?

Zergaitik eroan ninduan harek, nasai eta jare nengoan geltokitik, bere tegi eta txeka baltzeraino?

Armiarma, barasmea ha bera zan; Txurio. Parasmao gris, urdinska, zikina.

Izugarrizko narda, iguin esan ezinekóa sortu jatan erraietan, eta pisti likin haxe zapaltzeko irriki zitala.

Horraitino, pare bat egunetan ez jatan ezer barririk jazo, eta nire bizimodua lehengo bidean zehar joian.

Ez neban, egia esan, kupelgileen kalerantz hurreratzeko bapere gogorik. Iñoiz, ames txarren bat izan be, uste izan neban.

Astea amaitu baino lehen bilatu ninduan kaska motzaren mezulari apalak, esanekoak. Itxainek.



## Ni ere, artaldean

Txurio bigarrenez ikusi neban tokia, beste bat izan zan. Ez eban, antza, egontoki tinkorik.

Zehatzago esateko, toki bat baino gehiago urian bertan, ohiturako lez. Handik kanpora be ibilten zan, joan-eterrietan.

Itxainek taska zirkilu batera eroan ninduan.

Txurio han egoan, beste gizonezko bi lagun zituala. Nitzat une haretan, barriak ziran Maltzurko eta Gibelurdin.

Kafe edateari bostok batean ekin geuntsan. Albotiko antzera, txolkadak ere irunsi genduzan. Paitarra barrero ere. Neskatilea alai samar egoan. Zinera joateko gogoagertu eban.

Txuriok lagun barri hareek azaldu eustazan, ezagupideratu. Egia esan, neu nintzan barria talde haretan.


Maltzurkoren izaerea ez jatan atsegin gerta, ezta urrik emon ere. Harek berak berba gitxi egin eban arren. Txurioren eskolako ikasle onuragina zala antzemon neutsan.

Bestea, barriz, Gibelurdin ospatsua, beste ezpal batekotzat jo neban. Honek barre egiteko gogoagertzen eban sarri, hortz luze eta horiak bere aho zatarrean erakutsirik. Jolaserako bizarra beti, ume handia zalako, pa-

txadatsua eta umore onez betea. Begiak, biribil urtenak zitudan. Arrautza begiak. Eta ezker-eskoi, gora ta behera, fakir azalbaltzaren antzean dantza eragiten eutsen bere begiei.

Inoiz bildurretan egon nintzan, euren tokietatik urten eta lurreraino jausiko ete jakozan. Ni, gertu eta prest nengoan, haren okotz-azpian neure eskuak zabal zabal ipinteko.

Ez neban orduan jakin zergaitik, baina haren alboan eta inguruan egozanek, Gibelurdinen aldamenean egozanek burua sarri samar beste aldera egiten ebela. Zera, haren atzeko begiaren azalak bananduten ziranean, lagun guztiek lekukotasuna zertu behar izaten ebelako. Gura ta guraez. Sinfoniarik ez, baina usain kiratsa, fufufu.



## Buruzagia

Txurio enziklopedi zalea zan. Ez hain zuzen, Prantziako gizon erne hareetarikoa, standard liburukote horreen zale bai ostera.

Bost liburu lodi zituan auzoko eta lagun.

Beta eta atsedean txolarteetan han ekiten eutsan irakurri ta irakurri, bere buruaren barrua argitasun barriez aberastu eta jantziagotu guran.

Aldi baten erren egon zan, ibili ezinik lez, bere lanbide berexiko jokaldi baten ondorioz.

Orduan idoroten neban irakurle purrukatu eginik, inguruan jasoten zanaz ardurarik ez baileuan. Hirulau aldiz susmatu neban hori. Baina geroago haren azerike-riaren agerpena ete zan, barrundatu izan dot.

Kultura merke horretan murgil egin gura eban, nunit bait. Burua eskolatutea bide errez eta laburrez egingarri zala uste izanik. Horraitino, haren kaskazur barruan irakin ohi eben asmo, urduritasun eta zerak guztiak osoro neuganduteko ahalmenik ez neban izan.

Aberats okitu egin zedineko nahi ete ebazan jakingai hareek? Gizon argia, edozein lerro eta eremutako elementu trebe izatera heldu gura? Kargu handiren bat beraganduteko isian ete ebilen, urteak joan, urteak etorri? Ez jakin.

Txurioren beste lagun bat ere ezagutu neban. Zera izan zan Musde Montparler. Txuriori, eta edozeini erlojuak-eta saltzen eutsazana.

Txuriok ba ekian ni nun bizi nintzan. Ordurarteko nire istorio eta aziorrazi nagusiak ere bai. Nork esanik? Hori azaldu guran ibili nintzan apurren baten. Handik lasterrera Itxainek esan eustan, bidezko zanez.

Gau haretan...

Itxaine eta ni, alkar maitatzen hasi ginan. Ganorabarik. Ezjakin motxean, halakorik pentsatu bage.

«Armiarma» txokoan egindako zurrut eta murrut luze harek nire izatea ilundu eustana, ukatu ezina zan. Itxainek, ha bera ordurako nahikoa ibilia zalako, amarrukeriaz niri berbak berba atara eustazan. Eta Txuriok polito polito jaso.

«Very old pale, J & F. Martell, Cognac», horixe inoan Txuriok mahai ganera atara eban boteilearen gerriko paperak. Boteilok sailean ataraten ebazan. Andorran erosiak ziralakoa dot susmoa.

Martell horren aitzakian, nire barruko mantarrak eta jantzirik kutunenak ere eguzkitara eustazan txori badaezpadako harek. Nire jas, modu, lanbide eta joan-eto-riak. Usakume gaixoa izan nintzan lehenengo jausialdian. Eta horrezaz baliatu zan gabilo zazkarra. Ondo baliatu ere.

Jai egun haretako arrats eta gau lehenean beretzakotu ninduan gizaki doilor harek, Txurio horixe zan-eta. Doilor hutsa.

Noraezeko bide haretan zehar aurrera ta aurrera ez joateko, burruka bizian jardun behar izan neban arren, halabeharreko zidor zital eta larratsuan sartuerazo ninduen. Hango harri labanetan eta idoi zirinetan irrist eta laprast hasi nintzan.

Kostatuko jatan, nunbait, Txurioren menpetik askatutea.

Garun bigunak nitualako edo, ez nintzan asko fietan. Halan ere, Jaungoikoaren egia, ez neban inoiztxo ere itxaropenik galdu.

Nire adur baltza noizbait ere, urdin garbi eta oztin bilakatuko ete zan, erregu debozinobakoa egiten neutsan, tarteka, zeru samurbera eta errukitsuari.

Beharbada, erdi otoi, erdi birao. Meza baltzen ariora.

Txuriok zurikatu eta limurtu ninduanean, alper handi bat nintzala uste izan eban, ausaz. Ezagutzen ditut horreetariko morroe jatorrak. Noizean baino lanik ez egitea, horixe zan haren helburua. Eta horretantxe lotu eta hesitu gura ninduen kaska motzak eta haren albotikoek.

Gure nagusi jaun Txuriok, beste norbaitegaz lardaskatu gura ninduan. Gorderik eta izkutuan ere, ba neban nik neure adorea, neure azkua, neure kemena.

Horraitino, guraso bagako ume deslaia, haren aldera etzun nintzan. Txurioren txibitapean jarri. Txepeldu.



Ez nintzan, halan ere, bapere harritu, handik geroetara Gorkaren anai Erraul «Haginandi» ere, gure artalderatu zanean.

Aristokrazian jaio ez zan zorokume hori, hareen usaineko izateko usian ebilen, ames urdinetan lurruntua.

Erraulek berbere asmoak ei ebazan. Aspaldi honetako nortasuna personalidadea, barrua jaten eutsan zera zan, zurean zedena dan lakoa.

Nortasun hori, ostera, errekan behera doan ur zikin bihurtzen jakon.

Negargarria zan, baina Txurioren aurrean, honen esanak, aginduak, berba erdiak ere, aintzat eta ontzat hartzen genduzan guztiok batean, gerriko hazurragaz joko bigunak eginez.

«Buru hainbat aburu» esakune zaharrak huts emongo eban han batzandurikoen artean. Buruzagiaren haizeorratza besterik ez egoan. Txurioren berbea, zinua, agindua eta txibitea.

Halako kirten bihurtu nintzan neu ere, aldikada harretan.

Sinisgaitz egiten orain. Baina egia zan. Neuk dinot.



## Esku-jokoak

Txurioren erresuma eta nagusigo haretan otsein apal egin nintzalako, samur edo gozo, oinazez edo igurtziz, buztarria ezarri eusten. Abereak burdina goriagaz markatzen dituen ainean egin ez arren, ni ere euren xakiz eta markaz apaindu ninduen.

Hareen artean Zozokume ere ba egoala hedatua dot. Neu nintzan, ostera, zozokumerik ergelena, txatxuena, aurki.

Kartera-ostuten ikastea izan neban lehenengo egingoa.

Txuriok orduan zelan koipez bete ninduan, ez jat ahaztu. Haretarako nire jasa, nire berezko doea, nire gaitasuna...

Nire karrerako hasierako erakaspena haxe izan zan.

—Gizonak bere barruan, baitan, halako indar eta adore izkutua behar dau —inoan Txurio buru murritzak—. Kanpoko zerak guztiak ez dabe bapere azaldu ez arbindu behar gizona dan gizona. Odolotz, arraina lez, jardun behar dogu guk. Dagokien jokoa eskuek egingo dabe. Bihotza ezertxo ere astindu ez zimurtutzeke. Arpegiko azala, mintza, narru landurikoa baizen gogor, leun eta ezaldakor geratzen dala.

Ondoren, Birbizek halako erakuspenna egingo eustan.

«Armiarma» txoko haretako gelan nasai eta bare, lotsa eta bildurrik bage gengoan. Artaldeko guztiok, hain zuzen.

Txuriok eskolaldia hasteko agindu eban. Bera zan gure ugazaba eta maisua. Barriketan eta elemele giharduanean, ea aldean karterarik neban, galdetu eustan Txuriok.

Baietz ba, erantzun neutsan. Zori txarrez, zimel egoan arren.

Eta nire eskoi-saihetseko jaka-barruko sakeletik atara neban aitaturbarri izan zan kartera mehe zimel iluna.

Guztiak ikusi eben, eta gorde nengiala agindu eusten. Gorde neban. Lehengo lekuan gorde ere.

Barriketa luze antzekoa sortu zan bārriro; eta bapatean Txuriok niri:

—Karterarik ba al dozu?

Guztiak barrez lehertzen hasi ziran.

Nik, egitada lotsagarria iraingarri zala uste izan neban. Halako irri zoro gangarra! Fraileen arteko aproba lez hartu beharreko ete zan nik eritzi, eta eroapenez erantzun.

— Bai.

— Bai...? Ikusi egizu ea...

Bapatean eskoi-eskuagaz neure bularrari ikutu, eta baperez. Karterarik aldean ez neukala zertu neban.

Hasarre gorri, ukabilak estutu nebazan, beraikiz. Matrailetan eta belarrietan odolaren beroa, zانبro antzeko zarradea sentidu neban. Gorri gorri parau nintzala uste dot.

Orduan, Txuriok buruagaz beste imintzio bat zertu,

eta guztien barre purrustada artean, Birbizek neure karterea eskuratu eustan.

— Tori zeure kartera zimela.

Harik lasterrean, sailekook aldrean banandu, eta sakabanatu egin ginan. Bitarte horretan Birbizek emon eustazan lezino ta irakaspenak, oharrak eta abisuak; gogo arauak zelan zaindu, esku-jokoak neurritz eta ezarian lan egin egien. Behin eta barriro eginerazo eustazan saio luze eta ezbardinak, hainbat bidar berratuak eta aldatuak.

Horretan ekin neutsan pare bat astetan. Nire kideen kartera eta gai enparauak hareen sakeletatik, boltsetatik ixil ixilik ostuten, apiztuten.

Matorduetan batzuk alkartzen ginan, ez guztiok. Baikoitzak bere modura konpondu behar eban. Lauko batzuk ere emoten eustezan, gose egarria ibituteko.

Lanaz, neure lehengo lanaz, lan desente eta lotsadunaz ez neban egun hareetan gomutarik.

Alperren bizimodu harek burua argiago erabilten erakusten euskun. Gorputzak nekerik бага iraun behar eban, geroago une berexietan erne, zal eta trebekiro portatzeko.

Trean eta busetan, geltokietan, eliza-ateetan, zine eta toril inguruetan, gure jardun ixil eta malgua, eukana-ri kentzea, oiloak lumatutea.

Horrelan apiztu eta neugandu nituan hainbat kartera. Ondasun batubarriok, oster, Txurio nagusi jaunarentzat ziran behin-behinekoz. Harek egingo ei eban

neurriko zana, egoki zan izentapena; zera, banaketa zuzena eta bidezkoa.

Hasierako kurtsiloen finantzapena nagusiaren eskuartez zertzen zan ezkerro, hasierako emoiak, hasikinak, harentzako laga behar eta...

Haxe genduan dana, nagusi eta diruzain purtzila; Txurio, gure Judas, gure Barrabas.



## Lapur

Hainbat saio eta entseiu zertu ondoren, lehenbiziko makurkeria zelan egin neban azalduko dot. Filobus baten izan zan.

Muturreko hasierako egotaldian lagun eskas sartu zan beribil mokorzabal haretan. Hurrengo geldiuanean, tira! ba joian jentea metatzen, ugaritzen.

Andra lodi, andra mehe, gizon heldu nahiz gazte, ikasleak, neskatila, mutil eta monjatxo, guztiok eben tokia aldi laburrerako, bus sabel zabal haretan.

Barrukoen matrailak eta begiak, soinekoak eta eroiezan zisku, saski eta otzarak ikustea eta ikertzea zan lehengo nire asmoa.

Merkatu, azoka eta dendetara joiazan emakume apal hareei, eukezan txanpon apurrak ostuteari zirtzileria garbia eritxi neutsan. Gizonei, ondo jantziriko gizonei kentzea, zuzenago edo behintzat onuratsuago eitekela zirudian.

Han egozanei ez neutsen dirudun antzik hartu. Eta ganera filobus ibilera haretako jentea behartsua zan gehienbat.

Halan ere, aproba txikerra egin neban; otzara baten egoan diru-zorrotxo neureganatu neban. Gerotxoago, nengoan tokitik aldatzeke, zirkin ohargaitzez, barriro

utzi neutsan diru ta guzti bere diru-zorrotxo andra hari; egoan ginoan.

Inguruko inortxok ez eban susmatu ez ikusi nire egitada bikoitza. Hau da, hartzea eta lagatea.

Bus hareetako jentea bildurtia, tukutsua, aierukorra ez zala ikusi neban. Kezka barik joan joiana zan. Horregaitik, emakumetxo lander hareen txanponak jasotea baino arrantza hobea egitekotan jarri nintzan.

Hiru gizonetzko egozan han, bazter baten. Ondo jantziak. Lagunak gero eta ugariago. Hiru gizonok gogotsu ziharduen barriketan. Burdi miragarri harek guztiak hartzen zituen bere sabel zabalean, lehenak eta heldubarrriak estutuz estutuz joan arren.

Emakumeetarik batek otzara nahiko hazia eukan be-soan, eta laster jaisteko preminan egoala zirudian. Hori horrelan zanik ez dakit, baina neuri komeni jatan.

— Andratxoa, gura al dozu lagundu deizudan?

— Ez, jauna; eskerrik asko.

Eta nik erantzunez:

— Bai, bai. Zelan ez, ba! Esatea ere! Neuk zertuko...

Emakumearen otzara zabalari oratu neutsan, ha bera aurreruntz joan zedin lagun eginez. Orduan —nire asmoaren arabera—, inguru haretako jentea estuago. Bultzadea nik egin, eta zirkinak eta higidurak hasi ziran.

Haxe zan nire une hautetsia, zirt-zartekoa.

Hareetariko gizon bati jakean barruko sakelean karterea garbitu neutsan, kartera zapala. Horretarako jakearen azpiko orradurea, ehun mehea labainatxo orriagaz ebagi neutsan.

Eskura nebanean, neure patrikaran sartu neban gozo gozo, eta hurreko geldiunean jatsi nintzan dotore eta na-

sai. Nire busa joan zanz batera, kontrara etorren busan sartu nintzan, eta hor konpon.

Noizbait lurreratu nintzanean, handik urrun, neure lehenbiziko lapurreta garbian zer lortu neban jakingura nengoan. Horra!... ez zan alperreko lana izan. Dirupaper batzuk egozan karteran. Beharbada, ogipeko apal baten hilabeteko lan saria. Ez jakin; baina egina eginik egoan.

Diru hori nagusiari emon behar. Horixe zan taldeko guztion beharkunea. Barruak gora goraka egin eustan lehenengotan.

Alperreko gora gorakak. Karterea egoan egoanean, nagusi kaska motzaren eskuetan laga neban, uriko alderdi zaharreko taska ilunbezu baten. Lausengu eta elesaria, barriketa hutsa besterik ez neban jaso orduan. Baina gizonok koipekeriak eta harro-haizeak galtzen.

Lapurron biltzarrak toki askotan, txanda bako txandan egiten genduzan.

Egun haretan bazkari desentea guk. Hiru bildu gitan, Txurio, Maltzurko, neu. Nire lapur-bateoa ospatu genduan eta biharamonerako eginkizun eitekezanak atondu. Hamaika kongresuk izango, guk izan genduzan baino asmogei ahulagoak!

Beste «txoriek» ere noizean behin, adierazoten zituen euren doinuak, egunaren arabera, jardunari adi; txinta alaiak, maketsak; biziak, motelak; joriak, antzuak. Telefonu hariak emoten eben hareen mailea eta zelakoa. Merkatuaren gorabeherak.

Zera, batak, bere egitekoa noiz amaituko eukala, eta



zori onez, erdi-merdiko etekinez. Esate baterako, egun haretan Birbiz, vespa bat ostuteko ahaleginetan hasia zala, eta une aparta noiz izango, zain zain egoala. Hurrena, beste guretar bat, Zozokume hain zuzen, alperreko zerean egoala, ustebako aukera bat agertzen ez jakolata. Hirugarrenak, Gibelurdinek, ez ur ez arda, une haretako bere lana non izango eban ahaztu egin jakola...

Itxainek ere, aztarren batzuen bila eta kusan ziharduan. Txuriori norbaitek emondako misino berexiren bateko jardun ixileko harrigarrietan.



## Arau barriak

Kontrol mundua zer zan Txuriok irakatsi gura izan eustan.

Kontrola edozein arlotan behar zan. Eguneroko ogia zala. Kaska motz azkarraren berba zorrotzari adi eta erne, zera ikasi neban. Guk geuk, gizonen kontrola ezezik, —polizi gizonenaz ziharduala adierazo eustan— beste langileen —beste gaizkinen— kontrola ere, zaindu bakarrik ez, geure esku jartea ere, egin beharreko genduala.

Horretan gure nagusi zitala lapur ilustratua zala autortzea dagokit, erreinu batzuetan tiranu garratza izan ohi dan antzera. Jakituna baina esku gogorra. Argia, baina legea galtzarpean —beste nonbaiten ez esatearren— jarten ekiana, beti edo sarritan.

Lapurrak... Honeek alkar galtzen ebelakoa ere, erdi agertu eustan. Hurko laguna salatzen ete eben, ibilian ibilian ertzainen berba gozoen zerean limurtuta, saldu antzean jakoturik. Gehienetan huskeria bategaitik, zirtzileriaren handiz petralkerietan jausi. Lapur desentea zelan baina bere idekoaren salatari izateraino makurtu? Gizona noraino beheratu eta lorrindu eiteken. Anai lander argugarria arriskuan —satorkeriaz— jartea buruak

emotea ere...! Otsoak otsoari laztan; baina lapurrak lapurrari inoizka ausi eta erpe ezartea.

Horrelakoa zan gure bizitzea aldi haretan.

Bazkal-legea hemen, afaldu hor; baru-haustea edonon. Lehenengo garai haretan jantzietan ez genduan diru handirik eralgiten. Lo, hortik hemendiko ostatuetan eta gau-etxeetan egin ohi genduan.

Aspaldi baten osabearenean bizi izan nintzan. Osabeak ostera, nire bizimoduari txarto eritxi —ha ez ebilen oker—, nigaz hasarreka hasi eta behinola handik ere, haren etxetik ere anka egin neban.

Ba neban, orduan, uriaren garai-aldean izekoa, gure ama zanaren izeko zaharra, eta han ere, denpora zati baten bizi izan nintzan.

Horraitino, ez neban nire seniderik lapur-senide bihurtu gura, eta harik lasterrean, mundu bakan eta barragarri honetan bakar samar geratu nintzan. Liberadu antzean.

Susmoa neban susmoa, beranduegi barik zuzengoa-ren eskuetan jausiko nintzalakoa. Eta zigorra izan neintekena.

Baina ordiak edariari ihesegiten ez dakian ainean, nik ere, arriskuari sasoiz aldegiten ez neban jakin, edo. Entzutea ba neban, arriskua maite dauana arriskuan zertu eitekela, baina.

Unada batez, beraz, kartera lapurreteari ekin neutsan.

Ganeko egunetan bankuetxe handietako inguruetan

ibiltan ginan, diru-iturburuak toki horreetan egozan-eta. Gizonak azkarrago, baina emakumeek hartubarri eben dirua astiro, zara zara kontatzen ziharduen artean, gure esku bizkorrak, han alboan leber erabiliz, diru paper txukun edo zikinak geure erpeetaratzen genduzan, batzuetan gehiago beste batzuetan baino.

Halan ere, eta hau da mundu honetakoen ariurri zitala eta sinestuezina, Txurio gurea ez zan gitxigaz asezten zanetarikoa. Aspaldi ohartu nintzakon horri, areago lortu eta haren dirugosea nabarmenago.

Eta horrelan, behin, labatik arako arau barriak emon gura euskuzala-ta, batzar nagusira deituak izan ginan. Taldeko guztiok izan genduan dei ozen eta gogoangarria.

Jente ugari ebilen jatetxe baten batzandu ginan. Horretan, Txurio tentela ez zala autortu beharko. Euskalduna buruz eta bihotzez errez saltzen zana ez zala jakitun egoan. Ostera, diru zazkelaren bidea, urdaila bete eta berotuerazotearena, horretan egoala guretarren alderdi makala.

Mahai betearen biran gengoan. Gure iraultza ixilekoa ere, aurrera joian. Bizar ta guzti, ala bizar barik. Jaunaren ardantzan guztietarikorik da-ta. Gure matxinadea kalean sortua eta kalean egina izan. Ez mendi, malkar ez itsasoetan.

Ganera, ikurrik barik. Eta doinu barik, Txurioren harako transistore purtzil harek emoten zituanak aparte.

Karterista soil izateari laga egingo geuntsan. Ez gi-

nan gu, moduetan ganera, lupetzako lora eta zikinetako amona gonagorri. Gure mandazaina Txurio zan, zazpi buruko herensugearen antzekoa.

Beste era bateko lanak egingo genduzan. Irabazi gizenagokoak. Lapur maila doilor horri uko egin eta bide barrietan abiatuko ginan. Eguneroko kaleko arriskueta-rik asago, iskanbilarik bagea. Errazagoa ez jakin, erosoagoa bai, ausaz.

Lapurreta egitada aldezaurre zertuak, estraperluak, jauntxoek eskaturiko zeregin garbi eta itxura ederrekoak. Baina barru zitalagokoak.

Kaleko saltzaile eperdigorria egunak joan egunak etorri dendari desente bihurtu ohi dan antzean, jauntxo kaska motza ere, egon-minak jo eban eta bere garatze-txea jarri gura ebala jakinerazo euskun. Irabazpide-etxea oinarri sendoakan zertu.

Asmo hori egia bihurtzeko, bideak eta ekaiak atonduhurren ei eukazan.



## Agindua bat, emona bi...

Lapurretako gizen-giarretan hasikin polita izango nebala eskaini eustan behinola Txuriok. Lapurreta ba-koitzean osturikoaren honenbeste. Baina maila hori, beti makala izaten zan. Beretzako listoia jasoten zalea zan; baita besterena apaltzen ere.

Hainbat bidar esan eragin neutsan. Baina harek, be-rea beti. Harek berak guri emoniko ikasketen ordaina, guri duban eskainitako beka haxe, ez zala dubakoa. Amortizatu egin behar genduala. Harek jarritakoa barrero beragantzean, handik gorakoan gure zatikina mardoagoa izango zala. Saririk koipatsuena, buruak. Menpekoak, zerbait. Kaska biribila, zorri hil-biztua ha-lakoa...!

Agindua bat, emona bi; aginduaz kontentu izan adi. Esakune zaharren argitasun zuhurra!

Mahai-ganean geunkan azako bakan bat, nonbaiten egoan kontratu-paperen bat ostutea zan.

Hori eukana nor zan ba ekian Txuriok. Zerbitzu ba-liotsu hori beste norbaiti eskainiko ei eutsan.

Baratxe baratxe ba etorren gure lan arrunten alda-kuntzea. Luzakor diran pagatzaile nagi diralakoan kon-trola izatea ere, irabazpide gerta zala unada haretan, eta horregaitik, aukera horrezaz baliatutea, guztiz onuraga-

rri eiteken Txuriores asmoetan. Horrelakoa zertzeko eta begiratzeko lantoki aproposa ipiniko ei eban gure zerak.

Ez begi irakurleak sinestu «gure» esaten dodanean, Txuriorekiko maitasarez idazten dodanik. Bai zera! Aldikada doebagako haretan hazur gunetaraino hain sartuta neukalako urteten deust luma puntatik jabeberba horrek. Ez beste ezergaitik.

Txuriori inongo emakumeri buruz ez jakon bapere kezkarik ez egarririk sortzen. Jokaera hori, ez nekian onbidezko, garbizaleko ala gartxu izatetik edo beste zerbaitegaitik eban.

Idazten zituan lerroak irakurri izan nituan inoiz. Bere agindu lerro murriz eta laburrak gehienbat, astiro zertuz baina, makinaz egiten zituan-eta.

Eskuz idazten ebanetan, t letreari ganean harako marra motxa ta zuzena ezarri beharrean, nik eta gehienok horrelakoa jarten deusagu-ta, marra kiribildua egiten eutsan, kirikio antzera mutur alkartzen zana. Kasik o baten itxura emonez, letra hori santuaren nimbus dala-koaz apaindu gura baileuan.

Inoiz pentsatu izan neban berbere izengoitia, t letra horregaz hasten zana, santu lurrinez igurtzi gura ete ebanentz.

Ausart eta bapere lotsarik eta nagirik bage, kaska motzaren idazkune puxketa bat grafologu bati eroan neutsan, literatura eredu ez zan arren.

Gizon jakintsu honek bere ustez argia zan txostena emon eustan. Tamalez, ez neban gauza handirik ulertu.

Zana zala, harako oboa ez zan santutasun gurako ezeta-  
riko adierazgarri. Lehengo neure ustea zelanbait indartu  
egin neban; besterik ezer ere ez.





## **Ikaslea, berrikasle**

Behin baten, ugazaba txibitedunak frantses ikasten hasi nendila agindu eustan. Nork ezetzik esan hari? Ez jatan, ostera, damugarri izan nire orduko menegite hori.

Horretarako, gizon egokia eta hartarakoa bilatu eustan. Montparler zalduna izan zan.

Frantzian sortua eta hazia, Argel aldean ere egona zan, eta harrezkero, Bidasoaz hegoeko Euskalerra ederean ankilea bota eban.

Kaskoin ostrak saltzen zituen bar dotore samar baten alkar ikusi genduan lehenengoz. Txuriok eroan ninduan zaldun harengana.

Zalduna dinot, eta ez naiz bapere lotsa, gizon haxe benetako gizona zalako. Ez zan azalez ere itxura txarreko, Muxu de Montparler.

Matrailer gorrirak zituan, eta sudurrean eta arpegi-ko, une batzuetan ere, halako zaintxo nabarmen gorri era urdinak. Sudur politaren geriza lez, goiko ezpanearen bizar lerroa eukan, mustatxa fina, artoski landua, Versaillesko jardinetan ohi eben neurri zuhur eta muga zehatzekoa. Ez dakit Montparler lorazale itsua ete zarentz, baina bedar bizarki hori maitakiro zaindu ohi eban.

Musde Montparler begiko jatan, amultsua eta atsegi-

na. Bizi modu arnes eta indarrezko haretan aurkitu neban ezagun barri gogoangarria.

Erloju eta pitxi saltzaile zan. Neuk ere erosi neutsan ordulari bat, neuk osturikoak eta salduak ere —Txuriorren kontrolik bage batzuetan— ordurako hainbat izan arren.

Merke samar emon eustan, eta halan ere, erloju haxe denpora zati baten lagun izan neban. Makineri ona eukalako.

Unada haretan, hasierako neure lan-moduak gomutaratu nituan. Zera, ni neu ere, erlojulari izan nintzala —zintzo nintzanean—, ete nire lehenengoko nagusi maitagariaren menpean izan ere. Orduko bizitzako bideak, astegunetan lan egin, jaietan jai, barruan zimiko eta kezkarik bapere ez, poliziez eta lege-zaintzaileez ardurarik izateke. Urak joan ziran, ostera, eta bitartean, nire urjauztiria egiteke gertatu.

Egunero edo, batzen ginan bar haretan. Montparler-eko zaldunak ostra-jateari ekiten eutsan, batez ere salketamamintsuak eta onuraekarleak egin ondoren. Halan ere, perlarik eta txirlarririk aurkitzeko beta eta esku onik ez ei eban inoiz izan. Horrelako zerak kontu zuriak besterik ez zirala, autortu ohi eban.

Txanpana edatea ere, atsegin izaten jakon.

Ez da bapere harrigarri. Sarritan, ostera, eskuartearen murritzez, katalan ardao bitsa iruntsi, eta hor konpon. Haren aberriko txanpan bikainaren pareko ez zan,

baina, tira! ura bera, edateko triste samarra gertatzen dala-ta...

Geroago jakin nebenez, Txurio ere Frantzian egona zan. Han gauza onik eta txarrik ikasi bitartean, horraitino, frantses desente mintzatzeko gauza ez zan inoiz ere izan, zingulu zangulu baino.

Aldi haretan, Montparler-ek erlojuak aina, nik neuk estilografikak saltzen nituan. Anartean, ez ebilen gure merkatuan boligraforik.

Txurioren erretolikak frantses baldresean entzutean Musde Montparler-ek sekulako barre karkaixak egiten zituan.

Nik —eta ez da harrokeria— Adour haraindiko biztanleen mintzaira zintzur-sudur moldezko haretan egundoko aurrerakuntzak egiten nituan.

Beraz, gure buruzagiak ikasle berezi mailan jarri ninduan kurso antzeko haretan, ez neban bekarik behar izan, neure istudio barriak egiteko. Neure bizkar behar neban ekitaldia, harik-eta frantses diplomea lortu arte. Horretarako, Montparler gizarajoak egiten eban ahaleginik ni jakitun bihurtzeko. Nire esker ona hari ixuria egoan, zintzo eta etenunerik бага, iturburua ibarrari lez.

Idaztortzak ezezik, tabaku zorrotxoak ere saltzen nituan nik aldi haretan, bar eta tasketan eta ikastetxe nagusien inguruetan.

Legegizon eta inginieru izango ziranak, sarri askotan, ondasunez urri ebiltzan-eta, nik, pakete osoa ezin zanean, zigarrotxo banaak eta banakak saltzen neutsezan. Gehienetan, esku-diruz; inoiz, zorko. Haizerik ez egoanean ordaintzekotan ere bai. Zaletua danak, tabaku preminea hain larrikiro eta barrutik sentidu daroala bu-

ruratuz bakarrik, eskuzabal ere egiten ninduan. Erreteak osasunari ez ei deutso bapere onik egiten. Ba leiteke. Erretzaile amurratuak zaharraren zaharrez hilten ikustea, gerta izan jat, ostera.

Noizean behin egin arren, karterista jokoak bazterre-ra samar nituan unada haretan.

Horretarako zio eta zergaitia, Txurioren politika goitia zan. Honen jardun-bideak itxuraldatzea. Behartsu gorri eta apal izatetik, apurka apurka gizon landu bihurtzekotan ebilen-eta. Harako evoluzino usainak liluratzen eutsozan bere sudur-ziloak. Gu ere, zera, karterista ilustrauak izango ei ginan.

Harrezkero Txuriok ez eban gura lapur zirtzil batzun taldeburu matxar izan, gangster apainagoen hotsemaile baino.

Westeko nobelak ere erakusten zituan. Eta irudiz beteriko hiztegi mokilak.



## Gorka

Aldi haretan Gorka aspaldiko neure adiskide maite eta urrundua, neugana hurreratzen zan. Atsegin izaten jakon frantses berba egitea.

Geroago Loire aldeko neskatila bat ezagutu neban. Asmo modernoak, ohitura nasaiagoak ei zituan. Ni, eta Gorka ere —gonazale guztizkoa ez zan arren— loiretarren uste barrietara makurtzen hasi ginan.

Emakume lirain harek exist-aburu labatik-arakoak zituan. Filosofi zozbarri horren lurrun usain nahastaua eskaini gura euskun. Gorputzaren laketa, zentzunen atsegina esnetan egoan.

Denise eban izena. Barriketan eta asmoetan egitadetan baino aurreratuago ebilela laster antzemon neutsan.

Denise polita Montparler jaunagaz nengoala ezagutu neban. Adiskide egin ginan. Ameslaria zala ohartu nintzakon; esanetan arin, jokoan nagi. Umeen laguntzaile andereño egoan gure urian. Ondasunez hainbatean, gizarte mailan ere polito zertua egoan sendiaren etxean abetaldua.

Gorka, beste batzun antzera, errotugaitza zan, orpo trinkoan gehiagoko barik gogortuta geratzea atsegin ez jakona.

Inoiz, itsasoak hausten joateko gogoia agertu eustan. Beste behin, dendari jarteko egarria eta jorana.

Aintzinako gauzak saltzeko dendea izango ei zan. Aldiko erakoak ez ziran gauzak, baina ostera ere, aldikotu beharrekoak. Gizonaren gogoia lehenaren eraginak kutsatua dan izakia zalako. Eta aldi berean sortzapenak eta asmaketak zertu gura dituan ume bete-ezina. Denda hori, txukuna eta bakana izango zan. Uriko alde zaharrenean, kale zirkilu baten, kalearen estu-ilunak sorgindua eta oretua.

Horraitino aldi berean, egonezinak bizkarrazurrean jota lez, atzerrira ibiltaldia egiteko asmoetara makurtu gura ninduan, ni beragaz joatekotan. Nik, egia esan, ibiltaldi hori unada haretan Denisegaz egitea gurago izango neban.

Bestalde, Itxainek, zeloz beteriko berba mingotsak aurpegira brast! bota eustazan; zera, bera bertan behera lagata, frantses neskatala lirain baten maite-amarruetara makurturik nenbilela-ta.

Maite-sare esturik nahi ez nebala, erantzun neutsan. Aske ta libre hegaz egitea, benetan atsegin jatala, gazte nintzan artean.

—Horrezkero, amaitu jatzuz nigandiko atseginak —erantzun eustan Itxainek, hasarre.

Gorkaren anai Erraul Haginandi Ameriketara bialdu eban amak. Gorkak horixe adierazo eustan. Han, itsasoaz bestaldean, osabea eben, eta haren menpean lan egiten ikasi egin. Andra Polpolek esan eta egin. Bere

gogara buztartuezina gerta eiteken semea, etxetik kanpora.

Andra Polpolek maite zituan bere seme-alabak. Zer esan bakoa. Baina bere esana onua bete egien bitartean. Ganerantzekoan, atea zabalik egoan, kuturtugaitzak ospa egin egien.

Erraul menperatuko eban maisua, atzerriko lur mergatza izango zan, amaren gonapetik urrunean.

— Tentelkeria eta alperrantza han arinduko!

Amak esan eutsazan berba atzenak, horreek izan ziran.

Andra Polpolek ereti haretan errime eta jator jokatu ebalakoan nago.

Nik, ostera, ez neban amarik. Ezta aitarik ere.

Gogoia erabat makaldua nerabilen. Erabagi sendoa hartu neure buruaren jabe barrero egoteko barruko zuzperraldiak izaten nituan.

Makalegiak, antza; Txurioren agindu zorrotzei behin eta barrero amore emonez, aurre emoteko bizarririk izan ez nebalako. Euritean lurra narras joaten diran antzera, ni ere narras joaten nintzan.

Bakarririk nengoenetan hau egin behar dot, hori esango deusat ibiltzen nintzan. Nagusi zakarraren aurrean, barriz, ...buztarturiko idi apala lez.

Montparler, Gorra eta hirurok batzanduten ginan frantses berba egiteko. Denise agertzen ez zanetan. Batxiler-arroan ikasi neban apurra, ondo baino hobeto zertu jatan, eta Molier-en hizkeran egundoko gorea egin neban. Handik lasterrean, Muxuren bitartez, beste jendaki frantses batzuekin ere ezagupide eta hartu-emon zerbait izan neban.

Esanak esan, Txurioren buztarria hausteko asko behar ez nebala uste izan neban. Nondik handik gosea arintzen neban eta aitaturiko buztarri hori gero ta gorrotagarriago bihurtzen jatan.

Horreek nire lilurak eta haizeak besterik ez ziran, oster. Nire frantses kursoa ez joian beti bare eta gozatsu uberkan zehar beherantz, errekastoko ur apalaren antzerira.

Gau baten Zozokume heldu jatan, buruzagiaren agindu zehatza ta estua ekarrela-ta. Ikastaroa, bertatik eten beharrekoa nebala. Begiaurrean zeregin berezia geunkala.

Guduetan lez, bigarren lerroa laga eta lehenengora behar nebala.

Bai. Txurioren txontxongiloak ginan.





## Monsieur eta abar

Hauxe zan gure egitekoa: itunben-paperak ostutea. Ixilka mixilka kontratua apiztutea. Makurkeria horri «osasun» eginkizuna eritxon.

Norbaitzuen bizkar jagola izateko ere, gertatzen hasi ginan. Txurioren aginduz, une haretan, guretariko batzuk, gazteenak, judo burrukamodua ikasi behar eben.

Geroago, Sport Klub zalako haretako bazkide egin behar nintzala adierazo eustan.

Gure nagusiak, orduan, Karol erabili eban bitartekotzat. Zirudianez, dirudunen seme bik eben arazo haretan ardura berezia. Gardots eta Sagu zirala, esan eustan. Hor ikusten danez, Txurio zapoak berezkoak baino izengoitiak zituan gurago.

Aitatubarri diran gizonezko biok, agintzen ebanaren aldeko eta adiskide gurako ziran. Ez eben egun eta eguzki, ondo bizi izatea baino beste politikarik. Koipe bizi-tza, buztarri bizi-tza; zana zala, buruan baino urdailean bizi gehiago ebenak.

Erregimenik onena, eurek jan eta edan egitea. Lan, hori... auzoko kokoek.

Halako baten Klub haretako sozio egin ninduen. Aitabitxiak izan nituan, nondik eta nora nik jakin ez arren.

Ni, frantsesa ei nintzan. Oraindio horrelakorik! Eta ekar-eroanetan, import-export jardunetan ibilia eta nenburgilena. Tarteka, horraitino; txolarteka. Gauza bereizi eta apartak, egitada bakanetan bai eroan, bai ekarri. Estraperlista antzekoa, berba baten esateko. Neure tabaku saltze eta estilografika tratu txikerretan hain polito nenburgil honi, zelako nahasteborraste barriak, Jauna!

Ni, ganera, Algeriko gerratean ere, denpora baten ibilia ei nintzan, esan eustenez. Behar bada, oin baltz ha-reetarikoa.

Nik ere, Montparler-en bideak egin nituan, antza.

Horregaitik, guzurak parra parra asmatu behar izaten nituan, Klub haretako zaldunkumeei adierazoteko, begiak argitzeko. Batzeleku haretan barruti-giroa eta nire egoerea ta ibiltemodua zertzeko, nire esku-ekerra, ta egokia, behar neban.

Horretarako egokiena, Montparler neban.

Egoera estu samarretan ere jarten nintzan batzuetan, han, Klub toki eroso epelean zalduntxoakaz barriketa luzeetan sartzen nintzanetan. Orduan nik buru ona neban, eta gomuta otzarea guztiz horniduta eta bizi bizi izan ohi neban. Irudimena ederto astinduten neban, baina aldi berean, gogo gogoan izaten nituan lehenago botatako guzurak eta abarrak. Horixe komeni niri garai haretan.

Aukeran nituan liburuak gogoz irakurten nituan; istorio politikak, nobela merke ta purtzilak, aintzinetako edestien orri liluratsuak, mairuen ipuinak eta.

Arpegi nabar eta soinganeko luzedun hareen gertae-rak azaltzen zituan Daudet-en liburu bat edo besteren jabe egin nintzan. Tartarin ere, niregandu neban. Gaurko lerro eta eleok idazteko orduantxe zaletu nintzan.

Montparler-ek emon ohi eustazan Algeri ta Frantzi aldeko astekariren batzuk noizean behin, eta buruz ikasten nituan. Ohitura ta jazoera modu batzuen barri ba neban, euren azi-orrazi eta buru-buztanakaz.

Ganerako hazpegiak, nabardurak eta birridurituak nire guzurrontzian borbor irakin eta egosi, eta polito maneatzten nituan, ozpin, gatz eta piperra ere pitinka ezarriz.

Joko barri horretan asaro nenbilen. Bizimodu onak ez eustan kalterik egiten. Eskuartekoa Karolen bitartez zertzen ei genduan. Niri neuri Txuriok sakeleratzen eustan, neurritz eta mehe samar, sarriegi. Buru buruko, Sagu eta Gardots ei ziran.

Zaldun hareetarik bata, biribila zan, buzkantz ederrekoa. Luzea, bestea. Bigira arteko, beste jaun bi ere izan ohi ziran gehienbat.

### Musde Montparler...

Azken gerrate nagusian, alemanen agintarigo haretan, honeen lagun izan zalakoa edo. Hamar seme-alaben guraso izan, frantses gizon baketsua. Eta gosearen kontra egiteko, uriko alkatearen menpe jarri zala, janari-edarietako arloan bigarren arduradun izateraino.

Bere herriko makis jasankor hareek ez eutsen parkatu.

Eta gizona Algeri lur urrunera joan zan. Geroetan Euskalerrira jo eban hemen biribiltzen eban bere bizimodua. Baina azken ordua baino lehen bere aberriko eremu gozoetaratzeko gogo bizia inoiz ere makaltzeke.


Alargundu egin zan, eta seme-alabarik gehienak Canada alderantz joan jakozan. Enparauak, horra eta hara sakabanatu.

Euskalerriko janari eta edariak txito gustatzen jakozan. Gure urietako bizimodua ere bai.

Makilaua basi gorrian nahiz pilpil, txitxardinak orio urretsuan igari, tximinoiak euren adur baltzezko itsasoan murgil, lebatza lurrezko kazuelan edo txirtxikatua, talo kirruaren koloreko, besigu gorrizuria... Odoloste luze eta andoil biribilkoteak. Hegazti eta haragi samur gozoak, txarrien apaingarriak eta, barazki sasoiak...

Zaldi-haragi ezin hobea jaten harek irakatsi eustan.

Hori bai. Ostrak, Arcachon aldekoak behar zituan, erarik baldin bazan, behintzat.



## Aldakuntza

Bapatean lan barria izentau eusten.

Beste gizon biren azterrenak ikastea izango zan nire jardun. Hareen joan-etorri, ohiturak, ekanduak. Noiz jaigten ziran, noiz etxeratzen. Eguerdirtzeko eta eguerdiko ibilerak, goizeko lana, bazkalosteko kafetetxea eta jokia, arratsaldeko arazoak, iluntzeko joerea, gauleheneko egoerea ta ganerakoak.

Horretan jardun neban aste bete inguru.

Anartean, ez neban Klub txairoratzerik. Txosten osoaren eskabidea izan neban, eta, gitxi goiti beheti, baita nahikoa zehatza egin ere.

Gizon horreek estainu-tratu zerean gorabehera handiko ei ziran. Mordo gizenaren bila ebiltzanak hareek ere; ez inoren ederragaitik. Eta ni, hareen zelatean, batzuetan Maltzurko lagun nebala.

Gau haretan barik biharamon gauez zan egiteko estainu lorketa ixilekoa. Hareek buruak ziran, baina jakina, izango zituen menpeko mutilak eta otseinak.

Txurioren morroien zeregina, oster, lorketa hori galerazotea izango zan. Are gehiago; hareei euren merkan-

tzi mamina kentzea, ostutea. Polito polito edota indarrez, egunak edo gauak ekarrenez.

Zelateko neure lanari ekinez, gau haretan ere bar batera sartu nintzan, ordu jakinean.

Han, egoten nengoan, Unamunok gaztelaniaz ere inoiz idatzi eban lez, edan-mahai luze ta garaiaren aurrean, baina, ezarian ezarian, hara ta horra begira.

Ni, ikusteko gauza nintzana ba nekian; baina horraitino ni neu ikusiezina ete nintzan ere, lehentxoago ikusi izan neban filme-mintzeko gorputzik bako lilura barria edo. Soinekorik ere ez, eta edonora sartu, urten, ibili, aldegin, ihes...

Zutabe baten albotik gazte batek keinu egin eustan, seinale maltzur eta jendakina, adiguritsua.

Ez neutsan bapere jaramonik egin. Ez ikusi.

Harako gizon bi hareek ez ziran gau haretan haruntz agertu. Eta ni hareen zain, hareen begira. Gazte baten imintzioak ahuntzaren gaberdiko eztula, niretzat.

Habearen atzean egoanak dei egin eustan barriro. Esku ta beso ta buru ta begiez egin eustazan zinuak. Atzaparrak ere neuganantz eukazan.

Honetan, jatsi nintzan lurrera jesarrita nengoan bar alboko aulki luze tente haretatik, eta joan nintzakon.

Ziri ederra sartu eustan lehenengo lehenengotan.

—Hemen, alboko urrutizkinean zure galde dihardue.

—Nire galde?

—Bai, zelatariaren galde.

Erdi tentel, haren esanera makurtu eta urrutizkina egoan bazterrerantz joan nintzan, eta berbatresnea esku-ra neban unean bertan egundoko takarrekoa, blaustada

sendoa sentidu neban buru buruan. Orduan... Geroago, konorta etorri jatan.

Neure senera nintzanean eta begiak edegi, sokorru etxe baten nengoala adierazo eusten. Eta han nigandik hurrean egoan gizona urizaina zala.

Buruan tontorra eta ebagia nituan, guztiz minbera.

Eguneko ordu luzeetan baketan laga eusten. Ilunabarran, osagileak bigarrenez ikertu ninduanean, uri-zaina barriro agertu zan han, eta itaune labur baina gaziak egin eustazan.

Nik ere, ahal nebana egin neban, guzurak esaten eta jazorikoaren zehetasunak aldatuz. Zuntzun eta zozo egin gura neban neure burua. Adimena ahul eta beraztua nebala. Zera, halako ta holako, urlia ta sandia ta berendia erabili nituan, oparo ganera, herritar zehe letrabakoak egin ohi dauanez.

Aurki, alperreko barriketak, nireak. Uri-jagoleak fitxa zuria beteten ziharduan. Harek aldegin ebanean, loak hartu ninduan.

Biharamonean handik anka egin neban. Nire ezbeharraren errua neuri egotzi eustan Txuriok. Moldakaitza eta trauskil antzekoa izan zala nire jokabidea, bapere ez ernea, buru argikoa; halako erretolikak niri!

Barriren barri harenganako amurrua sutu jatan. Baina adore handirik ez, eta segi.



## Sari barik

Harako estainu-jokoa, eskuketa gautarra ezin hobeto garaitu eta burutu ei eben. Estainu-lorra ala beste zer-bait arinagoa eta baliotsuagoa izan ete zan, izan nituan neure zalantzak eta haizeak. Baina azkenaren buruan gauzea zelan izan zan jakiteke lotu nintzan.

Lapurrari lapur ta erdi egin eutsoela, bai, entzun neban. Besterik ezertxo ere ez.

Zerbait, Zozokumek azaldu eustan geroago. Zerbait hori, ostera, ez jatan bapere gogoko izan. Izateko ere, ez zan-eta!

Irabazi zatirik handiena —ta harritu egin nintzan ni orduan, holakorik!— Txuriok beraganatu ebala. Besteek, ikututxo bana, eta kittu.

Nitzat, barriz, nire jardunak molokot egin ebalako, ezer ere ez.

Baina beste zerbaitek sumindu ninduan eta gora goraka jarri.

Gau haretan Itxaine hil zan, eta zirudianez, Txuriorren erruz.

Txori-erreklamua bailitzan, trenbidean zehar joane-razo eta Itxaine ibaiaren ganeko zubi medarrean zehar joiiala, irrist egin, ibaira jausi, eta... han galdu ei zan. Neskatila gaixoa handik egun batzuetara agertu zan, itota.



Bere menduz, izatez, Itxaine ez zan ez okerra ez gaiztoa. Buru arina, bai. Eta arinkeriazko bizitzan hondatu zan.

Tamal handia izan neban hari buruz, eta Txurioren bizkarrerako egur gehiago nebala uste izan neban. Gizartean ez zan gizon ongilea. Gaizkile hutsa ta nabarmena zan.

Nik, lehenago hasi neban bidera bihurtu beharra neukan. Harako Klub dotorera joan-etorrika zertzea. Harako kontratuaren lapurreta modua biribildutera, horretara joango ziran barrero nire sena eta ardurak.

Baina Itxaineren heriotzeak argibide barririk nigan-du ez eustan arren, horraitino, atsekabe larria sortu eustan, eta ni neu ere arinkeriaz bizi ete nintzan, pentsetan jarri ninduan.

Beste zeregin bat ere, ganeratu eustan nagusi kaska motzak. Ni ere, zaldunen bizkar-jagola izentau ninduan. Nagusikide barriak izango. Arazo hori, txandaka egitekoa izango ei zan. Beste zehaztasunik ez eustan orduan emon.



## Polpolenean

Gorkak bitartean ez zituan bere asmoak hauspera sartu.

Atzerrietara ibiltaldia egitea guztiz komeni izango ei jakun hari eta niri.

Ganera, Txurioren txibitepetik jaregin gura ninduan, ama Polpolek Erraul Haginandi egin eban lez. Hau, Tropiku lurretan ebilen osabearen agindupean. Horraitino etxera ez ei eban bapere txanponik bialtzen, amatxo andra zabalari ta, han dirutzan igari ibili arren. Hori uste eben, behintzat.

Horreek Gorkaren esanak izan nituan, baina nik neuk ez neutsan sinestu Erraulek horrenbeste dirurik erabiliko ebanik, bere diru lez, behintzat.

Zana zala, Gorka eta biok lehen ainako adiskide handi ginan. Hauspean egoan adiskide maitasarrearen txingarra zuzpeltu, goritu eta ilinti bizi antzera jantzi zan. Adiskidetasun zintzoa, mundu ondasun txit estimagarria.

Harrezkero Gorka Museo bateko behin-behineko Artezkari jarri eben. Poz ezaguna izan neban.

Baina albistarik zerena hauxe izan zan.

Txolin, Gorkaren anairik zaharrena ezkondu egin zala. Amaren kutuna, eta alderantzira. Harako amazuloa ezkondu! Aitearen...!

Izan ere, andra Polpolen buruan parasmauek ezin euren etxerik egin. Ez egoan han geldiunerik, egote zabarrik. Asmoak dantzan ebiltzan edonoiz. Urteak aurrera eta umeak ezin ba, amaren altzoan beti egon. Burubidieren bat zertu behar eban Txolin zala eta ez zala.

Eta horra!

Otoz otoango jazoera horrek konkortuta laga ninduan.

Hori jazo aurretik Txolinek egin izango zituan pariztak eta imintzioak antzemon nituan.

Ama eta bera, bera eta ama; eta itsumustuan lez, bien artean beste emakume bat ezarri? Eta nork, eta amak? Elorrioak!

Ez eban errez ulertu ahal izango seme kutun ete lehenengoak. Ulertzekoa ere, ez zan-eta erdi aitatu izango eutsanean.

Istoria Gorkagandik jaso neban.

Goiz baten...

Andra begizorrotz eta erneek gaueko ilunetan ohean euren burubarruaren jabe bakar diranean, asmoak egosten sekulakoan dakie. Geroago izango danaren ernamidak ezerezetik sortu ohi ditue.

Eta geroago, lurra aroan dagoanean, ereti eta beta egokian lur samurrean landatu, eta aldatu.

Goiz baten...

— Txolin!...

— Zer, amatxo?

—Zera... gu, gurasook, ez gareala betiko.

—Ez? Eta zer?

—Ni hemen nagoan artean, ez dozula ezeren zerik izango. Baina nire begiok betirako...

—Ai, ama, ez egizu horrelako auturik haizeratu.

Orduan amak, ahotsa lodiagotu, zakarragotu, burua zut ipini —oiloak ere, txitei euren ardurea hartzeko ordua heldu jakela adierazoteko pikokadaka hasten diran antzean— latz samar zertu eutsan ahotik belarrira.

—Seme, egokiro maneaturiko asmoa dot, eta esan egingo deutsut, beste luzamendurik bago. Ezkondu egingo zara.

—Ezkonduuuu? Ni ezkondu?

—Bai, ene semea. Ezkondu. Zeu ezkondu. Zeuen aita egin zan lez.

—Eta nire anaiak, arrebak? Eta zeu, amatxo? Bakarrik...

—Zeu zara lehenengoa. Lehenengo urratsa nork egingo?

Txolin ixilik geratu ei zan.

Beste egun bat eta beste zioeren bat izan balitz, ama laztantzen hasi izango zan, nonbait ere.

Baina goiz haretan, ezualde goibel barria harriturik ikusi eban seme zaharrenak. Erregenetan erregerik ez dala umeak lehenengoz entzutean jazo ohi dan antzera jarri jakon barrua.

Amarentzako ekanduzko laztankaden eragina uste uste barik eta zelan ez ekiala, leituta, gogorturik geratu jakon.

— Nire ardurarik ez izan, Txolin. Bizi nadino, zeugaz bizi izango naiz-ta. Zeuekaz.

Semea, larriaren handiz, zetan egoan ere ez ekiala gerta barri zana, horraitio, azken berba horreek entzutean, baretu eta gozatu egin ei zan.

Eta sistima zaharrari ekinez, bapatean amagana joan, besartean estutu, eta matrailetan mosu zaratatsu bana egin, eta ondoren, aho-ahoan amari mosu luze ixila.

— Ba nekian, amatxo, hain bihozbakoa izango ez zina, ni deslai eta bakarrik isteko.



## Errana, arrana

Andra Polpolek ez eukan, artean, guztia gerturik.

Ba eukazan euki, bere baitako agenda urdinean neskatila bi erdi hautetsiak.

Hareetarik bata, auzoan bizi zan, etxetik ez urrun, kalea bitarte. Bestea uritik kanpora, baina hain zuzen, ama kaltzadunak gurago izango ebana edo. Zerbaitegaitik.

— Txolin: lora polit bi ditut begiz jota zuretzat.

— Bi, ganera? Zelan ba?

— Zelan ba...? Itsumustuan ibili behar ez dalako. Bat eta haxe, ez horixe!

— Eta... nortzuk, edo zelakoak?

— Zelakoak, zertarako esango deusut orain, bien bitartean zein hartu jakingo ez dozu-ta?

— Benetan politak al dira? Zu baino areago, amatxo?

— Ez, haren urteak banitu! Ai, ene seme amazulo! Ez deusut ezer ukatu gura. Gazteak beti polit eta txanbelin dirala dirausut, argi ta garbi esan ere.

Eta egun batzuk geroago, andra Polpolek bere burujokoan ostean, berbetak eta lehenengo urratsak zertu zitu.

Txolinentzako emaztegeia erdi izentaurik egoan. In-  
guruko uri haretan bizi zan neskatila izango zan, aurki;  
ezagun baten alabaordea bera, Genaretxo.

Polpolek aurreko egunetan haren amaordeagaz tra-  
tu-antzean jardun eban.

Neskatxa harek orduan ez zituan hogeitik gora urte  
askorik izango.

Ezkondu ta gero ezagutu neban nik; eta ha bera eta  
Zeline euren istoriodun zirala jakin ondoren, andrazkoei  
buruz neban eritxia, ez neban orokor egin gura izan.  
Zera, emakumeen artean ere, ez zirala guztiak bardinak;  
urrik emon ere!

Genare neskatila gurbil eta apala zan. Alaia eta bai-  
korra. Gozoa berbetan. Arimaz argia, begien kolorea  
ainean.

Bere askatasun ederra eskaini eban ezkontzako opa-  
larri ganean, ama agintari baten seme uzkur eta atzerea  
emaztegabe egin zedin.

Andra Polpolek ezarian hedaturiko sare maila es-  
tuetan trabatu eta katigaturik geratu zan uso zuriska  
gaixoa. Gaixoa dinot, zorion usainez bete ohi dan ezko-  
naldi hasieran bertan nahikoa penarik eta atsekaberik  
aurkitu izango ebal sinesturik nengoalako.

Jaunak gizonari emoniko askatasunari Andra Polpo-  
lek lotsabaga eta ausarki hesiak hesi ipini eutsazan. Ba-  
tez ere, jakina, bere menpeko eta inguru hurreko ziranei.

Lehenik Beñat bere senar gizarajoa, zer esanik ez.  
Gero, semealaba eta abarrak. Genaretxo alaba barritza-  
koak ez eban zori apartekorik izango. Samea egingo ne-  
ban, orduan!

Ez ekian horrelakorik asko neskatila jasekoak.

Ezkontza-doinuak dauan oihartzuna, beti ere sorgin-doinua dalako, gizalaba bigun haren barruan polito sartu zan, eta durundiak leun eta xarmagarri zabaldu zituan.

Izan ere, ezkon-soinua emakumearen kolkoan, ardaugoak ekarri ohi dauan ames-egoera malgu ta beratza-ren antzekoa ete dan entzun deutsegu sarri gure zaharrei. Harako, inoizka itsastar dohakabeak lilurape jarten dituen andra-arrain diralako laminek kantuen antzera, gero eta liluratzenago, maite-mozkortuago.

Genaretxoren barruan horrelako zerbaitek jazo zan edo. Hau ez neuke ziurtzat emongo, baina neskatila maratzak Polpolen moduak eta trikimainak aurretiaz susmatu ere egin ez zituan...

Tamalez, ezkondu baizen laster susmatuko zituan, ostera.

Oi, ezkontzako ontzi bikain eta zintzordagarria —buruko argia matasatzen dauana—; barruan diranak kanpora-guran, kanpoan dagozanak barruratzeko irrikiten!

Andra Polpolek seme-alabak lanean eta martxan jarteko ez eban bapere priesarik izan. Horregaitik, kentzea eskastutea da-ta, Beñaten urremetea ere mehaztu, mehetu eta moztu egin zan.



Baltsakidea ere, txori ona gerta jakon Beñat sineskorri. Urte laburretan garatz eta irabazpide gizenik izango ei eben. Lehenengo urtean, lanabesen balioa gozatu eta iraungi; eta handik gorakoan dana irabazia, dana etorria, dana...

Bai zera!

Behinolako diruen iturburua lehortu egin zan apurka apurka. Eta txarrago zana, Beñaten osasunak ere azkenengo hamarrak ezagutu-urren zituan.

Halantxe jazo ere. Eta horra nondik nora geratu zan bigarrenez alargun andra Polpol.

Orduan neskame barik lotu zan. Etxeko lanak, nahiz-eta gogorrenak eta astunenak aldizkako andra sendo batek egin, eguneroko zeregin arruntak etxekoek egin beharko. Hori, esan bai; baina egin?

Neskameen arloko istorioak ba zituan etxekandra kaltzadunak. Neskame barriak ugari izaten zituan. Hain barriak, eurentarik askok aste osora heltzerik izaten ez ebelako. Bigarren edo hirugarren egunerako sekulako matasak eta liskarrak sortuten ziran etxe haretan.

Halakoetan gaur batek bihar besteak, lau horma-arte haretan hain ezagunak ziran berbak entzuteko aukerea izan ohi eben:

—Jaurtiduta zagoz! Gertu egizu bidezorroa, eta ospa, gautu baino lehen.

Erantzun bipil eta ausartak ere izaten zituan:

— Bai, andrea. Eguzkia goian dagoan bitartean joango naiatzu. Zera, oraintxe bertan!!

Halako unadetan Polpolen takoi-hotsa entzun eroen salako zurak, txingorak teilatu ganean atara ohi dauan antzekoa zan takarrotsa.

Halantxe beharko! Beñaten emaztearen eta geroago alargunaren gorputzak halakoxe pixu handi, eskergea eta astuna ebalako. Haren bularrak, haren iztarrak, haren...



## Amaginarrebarenean

Horretan ere izan eban axola eta ardurea Txolinen amak. Artoak amaituz joiazanez, neskameen soldatak zertzeko ere, eskuartea urritzeak mesederik ez ekarrenez, neskamearen zereginetarik asko andra gazteak egin eikezan, orduan behinean.

Nik ezagutu nituen bitartean, Txolinek eta Genarek ez eben ondorengorik izan. Lur aitor eitekena, antzu eta zeken agiri zan.

Ez dakit, eta ezin esan nei, Genaretxok amaginarrebarenean izan zituan egun ozkarbi eta une zoriontsuak.

Baina egiaz esan daiket, horraitino, andra Polpolen tegian susmatu ohi zan giroa, London uri handikoaren antzekoa zala, egun ilunetan ugaria, lorios aldietan zeke-na.

— Genare! Mihise honeek eta barruko jantzi zikinok zelan dagoz oraindino garbitu baga?

Eta erranak erantzuna gertetan hasi baino lehen, aubeak berak zuzenduko eutsan honelakoren bat:

— Beti jardun behar izango ete dot zer bardinak esaten? Etxekandra gazteari dagokio etxeko martxa osoa jasean zertzea. Behar dan moduan. Zenbat bidar...

Saule, etxeko alabea oster, Saule ezpanlodia, ande-

ratxo lez bizi beharreko zan, damatxo txakilaren antze-  
ra. Ez eban horretan andra Polpolek arro usain makala!

—Nire alabak —esaten ei ekian— andra handien  
alabak ohi diran izarian hazi izan ditut. Honeei ez dago-  
kie eskulan gogorrik ez latzik egiterik. Zeregin saskelok  
euren eskuak zakartu, azala makastu besterik egiten ez  
dabe-ta.

Eta Polpolen alabak...

Bata, gaztena, joan egin zan, fintzekotan eta jenda-  
kin guztizko bihurtzekotan, Europa erdirantz, amaren  
agindua horixe ei zan-eta. Horraitino, Gorkari entzuni-  
kotik, besterik uste dot. Alabea zan ihesi joan zana, ama-  
ren menpean gehiago irauteko urdailik ez ebalako. Eta,  
hau ere esan beharra dot, arima hegalaria eukalako.

Saule, barriz...

Eta Genaretxoren egunak horrelan joiazan aube  
agintariaren kontrolpean.



## Zeline

Gaztetxotan Zeline eta ni auzo ziran etxe txiki bitan bizi izan ginan. Gogoan dot.

Zelineren lehenengoko jaunartze egunean gozoak okegin arte jan genduzan. Haren amamak eta izekoek ekarririkoak. Ez eban aitarik, eta amaren lanetik bizi ziran Zeline eta honen aizta Babes.

Urteak urte igaziak ziranean, eguerdi baten Zeline topa neban kalertz baten. Atsegingarri izan jatan alkarikuste hori.

Kotxe txikian ume bat eroian; alabatxoa. Beste sein baten begira egoala susmatu neban, hazurbarri egoala zirudian-eta.

Zurbil egoan. Matrailak zetakaz beteak, inoiz zuri-gorri eta zoragarri ezagutu nituanak.

Haren ezpanen kolorgatasuna ere, tamalgarri izan jatan.

Baina tristeziaren itxura larriagoa haren begietan egoan. Mihinaren puntara etorri jatazan berba saminak, baina ixilik gorde zituan.

Andra gazte polit harek, horraitino, irribarre guztia beharrekoa eskaini eustan. Irribarre ondonahia.

—Aspaldiko Melki —esan eustan, nondik nora ibili zara hainbeste urtetan?

— Ene! Zeline zara zu! —urten eustan, emakume hari pozgarri ekiozan berbak esaten hasi guran—. Ikusten dot, bai, aspaldi alkarren barri izan ez doguna. Zu, ama ta erdi.

— Horrelantxe da, bai.

— Ni, barriz, emoi bako elementu motza. Harriarte-ko hazi bakarra lez, gizon antzu eta idorra naiz.

— Ez egizu horrelakorik esan. Oraindino gaztea zara-ta.

— Onegia zara, Zeline. Nik galdu izan dodan pitxirik ederrena izan zara. Noizbait aldendu ginan, eta...

— Zergaitik dinozu orain...

— Laga deiogun... Ba! Emakumeak seme-alabak eta senarra inguruan izan ezkeru, zoriontsu, ezta?

— Zoriontsu? Zelan dan. Hori bai, seme-alabak, umeak maitagarri dira edonoiz. Ama izatea, gauza handia da mundu honetan. Besterako balio ahal izango deusku! Halan ere, senar ona izatea, horixe da zerurik erdia, nik uste, zigorrezko ibar honetan. Bakoitzak bere saminak gorde behar ditu, osteru, eta ixilik eukitea, hoba. Zu, horraitino, betiko adiskide zaranez... Behar-bada, ezkonitza emon neutsanean arinkeriaz jokatu neban.

— Diru gorabeherak edo...

— Horreek ere, gaur dan egunean atadiko haizea ez dira baina, beste zer batekoa dot nire untzea.

— Untzea edo arantzea. Ez al zaitu maite, merezi dozun ainean?

— Harek berak berba labanez baietz esan ohi deust. Egitadetan, barriz...

— Zelan, ba? Alabatxoa eta beste sein bat bidean...

— Bai, Melkitxo.

Hain samurkiro esaniko berba horrek hotzikarea eragin eustan burutik behatzetaraino.

Aspaldi luzean umezurtz antzean bizi izan nintzana argi ta garbi ezagutu neban.

Biontzat nekagarri izan zan ixilunea jasan genduan.

Harik lasterrean, une baten lurrera begira egon ondoren, burua jaso nebanean, han neukan Zeline, negarra begian. Une haxe bihotz hausigarri izan jakun. Ziur asko, Zelineren senarra gonartean ebilen.

Zelineren egoera itzalaz errukitu egin nintzan.

Txurioren menpe ni egoteaz nituan koxkak eta lazturak gauza arin eta garrantzi handibakoak iruditu izan jatan.

Zeline maitagarriak halako zori baltza izatea!

Katalana deritxan zuzen-jokabide labur eta gogorren gomutea biztu jatan. Ziri ta ziri egin eustan neure garunetan, burugunean.

Gizon hori topatu egin behar neban, eta lotsea emon, besterik ezean. Ez egoan eskubiderik!

Horraitino, ni nor nintzan, izan ere, besteren sendian nire eskuen indarra erakusteko, gogorkeriaz hatan ere?

Kixotekeria hutsean zertzea ere!

Beste behin ere ikusi izan neban Zeline, urrunetik.

Alabatxoa ume-burdi txikerrean, kalean zehar joiala ikusi ere. Alabatxoa jesarrita joian. Buruko ulea baltz baltza. Aitaren antzekoa, nonbait.

Urrundik jarraitzea erabagi neban. Kaleak kale ira-

gan genduzan. Ordu beharra zan; uriko kaleetan beribilak, bus handiak eta scooter arinak zoro antzean ebiltzan, harantz honantz.

Zeline kale bitarte bakoitzean zehar joialarik, bildur ikareak astinduten ninduan gorputz osoan, ezbeharren bat jazoko ete jakon. Zori onetan ez zan horrelakorik gertatu.

Kale medar bateko etxe barri antzekoaren aurrean geratu zan. Hantxe bizi zala zirudian. Horixe izan zan, behintzat, nire orduko ustea.

Atetan sartu zan, eta ilunbeak irunsi zituan ama-alabak eta burditxoak.

Maite-abia zori ederreko askoren artean, aurki, atsekabez hezotua zana ere, hantxe egoan kokatua. Emazte bigunak negar mingotsa, sarritan malkorik bakoa egiten eban bitartean, senarra —nor ete zan?— jolas gozoetan handik urrun edo ez hain urrun, ausaz, beste gonadunen bategaz.

Modu askotako zirtzilak neukazan neure inguruko mundutxuan.

Geroago baten etxaurre haretarik ni igarotean, atezainaren emaztea edo, aurkitu neban ate ondoan. Zeline andrearen senarraren abizena zelán zan itandu neutsan, bestela baitakoan.

Emazte mirritz harek, errespe erantzun eustan:

—Toki bardinean bizi dira zuk dinozuna eta haren senarra. Zertarako dozu argitasun gehiagorik?

—Eskerrik asko, andrea —erantzun neutsan—; Gre-



ziko jakintsuek ere, ez eben, ziur asko, zuk ainako zuhurtasunik.

Horraitio ha eta ni, biok aho bete hazurrez geratu ginan.



## Saule

Ume eder honen edestian, zati bi ditut kontagei.

Nizaz zaletua zana.

Eta beste gizon baten ondorik ebilela; hori neuk jakina eta neure begiz ikusia. Hori bai, gizona ni baino dotoreago zala. Eukitsuago ere bai, agiri zanez.

Behinola Gorkak eurenara joan nendila dei egin eustan.

Txuriori horretarako baimenik eskatu baga egin neban agerraldi hori.

Baietz erantzun neutsan eta joan egin nintzan. Ez dakit, ostera, zegaitik joan nintzan harenera arratsalde argi haretan.

Halabeharra edo.

Nizaz osoro birloratua ez zan geratu ba, Saule?

Ni neu neskazale nintzan arren —Itxaine zori gaizto-koagaz izan neban une atseginik— halako bapateko garaitzarik egin neikenik ez neban sinestu izango. Ezta, ezta!...

Horraitino...

Polpolenera nintzanean ez egoan han Gorka.  
Saule agertu jatan atera.

—Gorka laster etorriko da. Laster... edo geroago  
—gehitu eustan haren arreba horrek—.

—Horrezkero ni ere geroago...

—Ez, ez. Sartu zaitetz. Etxean zagoz. Aurrera.

Ni neu harritu egin nintzan kristau bat modu haretan, jantzi premina haretan atera agertu eitekela-ta.

Neskatila betea zan Saule, eta bete neurri horreek oparo erakutsi eustazan arratsalde haretan.

Gerritik beherako jantzia ohe galtzak, loratsuak eta estu samarrak zituan. Handik gorakoan atorra mehe gardena eukan. Barrukoa estaltzeko baino zeharbidez, maltzurkeriez eta grinak biztuerazoz, ikusi ta ez ikusi egiteko aukerakoa ez ete zan, tximistea lez pasa jatan burutik.

Itsua ez zanak, begiratu egin behar; eta ikusi.

Gizategi txikar batera eroan ninduan. Areto harek atsegindu eta berehalakoan etxekotu egin nintzala esan beharko.

Hainbat kontu eta gertagi garandu eustazan. Barritsu samarra eretxi neutsan. Ardaila erion, hitza ta pitsa. Nire gorabeheraren batzuk be ba ekizan, Gorkari entzunik, ausaz.

Ama ez jatan begiko, baina Saule arratsalde haretan...

Arinkeriako esames eta berba putzetan jardun genduan. Begiak, manguneka, urdin ilunezko pinturakiz apainduak zituan. Haragiaren deiaren agergarri antzeko ziran.

Zuriketan hasi jatan. Eskuak igurtzi eustazan behin

eta barriro. Laztan estuagoetara jo ez jo, hor hor ibili nintzan.

Maite-jokoetarako atzera eta nagia ez zana, igarri neutsan. Hitz limuriz eta jantzi erdi biluzez, azalpeko gurarienzat ernagarri gerta eitekela. Aingeru hezea zala iruditu jatan.

Jesarrita gengozan zeretik jagi egin nintzan bapatean.

Zanen berotasuna gehitu barik, gorputzari hozkirria eskaini gura izan neutsan; neure gorputzari, behintzat.

Gizategitxoan batera ta bestera ibiltzen hasi nintzan, haren berbak entzunez, neure erantzunak emonez.

Alkarrengandik hurregi egon ez geintezan, bitarteko mugea jarri nahi izan neban; nengoan tokian nengoalako, besterik ezean.

Eta Gorkaren arrebea zalako. Hau ez zala agiri, eta joan egin behar nebala adierazo neutsan Sauleri.

Negar-muxin antzekoa egin eustan neskatila ederrak. Esker txarrekoa ete nintzan. Antigualeko mutila edo.

Ateondora heldu ginanean, mosu egin eustan matrailan. Bestean ere berdin egin gurako imintzioa nik susmatu, eta ez neutsan laga.

— Hurrengo noiz etorriko zara, gaizto hori?

— Gorkak gura dauanean.

— Agur, laztana!

— Ahaztu nagizu, bihotza! —aldarri egin neutsan urrunetik, mailadian behera ninoiala.

Sauleren irudia!

Gure egunetan standard moldepean eratzen dituen andra desiragarri horreetariko, barri beti barri. Txai-roa, ezin uka. Ohe gizalaba zirudian. Modakoa.

Estetika arauak ere gomazkoak dirudie batzuetan. Eder legeak sarriegi, emakumearen gogara dabiltzala esan beharko, luza eta labur, hedagarri eta murrizbera. Arpegi biribilak unada baten, musu estu medar hazurtsuak hurrengoan. Gizonak beti pozik. Modistak areago.

Saulek ibilian ibilian mokorrazurrak dantzan erabilten zituan. Buruko uleak batzuk euren bidean, atzerantz leun baina harro. Besteak, begien ganerantz jauskera bezekoan lez. Uleok, ganera, baltz, zuriska, nahaste politean marratuak, begi maltzurren erresel antzean.

Gustagarri egin jatan.

Horraitino nork esango eustan, etxe haretara barriro joango nintzan eguna, biharamona bera izango zala?

Gorkak dei egin eustan eta joan nintzakon.

Saule ezezik, andra Polpol ere han aurkitu neban. Honek, lehenbiziko berbetan, haziera onekoa eta otzana zirudian. Niri, onuak emon guran, semea bainintzan.

Zirudianez, zuzenaren alde egiteko egunak ere ba zituan. Iretargiaren legeak ere, gomutara etorri jatazan.

Belarritako dizdizariak eukazan dilindan etxekandreak. Erestuna ere, molde bardinekoa, txirlarriak zirtzart dirdiz egiten eutsoela, batez ere argien joko eta zirkinetan.

Eskuturrean, urregorritzko pitxia. Labur esan, haundiki jatorrak hain nabarmen erakusten ez dituen moduan, erakutsi beharrak joa iruditu jatan. Zorri hil-biztua, herri esakunez.

Ez zan ederra, nire gustorako.

Bitartean Gorka ez zan agiri bigarrenez ere, eta gogaitu egin nintzan. Andra Polpol nire amaginarreba izan eitekela haizea buruan zertu, eta izerdi larria sentidu neban unetxo baten.

Besterik barik, handik aldegin neban.



## Bizkar berotzeak

Lapurreta desentea egiteko prestamenetan hasi ginan Txurioren morroe batzuk. Zozokume, Birbiz eta neu hirugarrentzat. Bariku ilunabarrerako gertu. Gibelurdinek ere, lagunduko.

Trean izango zan. Ola handi baterako diru-zorroa eroango eben, biharamonean soldatak ordaintzeko. Narruzko lotura barruan eroaten eben. Ola handi horretako lantokiak bi ziran, bitartean kilometro batzuk urrun-hurre.

Jakinik gengozan. Diru mordo nagusia bariku goizean ataraten eben Bankoetxetik. Baina zati bat, iluntzean eroaten, lantoki batetik bestera.

Giberlurdirin zan urrunetiko zelataria. Gero, Maltzurko ehiza txakurra, «pataria»-ren azterrean usain usainka etorriko jakun. Horrelan, hirukoa bosteko bihurtu genduan. Bost lagun, egin behar zana egiteko.

Gogo erne, begiak eta belarriak erneago, han gengozan geltokiko nasa ganean.

Hara! Han agertu zan maltzurko. Honen ondorik diru-zorrodunak, gure ustez.

Han, estazinoan egundoko jentea batu zan hots baten eta narruzko maletadunak ere, gura eta behar genduan baino ugariago. Erdi zalantzaz jarri ginan, eta Giberlurdirin behar genduan gauzea ziur jakiteko.

Honetan, ez zan agertzen, harek berak zirudianeaz Maltzurkori axuta egoki eskeini eutsalako, eta ziur asko, han nasai nasai geratu izango zalako. Eta nork daki, tabernazuloren batera egarria arintzen sartu ez ete zan.

Geltokiko nasan gengozanok, zer ez egingo, guretzako nahi genduan maleta dirutsua zein ete zan, aldra bitan uzitu ginan: Maltzurko eta Birbiz batetik, Zozokume eta ni bestetik. Bapateko erabagia izan zan. Une haretan gure buruzagi argia, Txurio, gure aldamenean ez geunkan-eta.

Gure lagunak, pardel gizen baten jarraian, wagon baten sartu ziran. Zozokume ta biok beste orga baten, gu ere pardel morrosko baten atzetik.

Lagunez bete zan tren. Gure zerean uste genduan baino pilo handiagoa batu zan.

Lapurretea, zelan egin behar genduan? Jente guztia-  
ren aurrean, ala geroago, jatsi ondoren, bakartadeko  
bazter ilunbezuren baten?

Batzuetan zera pentsaten neban nik; Txuriok geure pentzudan isten ginduzala, batez ere jokoren batek txar-  
to urteten euskunean, lapur ikaslekumeok bizkortu eta  
begiak argiagotu gengizan.

Okerrik bazan, geure erruz izango zan; esku-lanean genbiltzanontzat hutsak guztiak. Goikoen asmoak beti edo gehienetan artez atonduak izaten ziralako.

Horrelakoetan iguingarri izaten jatan nagusi kaska motza.

Trenak aurrera ta aurrera ziharduan.

Nik, galtzarpean kilikili egiten neutsan Zozokume nire lagunari:

— Ta? Zelan izango da gure lan hori?



- Zuk zer dinozu, ba?
- Zeugaz bat nator.
- Ez dot ezer esan, baina.
- Horregaitik, ba.
- Ondo da.
- Beharko.

Trena bitartean trikiti trakata, erdi arnas estuan baina baketsu, gizadiari laguntzen, nekeak arintzen.

— Hasi zaitez, Zozo, maletazainei berba gozoak esaten. Zuk guzur eta abar diharduzun artean, nik neure hi-giak eta zirkinak atondu daidazan.

Zigarrotxo bana erreteko gertu ginan. Mistorik ez geunkala eta Zozokume diru-zorrodunakgana hurreratu, su eske. Maleta gilbortsua han egoan, ixilik eta geldi.

Buruko garunak bira ta bira nerabiltzan nik, modu onena eta eretia noiz eta zelan izango ete genduan. Zozokumek lortu eban dirujagola hareek zigarrotxua isiotutea. Niri ez eustan jaramonik ere egin, erreten ez bainuan.

Zartadan zain-joa izan neban. Zera, Zozokumek nik baino gehiago ekiala susmatu neban. Izan ere, ez zan kome-ni haren aurrean gu lagun ginana agertzerik. Zana zala, nire tabakua su barik neukan.

Konturatu nintzan Zozokume berbaldun egin zala, eta jagolakaz autuan ziharduala, azkor eta baikor. Bai, egia zan haren barriketea gozoa izan ohi zana. Erakargarria.

Zozokume eta barriketako lagunak eurak ere, barre algaraka hasi zirala-ta, nasaiago nengoan. Nire erneal-dia zertu behar neban.

Hasi nintzan ba, lürrean egoan maleta astun sama-

rrari ezarian teinkegiten, lehenengo oinagaz, gero eskua-gaz, horretarako gerria bigunduz eta makurtuz, nire oinetakoan lokarri-txibistak sendotu guran edo.

Lapurreta mailak, zirkinak eta bultzadak polito joiazan. Nire oinen sakadaz zirrizt-zarrazt bide luzeak egiten zituan pardel guri harek... milimetro banakak egin arren.

Leihoan zehar urrunera begira edo, egoten nintzan sarri Zozokume nire ezer ez bailitzan. Irristada labur haren zaratarik entzuteko ez zan gauza inoren belarririk, neureak izan ezean, zirkin zarraztadok hain makalak izanik.

Honetan, pardelak nire eraginez egin zituan bideak neurtu gura izan nituan, eta bazterretik wagoi erdirantz arrabete mogidu ete nebanentz. Horraitino, lekutan egoan orga luze haren atea!

Han inguruko guztiak sekulakoan ziharduen, batzuk kontu esaten, besteak erreten, entzuten, kantu zoroak abestuten...

Neure lana zelan burutuko ete neban? Neure edo geurea.

Zozokume lo ez egoana ba nekian. Beste minutu batzuk eta trenak trikaldia. Gure gizonak zer egingo ete eben, jatsi ala jarraitu?

Geldiune haretan jente pilo ederra lurreratu zan. Nire kidea erre ta erre, eta berba ta berba, diru-jagolakaz.

Trenak, ekin barrero. Toki zabalagoa neukan, arriskua ere bai, hutsunak handiagoak ziralako.

Bapatean pardel-jagoletarik batek begirakunea, eta pardela saka ta saka niharduala susmatu. Nire zori bal-tza!

—E...! Nun da gure pardela —zarata egin eban—. Kontuz, lapurra hor!!

Baina azken berba hori ez neban nik ordurarte egon nintzan tokitik entzun. Ordurako, atea edegi eta hil ala bizi, salto egin neban, trenbide hazurtsu eta harri koskoz bereriko haretara.

Maleta barik, ostera. Ostuteko indarrik ez betarik izan ez nebalako.

Zori onez, kaska txikia, tanpada makala gerta, eta ez neban esateko minik hartu.

Ez zan harritzeko. Bitarte haretan, jauziak eta saltoak egiten alde aurrez jardun gendualako. Bai. Entsaus eta ahaleginik ugari eginak gengoan bolada haretan.

Geroago, horraitino, Txuriogana ezin ba, esku huts agertu.

Egia zan Zozokume ere maletaren berezko bidea eragozteko gauza izan ez zana, eta harek eta biok porrot egin genduana.

Baina... baina! Ha ez zan Txuriogana ezer barik azaldu. Maletazain biei, gozo gozoro, aldean eroiezan kartarak ostu eutsezan. Milako paper berde tolestu bakoak, pilokadatxoa.

Hori jakin nebanean, nik neure burua «laneko» martiri lakoa zala agertu gura izan neutsan agintari gogorrari.

Zera, zori txarrez, min handia hartu nebala trenetik

jausterakoan. Erren eta erren, nekez eta minez nembilela adierazo behar neutsan Txuriori.

Ez neban beste norarik.

Ezkerreko ankea, belaunetik behera mendel zuriz, loturaz bete neban, biraka eta biraka ipiniz. Makilea eskuan, tringo ta koxo agertu nintzaxon.

Txurio gizon ohartua, zitala, ez zan nigaz erara geratu. Ezta!

Nire guzurras jabeturik, beste guztien aurrean, gogor eta anker jardunez, belaunetik beherantz bira-biraka neukazan ehun zuriak, hain polito ipiniriko trapu-mendelak bertatik askatu eta brastadan urratu eustazan. Ondoren, zakarkiro eta esku latzez hemen ikutu, hor saka ta saka, neure bernazur errubakoan haztamuka ibili jatan, zorrotz eta trakets.

Halako ikerkuntzarik! Harako Arnobatekoa zirudian, garai bateko hazurkonpontzaile ospatsuetarikoa.

—Hau ez da ezbeharra —ebatzi eban kaska motzak—; hau, sasi-ezbeharra da. Bizkarra berotzea merezi dau, eta zehatu egizue. Emon emotekoak!

Txuriok emoniko sententzia laster bete eben haren borrreruak. Nire lagunak. Zelako lagunak, horraitino!

Eskuz eta makilaz jo jo egin ninduen.

Egin neban hobena, itxurakeriazko hoben handia ei zan, Txurio agostoari egina. Iruzur izenik bakoa.

Hareen ama gaixoak ez nituan orduan aho mihinetan zertu. Baina hortz artean nagusi ankerraren aitaren izpiritua ez zan toki onean geratu.

«Ankerraren seme borta! Irabaztekoa irabazi dok! Iretzako urkamendia neuk egingo juat. Lehenengo aukerara, Txurio!»



## Harrimenik harrimen

Begiak argitzea, mila gauzeri buruz harriturik eta aho zabalik gelditzea, umetako eta gaztetxotako zera esan ohi da. Bai zera, urrik emon ere!

Konkortuta geratzea, bizialdi luzean zehar ere, jazoten da.

Txurioren menpean gengozala ezagutu neban gizonik dotoreena Karol izan zan. Ez nekian ingeles artean ohitua ete zan, baina uriko jostunen artean onenak, artatsuenak zeintzuk ziran, ondotxo ekian Karolek.

Usain gozoak ere, lurrin finenak harentzako ziran sarri askotan. Gizonezkoentzako lurrinak, aurki.

Karolek eta Txuriok alkar zelan ezagutu eben, ez nekian.

Gure kaska motzari onuratsu etorkiola, begien bista-koa zan. Gizarte mailetan gero ta sartuagotzen joiala, ukatu ezina neban nik behintzat.

Eta karolek, zer alde onik izango ete eban lapurren agintari zitalagandik?

Diruagaitik txakurak ere dantzan egiten dakiala entzunik gengozan, eta... Gura dozu —neure artean esaten nekian— Txurio ere oraindino twist eta kalipso artean ikusi baietz?

Txuriorentzat goruntz igoteko bidea eta zubi lerdana Karol izan zan, ezbai barik.

Karolgandiko onurak mamintsu eta gizenak suertatea, Txuriorentzat eitekena zan. Hau ere «Tabu» usain gozoz gantzutzen hasia zala susmatu ez neban, ba? Nondik eta nora hain komediantea Txurio gurea? Ikusten ebana egin behar eban txontxongiloa ete?

Karolen joan-etorriak, iraun zirauen. Lehenengoz eta bigarrenez ere Txuriogaz ezagutu neban. Ez oster, «Armiarma» ostatu tutu haretan, boulevard aldeko kafetxe apain baten baino.

Hirugarrenez, teatro jai bateko atal bitarte laburrean alkar ikusi genduan. Orduantxe egin eutsan hari nire agerpena lehenengoz gure kaska motzak.

Ni orduan psikologo samarra izan banintz izan, Karol jaun barriaren zerak susmatu eta erdi ikusiko neukezan. Baina Txurio be, beranduegi ezagutu neban eta... kakazarra!

Ez nekian beharbada, kanpo eder eta barru makur urten eitekela.

Gorago aipaturikoa jai egun baten izan jatan.

Egun haretan banatze ukaldia ezarri euskun egitamutzat gure zaharrak.

Ez zala egoki beti egutera eta toki jakinetako lapur arrunt izaterik.

Ni, bestalde, orduan atzerrian nenbilen; aldegin bako atzerrian, ausaz. Horregaitik ez neban Sport Klub zalako zalduntegitxoan neure burua agertu behar.

Mahai-ganean, atondurik egoan ordurako nagusitxobion asmo egiturea. Bakoitzak bere txostenak zerturik eukazan. Nik ere bai neurea. Eguna izentau behar zan.

Eta beste jai egun baten izan neban barriro ere harrituta geratzeko aukera. Bilatu bako aukerea.

Egun haretan, uriaren inguruko mendisketan diran basa-ostatu txanbelinera joan nintzan, bakarrik eta jarei, haizetan txoria lez.

Arratsaldeko gozoa egin neban. Txukun jantzita nengoan, korbatarik politena idunaren inguru, jaka ertzean lora gorria.

Dantzaldia hasi zan. Orkesta jasekoak doinu ernagarritz bete eban barrutia. Gazte giroz, labur esateko. Ni ere —harako ankako guzur minik bage— gertu nengoan dantzan hasteko.

Gazte mordoia, neska eta mutil, dantzari alai bihurtu zanean, nik ere laguna bilatzen ahalegintxoa egin, eta hara! neskatxa ulegorria idoro neban.

Haren baietzera eta soinuaren konpasera azkortu nintzan. Hasieran ez eustan berba egiteko gogo handirik agertu neskatila polit harek.

Nik hau eta hori eta bestea aitatu arren, erantzun laburrak emoten eustazan. Gomutan dot une hareetan, hainbat gogoeta egin nebala. Lapurreta arruntetan ibili baino bihotzak ostuten saiatzea ez ete zan hoba?

Begiak edegiten hasi nintzala zirudian. Txurioren berba zakarrak entzun eta haren zemaipen lazkiro bizi izatea baino beste modutan ibili neinketela neskatilea gazteen artean.

Bide barrian sartuko nintzan. Ahaztuta neukan bide atsegingarrian. Lan egin eta jaietan jolastu. Lehenago ere ames egindako asmo heldubakoak.

Ulegorriak dantzan nik baino hobeto ekian. Oker zertzen nebanean irribarre egiten eustan. Belarri eskaseko ete nintzan itandu eustan. Konpasari adi egotea zer zan ez ete nekian.

Barre gozoa egin neban eta biharamonean lan astuna neukala eta buruan txoriak ez baina koxkak nituala, erantzun neutsan.

Neskatileak ere irribarre egin eban, eta han giharduana dantza eta bira.

Honetan, ikusten nebana ez nebala ikusten uste izan neban.

Neskatilea ezagunaren arpegia eta gorputza sartu jatazan begien barruan. Irudi ezaguna jatan. Bera zan; Saule.

Saule ederra gizon eder bategaz loturik, besarkaturik, dantzan. Ulegorria eta ni baino alkarrenganago ebiltzan.

Begira ta begira, urrun samarretik jarraitzen neutsen haren inguradei. Neure neskatilea ulegorria laga eta Gorkaren arrebearengana joateko gogoa erne jatan.

Baina bapatean, zain-joa izan neban. Gizonezko haren itxurea ez jatan ez-ezagun. Bai. Bera zan. Karol.

Dantzaldia bertan behera lagateko zera susmatu neutsen, eta arean ere, askatu zituen alkarri loturik eukezan besoak.



Kanporuntz joateko egozala igarri neutsen.

Nik, orduan, neure neskatoari, berandu egin jatala eta hara, edaritegiko mahai luze aurrera eroan neban. Haren neska laguna ere hurreratu jakun, eta mahaiko zerbitzariari dirua emon neutsan neskatilak edan gura ebena zertu egien. Hurrengorarte agur egin neutsen hirurei.

Bizkor bizkor urten neban eta bikote ezagunak noruntz joten eban zuhur egon nintzan. Beribilaren ondoan ikusi nituan. Horraitino, ez ziran kotxera sartu. Oinez joan ziran zuhaitz arteko bidean zehar. Zelatean ibili nintzala esateak lotsatu egiten nau, zirtzillen arazoa dala.

Baina bai, haren jarraian joan nintzan arbolarik arbola ezkuta guran.

Zetarako jarraituko neban? Ba nekian ermitara ez joiazana, eta handik aldegin neban. Dantzaldira joateko gogoia ere berpiztu jatan.

Ez neban horrelakorik egin. Menditik jatsi nintzan eta neure zirkilura joan nintzan. Ez neutsan inori ezer esan. Are gitxiago Txuriori.

Uste ustebakorik erreena, ostera, kale gorrian izan neban, egun goibel eta hits baten.

Harako kale medar haretan zehar ninoiala, andra gazte bat ikusi neban atadi ondoan, gizonezko bategaz berbetan, erdi erreguka edo, uste izan neban.

Gizonezkoak edo senarrak bapatean agur txeratsua egin eutsan, eta emakumeak barriro dei egin eutsan

arren, gizonezkoak bapere ez jaramonik. Han kalertzean egoan taxian sartu eta joan zan gizonezkoa.

Karol zan.

Eta bere burua lotsaz, atsekabez edo egonezinez atetan sartu eben emakumea Zeline errukarria.

Ikuskari hori erdiragarri izan jatan.

Gorkaren deia izan neban, ostera ere. Dei adiguri-tsua. Berba egin behar genduala. Museoren arduradun jarraitzen ebala.

Harenera joan nintzanean, hantxe neukan zain. Gela baten ekin geuntsan kontu esaten. Museoan elektra arloko konponketak egitekotan egoala, eta arazo hori neure eskutan laga gura ebala, bide bihurrietarik nik aldegin, eta lan jasekoan bizibidea atara nengian.

Barriztau egin gura ninduan. Bersortu, kautxua egiten eben lez.

Jordaneko uretan brist! berbatik-ara garbitzeari gaitz samar neritxon. Halan ere, eskerrik beroenak emon neutsazan.

—Gogoeta egingo dot. Albait lasterren erantzungo al deusut, Gorka.

Txurioren sareetatik behin eta betiko aldegitoko aukera aproposa izango nebala uste izan neban. Adoreak huts emongo ete eustan?

Gorkak, azken agurra egin baino lehen, amari ere, adei legezko txerea egin nengion eskatu eustan.

Gizategi apainaren atalondora eroan ninduan, eta han ikusi nebana...

Txolin bere ama andra Polpolen ondo ondotoxan egoan.

Beste bazter baten, eta ez dakit zelan, Saule eta Karol.

Begiak ilundu jatazan eta ate ondoan hurruntiko agurra eginez, neure orpoen gain itzuli, Gorkari agur epel eta maketsa eginik, antxixiketari joan nintzan haragizulo haretatik.

Polpoltar guztiak sekulako beherakadea egin eben nire estimu mailan. Ez ete ekien jakin, Karol...

Neuk ere, lar nekian. Baina erabagirik bako idiaren antzean nenbilen aro baltz haretan.

Ni ere, errudun nintzan. Baina begietan lausoa euki.



## Kaiolan

Ba etorren, eta heldu zan lan berezia egiteko eguna. Paperak ostu behar genduzan. Harako kontratua, Karolen eta txurioren onerako, seguru asko.

Gabonzaharrez, urtearen azken gauerdi aurretik izango zan. Neure gaua izango zan. Bakarrik jardun beharko neban. Solistea izango nintzan. Neure barruan egundoko burrukea neukan aldi haretan.

Ausaz, bizimodu barriruntzeko urrats gora handikoa.

Horrexegaitik.

Gau ardurabakoa eta zoroa izango zan, aspaldion ohi dan lez, uri handiko eta txikiko biztanleentzat.

Gitxi izango ziran lanaren arduraz. Gau egarritsua bai ostera, asko ta askorentzat.

Sport Klub haretan ez neban gehiago ibilterik izango.

Baina Klub haretako ezagun batek beste nonbaiten gordeten eban dokumentu baliotsua zan nik ostu behar nebana. Ixil ostu, apiztu.

Txurioren aginduak, Karolen zehetasunak eta nireak, guztiok osatzen eben nire txostena. Eta niketz, Klub apain haretan apurka apurka jaso nituan argibideena.

Abenduaren hogetamarrean jaso nituan Txurioren onuak. Aginduak, hobeto esateko. Hurrengo egunean, egunez behintzat, ez genduan alkar ikusi behar.

Ofizina batera joan behar izango neban, gau lapur antzean. Baina lehenengo egunez, iluntzean. Ez zan seniderik bako agerraldia izango. Etxe haren inguru behin eta barrero ere, kusan eta susmoan ibilia nintzan-eta.

Gauko hamaikak eta erdietan, norbait etorriko jatan dokumentu horren bila, ostubarri izango zanaren eske. Norbait hori, zirudianez Txurio bera izango.

Gau lehen haretan uriko kale nagusietan batez ere, argi txorta ikusgarriak dirdiz, etxeetako hormetan paper luze kolorezkoak.

Kaleetan ez ebilen lagun pilo handirik. Beribilak, isoburdiak, busak areago. Eta janari saltokietako mutiko bizkorrak, ausart euren txirringutsetan, gauzaz beterik hara ta horra.

Nire lanari nengoan.

Gazte apainak egurasketan, neskatila pinpirinen lagun. Ikasleak zirudien. Barriketa zaratatsuetan, tartean tartean barre karkara ozenak jaurtiz. Giro pozez beterikoa zan, gau lehen haxe.

Ofizina jakina egoan etxeruntz hurreratu nintzan. Arbola lodiaren enbor ostean norbait agertu zalakoan nengoan.

Ezer ziur nabari orduko, gure nagusi kaska motza ete zan begitandu jatan. Bestelako aginduren bat ete eka-rran.

— Melki! Adiskide!

Kalertza ilunak lanbrotua egoan, eta begiak egin ez

ebana, entzumenak adierazo eustan. Zera, gizonezkoa Txurio ez zala.

Hurreratuago, eta horra! ezagutu neban. Karol zan.

—Zer... jauna?... —erantzun neutsan—.

—Hauxe bakar-bakarrik. Agiria, ostu ondoren, ez deusazu beste inori emon behar, neuri baino. Neuri, soil soilik. Dokumentu hori ez dau bestek eskuratu behar. Ezta, eta batez ere, Txuriok berak ere.

—Ez da hori, ostera, Txurioren agindua, uste dodanez. Haren eskuetara joango zala lehenik.

—Bai, hori ere, esan zan. Baina, ezertara ere ez! Arren, egizu gehien maite dozun norbaitegaitik.

—Tira, ba! —erantzun neutsan orduan—. Zure emaztearen zorionagaitik egingo dot. Zeline gaztetxutan nire auzoko, hurrengo ateko neskatila maitagarria izan zan. Eta gaur, zori txarretan bizi dala-ta nago.

Begi handi geratu zan Karol.

Beti uste izan neban esan behar neutsan esateko hori, garrátza eta gozagaitza zan egoera hori, ereti latzen baten arpegira bota behar izango neutsala.

Begien aurrean mundu barria agertu bailitzakion, une baten geldo eta aho zabal ikusi neban Karol erdipurdikoa.

Zintzotu gurea susmatu neban harengan.

—Txuriok niri iruzur egiteko asmo ei dau. Horren haizea izan dot. Zera... Lan hau egitegaitik, sari berezirik gura al izango zeunke?

—Zelineren zoriona, bere senar eta seme-alabakaz.

Biok ixilik geratu ginan.

—Melki —esan eustan gerotxoago—. Orain une larria dogu. Egoera makala, irristagarria. Txurio hor ibiliko jaku zelatean, ziur asko. Entzun egidazu: etxe horre-

takoa egin baizen laster, zoaz atzeko kale estura. Hantxe egongo naiz ni zure begira, zure zain, beribilean. Itsu-  
mustuko jokoa egingo deutsagu Txuriori eta esku hutsik  
lagako dogu. Berehala aldegingo dot nik. Hemen dozu  
etxe bateko zerzelada hau. Txuriogaz ezer okerrik gerta-  
ko balitzakizu, jo toki horretara. Nire hango izena Lor-  
ka dozu. Hartu egizu papertxo hau.

Bostekoa estutu eustan eta beratz eta martzal esan  
eustan:

— Agur, adiskide zintzo. Txori on, eta laster arte!

Karolek aldegin eban eta ni jakineko bulegoruntz  
abiatu nintzan.

Bake santua egoan inguru haretan.

Haize apurrak orbel atzenak hara horra astinduz sor-  
tzen eban zarata makalaz aparte, beste azantz ez hotsik  
ez zan han susmagarri.

Urte zaharrari azken eztenkadak emoteko prestame-  
netan hasi zan, nunbait, uriko eta auzo haretako jente-  
ria. Afari astunen lagun, edari baltz eta zuriak eurrez  
bete-hustuko zituen. Batzuek nunbaitekoei antza hartuz,  
gaueko hamabien dangatean beste hainbeste mahats ga-  
rau jango. Bilboko ura ere, mahaiak betean ixuriko zan,  
lurrera jausteraino.

Leku izentauetan kotiloj jaiak ospatuko.

Ni, barriz...

Hurreratu nintzan harako etxera. Inguruetan ez zan  
munduko arimarik agiri. Noizean behin, beste kalean  
zehir gizonen bat edo beste. Gero, ixiltasun handia.

Kanpoko atea hertsita egoan.

Ba nekian sarrerako atetea ilun samarra zana. Argi mutil motel eta adorerik bakoa, inguruan distira hitsak aloxuan zabaldu nahi eta zabaldu ezinik. Marmaloak eta labako txoriak euren gogara ibilteko, a zelakoa!

Atadiko tirrinari bultz egin neutsan atzapar lodiagaz. Bigarrenez eta hirugarrenez ere bai. Barruan inor egoanik ez zirudian. Izan ere, nor egongo gabonzaharrez bulegoan?

Handik urrundu egin nintzan. Ardandegi batera sartu eta edari bizia eskatu neban. Kopako bi edan nituan, bata bestearen hurrena. Halan ere, ez nengoan nasai. Ezin egon, ba!

Afari kaxkar ostean, txolkada bi.

Lapurretea egitea, bai, oztoporik eta ez ustekorik gerta ezean, egingarri nebala uste neban. Lapurretan ibilteak unada haretan ez eustan kezka zimikorik barruan ernerazoten. Aspaldiko egitada latzen ondorioz sentipena gogortuta nebalako.

Beste zerbaitek ziri egiten eustan azalpean. Arbin samar jarri nintzan, kopakoak gorabehera.

Gizon biri berba emonik nengoan.

Bapatean etorkizuna baltz nenkusan. Baltz, gau haren sabel sakona aina.

Ondotxo nekian Txurio galtze zakarreko gizona zana. Eta horra! Gau haretan nire gizon berbea —ez errege berbea, Txurio petralak esan ohi ebanez— jan egin behar izango neban.

Errezoirik ete neban horretarako, neure berbea jateko?



Uste uste bako zera jazo zan ezkeru, nik ere, neure erismena neukan.

Eta batez ere, une murgil eta garratz haretan, neure borondate apurra, lapur nagusiaren agindua, Txurioren esana, neure bihotzaren eraginez, iztarpetik zertzeko.

Karolen eskabide esturazkoa Zelineren onerako izan eitekela sinestu nebanez, buruzagi zitalaren gogoa bazterrean isteko gertu nengoan, horraitino.

Ez neban lekukorik une haretan, Betiko Jauna beterik.

Eta Haren aurrean zin egin neban, giza txar batek bere gaiztakeria errimeen katai luzeagaz neurria bete baizen azkar, lepo betena emon behar izango neutsala.

Barriro jo neban ofizinaruntz. Ekin neutsan jo eta jo, tirrinari. Alperreko erasoak. Horixe komeni jatan; inor ez zedila han egon. Ixil eta erne ete egoan, norbaiten aginduz, jagola eta begirale zorrotzen bat?

Ikutu egin neutsan nire adiskide txikerrari, Txuriok itsi eustan pistolatxoari. Gertu neukan, balaz beterik, baina urtenkia atxikirik. Giltz antzeko burdina ziriak atara nituan neure sakeletik, lapur giltzak. Ziri hortik, ikutu handik, sasi-giltzaren bitartez atadiko ateari apurren bat amoremon erazo neutsan. Oina sartu neban berehala, atearen barrenean. Grask barriro egin, eta ateari bigun bigun sakatu, edegi zan eta atadira sartu nintzan.

Argiska motelaren dirdira abolinakoa eta isiltasuna, horra aurkitu nituan lagun bakarrak.

Ate nagusiko tirrina ere jo neban. Doinu maketsa, oihartzun ezereza. Lau bidar jo neban. Bardin. Dana ixilik. Ilun eta misteriotsu.

—Ez al dago inor barruan? —oihu egin neban, argi ta garbi bainiharduan—.

Ateko sarrailea bortxatu guran hasi nintzan. Kirris-kada motela egin eban, baina klaka hots zakarra entzuterik ez neban bapere errez. Ate madarikatu harek ez eban gogorik nire esanari jaramonik egiteko.

Atea edegi ezinik, barlako leihoan zehar sartuko nintzala erabagi neban. Beste leiho bateraino igon neban eta hortik hemendik edegitea lortu. Sartu nintzan ba, azkenaren buruan zori oneko edo zori txarreko bulego haretara.

Ez argirik, ez zaratarik. Etkezaina lo ete egoan? Ala, ez ete egoan han etxejagolarik, gau haretan ere? (Eta, zergaitik egongo zan, ezeren pekurik inortxok susmatu ez-ta?)

Baina, neure aldez aurreko ardurak ziran.

Linterna kaxkarra izan neban nire begion lagungarri.

Karolek aitaturiko bazterrean han egozan kutxa bi, biak burdinazkoak. Zein ete zan nire jokoari egokiona?

Kutxetarik batek buskantzean giltza sartuta eukan, zilean barruraturiko azkon zorrotza bailitzan. Hari ez neutsan jaramonik egin. Gauzak ez dira errezegi zerturik egoten.

Beste kutxeagaz izango neban neure hartu-emon.

Han alboan egoan zurezko mahaiaren kaixatxo zapalak arakatuten hasi nintzan. Banan banan. Atara, ondo begiratu, aurre, atze, alboak kanpo eta barrua, azpikaldea. Ezer ere ez. Paperetan ere, nik gura nebanaren azterrenik ez.

Mahaiaren beste aldeko kaixatxoak aztertu eta aztertu. Lanaren saria! Hareetariko batek, azpian, eperdian, lapitzez eginiko zenbakiak eta letrak eukazan. Kutxa horretan bertan idoro neban bila nenbilen giltza ere.

Han neukazan euki, kutxa gotorra edegi ahal izateko jakin behar nituan jirabueltak.

Honetan, iskanbila zerbait entzun neban han inguruan. Ikaratu nintzan era batean. Atezaina ete etorren, eta txinelak, polizigizonak eta...

Ilunetan ixil ixilik lotu nintzan.

Ez dakit zer izan zan. Zerbait nunbaitetik jausi ete zan, kanpoan haizeak negar egin ete eban, katu bihurriren bat saguaren atzetik, gabonzaharreko atzen afaria haragi samurrez ospatu guran...?

Zertu neban barriro nire linternearen argi hits eta ahula.

Irakurri eta irakurri; baina zertarako buruz ikasi? Hori ninotsan neure buruari, baina buruz ikasi neban. Bai.

Giltza zart! bere zuloan sartu neutsan kutxa gotorriari, beste albokoak eukan antzean.

Eta une haretan, arauak erabilten hasi.

«Zutinik. Hamairu ezkerrean, hamabi eskoinera; zazpi ezkerretara; eta hiru ta erdi...»

Eta... Ixilik. Barruko burdinazko txakurrak ez eban kalaka-hots mirrinenik egin. Giltza gogor egoan, artez sartuta. Baina esku-kisketari zirkin eragitea alferreko lana.

Uste bete betean, ekin neutsan barriro neure arloari.  
Axola eta arretarik handienez, egundo ba!

Eskuturreko erlojuari begiratu neutsan. Ondo jota  
egozan gabeko hamaikak. Beranduegi ete nenbilen?

Eta hirugarrenez ere.

«Zutinik... hamairu, hamabi...

Geldiune larria, nekeak berehala gogaitzen gaitualako.

... zazpi... eta hiru ta erdi...»

Klaka! barruko txakurrak. Sinestu ezin.

Ate lodiari gogoz oratu neutsan; bira eragin kisket  
motzari, eta... glang! hots beteagoa entzun neban.

Teinkada sendoa egin neutsan eta atea amore  
emon, eta edegi egin zan.

Besoagaz txukatu neban bekokiko izerdia. Eureka!

Lipar baten ixil eta geldi egon nintzan. Arnasea bete  
ezinik, zoriaren zoriz.

Neure linterna sostorra lagun, kutxa gotorraren sa-  
bela eta barruko hesteak ikusten hasi nintzan. Paperak,  
karpetak, liburuak, edozetarikoak egozan han.

Polito polito gauzak tokiz aldatzeari ekin neutsan.

Karolen hitzak gogoan nik. Nik gura nebana ba-  
rruan eukana, karpeta azal gorriluna eukana zan.

Bata, bestea, hurrengoa...

Azal lodi bakoitzaren buru buruan, ganean edo biz-  
karrean nik ez nekizan berba, izen, deitura eta hainbat  
zirriborro irakurten nituan.

Barrukaldean, zer esanik ez.

Ikusiz ikusiz, ekinaren ekinez, hantxe idoro neban bila nenbilen azal-zorroa. Han egozan idatzirik, nik alde z aurretik nekizan zerok: «Exklusif B.H.M.»

Beste karpetakandik alderatu eta mahai ganean jarri neban hainbeste nekeren aurkikundea. «Exklusif B.H.M.»

Begira ta begira egon nintzakon.

Barruko orriak frantses idatziak. Gaztelaniaz ere bai.

Sport Klub zan haretako ene adiskidtxo barriak aho bete hazurrez lagako nituan.

Behar neban karpetea ez beste zer guztiak, barriro kutxa barruratu nituan, azal, liburu, erroalde, zirriborro...

Egoan egoanean laga neban guztia, ahaleginez.

Kutxa gogorraren kisketari indar, eta jirabira batzuk bere zerean egoanean eragin, eta glang! ostera be. Bihorraldi gehiago kirten biribilari, giltza atara, harako kaixa apalean sartu, eta prest nengoan atzeruntzeko urratsak egiteko.

Azal gorriluna soinean neukan jerseiaren barruan sartu, jerseia prakakaz gerrian estutu, eta aupa; sartu nintzan leiho haretatik urten barla estura, bigarren leihoa igaro eta mailadian behera joan nintzan.

Neure linternatxoaren argia ez neukan saltzeko. Moaduetan lagundu eustan.

Atadiko ate lodia edegi eta kalean gizon baketsuaren antzera agertu nintzan. Harro nengoan. Ostera, bapatean kezka barrabasak jo nenduan.

— Errezena egin ete dot?

Ikaraldi bat garaitu, eta beste batera ninoian.

Gizon bi nire begira egozana ondotxo nekian.

Etxearen atzeko kalean han egoan beribila. Hurreratu nintzako. Karol egoan barruan. Azal gorriluna emon neutsan, beribilaren leihoan zehar. Aguro eskuratu eban paper bilduma baliotsua. Pixu arina kendu neban nire eskutik. Pixu astuna, beruna lakoa, neukan bihotz ganean.

—Orain, Txuriok zer egingo ete dau? Zer entzuteko ete nago? —esan neutsan Karoli—.

—Egia esan egiozu. Gura ba zendu, bihartik bertatik neure ardurapean lan egin ahal izango zeunke.

—Bihar... Lorka baitan egongo al zara?

—Zuk hantxe galde egin nizaz. Eskerrik asko, adiskide zintzo. Laster arte.

Karolen beribil arina urruntzen ikusi neban.

Motor barri eta ixila, ez eban ezetariko zalapartarik atara kale erdi ilun haretan.



## Sumin

Zeru aldean ez egoan argitasun handirik. Gau goibela zan. Nire barrua, ostera, goibelago egoan, hilago.

Aurretiaz susmatu neban nire gain batu-hurren egoan ekaitza, eraso, sumina. Gozoa jarri ohi zan Txurio bere egitamuak okertzen jakozanetan.

Bardin zan. Aldakuntzea egitea nik neuk ere, erabagita neukan. Ausaz, berberak emongo eustan beta egoia, aukera mamina. Ez neban atzerarik egingo. Ezta ezergaitik ere. Orduan, alferreko izan eitekean ai-eneka hastea.

Asmo eta susmo, tximistea lez igaro ziran nire adimean zehar.

Beste kale bateruntz joan nintzan, kaska motzak itxaron behar eustan tokiruntz.

Han egoan txoria.

Komeni izaten jakonean, harek hutsik egin? Baita zera ere!

Alkarrizketa sumin garratza sortu zana, gogoan dot.

— Zerak? — itandu eustan —.

— Zerak? Zer bat bakarra. Ez daukat hemen.

— Nun, ba? Ez al...

— Karoli emon deütsat.

— Zeeer...? —jardetsi eustan nahastauta, harriturik, haserre—.

— Ez al neban horixe egin behar? —ene burua zozo eginez—.

— Ez. Ezelan ere ez.

— Paper horreek harentzako ez al ziran?

— Bai, hori ere bai. Baina neu naiz zure ugazaba.

— Bera egon da nire zain, eta harek eskatu-ala, emon nik, jakina.

— Jakina? Txarto egina.

— Horretara ezker...

— Txarto eginak, berea dau sari bardina.

— Zelako berbak! —erremuskadea egin neutsan—.

Txuriok horraitino ez eutsen nire azken berbei erantzun.

Ixilaldia trumon aurrekoaren antzekoa begitandu jatan.

Buruera behin behineko eta zitalen bat hasi jakon kaskoan irakiten. Ziur.

Zemaia ganean nebala-ta nengoan. Sabelpeko azalak tximurto jatazan. Eroamenez jokatuko nebala erabagi neban, eta ez nintzan bildur izan unetxo haretan behintzat.

Urrats batzuk egin genduzan. Han, hurre samar, taxia egoan, gure zain, antza, buruzagiak ekarria.

— Bide barriak hartuko ditugu —aitatu eustan honen—.

— Zeintzuk?

— Geure tokirakoak barik, kai alderakoak.

Beribilean sartu ginan. Geroago, ixil antzean, txoferrak ezer entzun ez egian, harek berak lehenago itxi



eustan pistolea eskatu eustan. Ez zan nirea eta emon egin neutsan. Artean ere, beti ni galtzeko. Nunbait, urrun egoan orduan ere, nire ordua.

—Zelan dago?

—Lehen lez. Beterik. Ez dot ezertarako ere behar izan.

—Inor ez al egoan?

—...

—Zer guztiak, esan genduan lez?

—Moduren baten, bai.

Jakin gura ebanaz jabetzeko, berba labur eta zuhurak maite zituan Txuriok. Gure gizona ez zan itaune ugari zale.

Horretan, harrokeriak erreten eutsan barrua. Menpekoek bai, guk berba ugari egin behar genduan, gora-beherak azaltzeko, gauzak euren zer osoan ulertu ahal izateko.

Harek berak, ez. Jakituriaren lapikoa zan haren sorbalda ganeko hazur biribila. Adimena, gomutea, argitasuna, borondatea, elementu guztiokaz hornidua ebelatzen bere lapiko hori, behin baino sarriago entzun geundutsan.

—Lana egin dauanak, irabazi ohi dau. Eta zuk ere...

Amaierako berba etenok neure bost senakaz azterkatu gura izan nituan.

Niri buruz ziharduana jakin nekian. Lana... saria...

Txurioren mihinean eztena susmatzen neban. Zirto

eta burlezar ziharduan. Dardara ixila ebilen nire narrupean. Bildurrik ez neban azaldu nahi, horraitino.

Damu izan nintzan, barriro ere, neukan iskilo txiki polit haxe kaska motzari bihurtu izanaz.

Sakelean giltz batzuk eta linterna motxa, besterik ez neukan.

Gure burdia arin eta bizkor joian.

Behingoan heldu ginan ontzi handiak han hor hemen egozan alderdi haretara.

Beharrik, kaieko ostaturen baten egingo genduan lan eginbarriaren ondorengo afaria; edo, berandu samar zanez, sorgin-afaria.

Moila ganean gengoan. Lurrera ginan, Txuriok taxidunari bere zera ordaindu eutsan, eta han joan ziran taxia eta bere erabiltzailea.

Brastadan adierazo eustan:

— Gabarra horretara joan behar dozu orain.

— Ni?

— Bai. Besteak ere hortxe batuko ditut.

— Zertarako? —itandu neutsan—.

— Hortxe dagoan saria jasoteko.

— Nork itxi dau, ba?

— Uuuuu... zerak... Karolek. Horretara egin neban, edo egin genduan tratua. Zoaz zeu lehenengo.

— Eta zu? —galdegin neutsan, haren erantzuna jakin guran.

— Ni... hemen geratuko naiz. Besteen zain.

Belarrietan mila haizek txistu egin eusten. Halan ere, denduz eta bare, aurreruntz ninoian gabarra zahar handi bi egozan tokiruntz.

Astiro ninoialako, Txuriok zaparradea egin eustan:

— Zoaz aguro, eta ez atzeruntz begira ibili, karabine-  
ruen arretagarri izan ez zaitez. Ez daitezela ezertaz  
konturatu.

Gauak ilun zirauan. Jendearentzako ordu zoro poz-  
karria ganean egoan, ziur asko.

Nik, moila ertzean bertan, mutur lerroan, aurrera  
ekin neutsan. Zain-joa izan neban, eta eskerrak!

Dana batean izan zan. Atzera begiratu nik, Txurio nik  
uste neban posturan ikusi eta...

Brast! uretara bota neban neure burua; tiroa entzun  
neban unean bertan, «Aiiii!...» oihu larria egin neban.

Ur hotzaren laztan hezoak zarradea egin eustan gor-  
putz osoan.

Ez nekian, zelan jakin? bala haren itua neu izan nin-  
tzan ala ez. Dzangada ostean, zertu nintzan eta arnasea  
zabal eta luze egin neban.

Une haretan ontziak durundiz hasi ziran. Goieta-  
runtz, txapliegoak eta bengalak ere, hegan egin ebela zi-  
rudian.

Txistu, durundu, leherkaien eztanda hotsak ingurue-  
tan eta ni igari estutasunean, uste uste bako bainu darda-  
ragarrian.

Adoretsu nengoan, eta murgil egin neban eta moila  
ertzetik urrunagoruntz joan. Zingo handian nengoan.  
Gabarra bien tarteko uretan izan neban une haretako  
koltxoi biguna, baina hotza ta hezoa. Beste askok euren  
barruak txanpanez bustiten zituan unean, nik kanpoko  
ur gazi baina zikinean neukan neurri bagako edari botei-  
lea.

Bai. Gabarra auzoek egiten eben kalean neukan or-  
durako nire gordelekua.

Buruak adierazo eustanez, Txurio moila ertzeruntz hurreratu zan. Ixil samar nenbilen arren, akaso zarataren bat harek entzun edo; behintzat, zelatean ziharduala ikusi neban. Gabarrapetik luzean igaro eta beste aldera jo neban.

Urpetik burua atara neban, eta barriro haizez bete nire biriak.

Txurioren oinotsak entzun nituala uste izan neban; gabarran sartu zala eta han ebilela batera bestera, zer ikusiko; zer entzungo.

Ganean neukan euri-txartesa, neure trintxera lodia zelan halan erantzi neban. Ontzi gilbortsuen inguru ur ganean zabal zabal geratu zan.

Harek, linternea biztu eban eta nire bila ziharduan. Entzumen ziurrekoa zan-eta, nonbait plisti plastaren bat susmatu Txuriok, eta beste tiro bi entzun nituan.

Nire trintxera zikinak hartu zituan eta gorde barik laga gure kaska motzak jaurti eutsazan berun biribil-txoak.

Ez neban nik neure gorputzean, bala zorrotzak egi-ten dakian min zartadarik sentidu. Sastakadarik ez neban susmatu. Txori onez.

Baina, komeni zana egin behar nebala-ta, itoaren imintzioa egin neban.

— Glu-glu-gluuu...

Ito-hurren dagoanak bere borondatearen kontra egin ohi dauan hileta aurreko soinu ilun hori, nik neurez, zaratatsu, zeharo gogara egin neban.

Gero, ixiltasun biribila gure inguruan.

Purrustila haizez beteak joan izango ziran itsas barrukaldetik azaleraino. Ez dakit ur zikinean eta gauaren

iluntasunean ikusi ahal izango zituan ni garbitu gura izan ebanak.

Adar-hotsak, txistuak eta abarrak emetzenago, ibitzenago zertu nituan. Harik lasterrean, orduantxe bai, sekulako ixilaldia kai alderdi haretan, eta urrunago ere.

Ixilunea eta bakartadea nitzat, han, gabarra bien tartean.

Nun zan Txurio? Nora zan?

Hantxe, gabarra artean, atzazalak zeharo mindutearaino iraun neban, laparik jatorrena bainintzan.

Nekearen gehigarri, hotza neban. Hotzak galdu behar ninduan. Makaltzen hasi jatazan indarrak eta odola. Ezin neiken luzaroan halan iraun.

Han ete egoan, bere arma ta guzti, nire galtzailea?

Zerbait tokiz aldatuz, gabarra zaharraren lokarri lodiarri oratu, gorputza nagi, dardaganean; iztarrak eta oinak noizean behin astinduz; besoak, ostera, azkor nituala, baratze baratze joan ninoian moilarantz, lokarriari eutsita beti ere, nasa gogorreko harmailetaraino heldu nintzan arte.

Bihotzaren taupadak gero ta motelago. Unatua, albetan ete nengoan buruak emon eustan. Larri, hotz, indarga, azkenaren zerean, iluntasuna egingo ete jatan bildurrez, konortik barik geratuko ete nintzan. Axanpa mingotsaren mingostasunez.

Ingurunean ez zan inor agiri.

Harmaila baten jesarri nintzan. Jesarri ala etzun, bardin jatan.

Nire erailea, anartean ere, nire zain ete egoan? Herio-  
tzape epaituak, eri, gaixo nahiz zauriturik egon arren,  
osasunez desente jarri arte itxaroteko ohitureari adi jo-  
katuko ete eban Txurio zitalak?

Buruko hazurrak loka eta zirkinka neukazala ere,  
egin neban.

Halako heriotza single ta ziztrina izan neikenik ez ne-  
ban egundo sinestu. Ez. Ez neban horrelakorik sinestu  
behar.

Horraitino, itsas ertzeko moilako harmaila ganean  
luze, jantziak bustita, maminak dardar hazurrak hotza-  
go... harako gabonzaharreko gaua!

Ez neukan ondasunik bapere, eta eskribauaren pre-  
minarik ere ez.

Zelineren onagaitik egin neban.

Damu nintzan, ostera, Txuriori merezi izan ebana  
emon barik neu halan amaitu beharra. Kaska motzaren  
tiropean izango ete neban ganora bako azkena?

Ahalak eta lerrak egin nituan nengoan harmailatik  
jagiteko. Haxe zan makalaldia! Gorputza etenda; bai-  
na... arimea hil ezina izan!

Mailetan gora hasi nintzan, baldar, indarga, nagi.

Belarriak adi, begiak zabal nengoan.

Gizon handi bat ikusi neban. Niganuntz etorren.  
Handi handia zan. Ez zan Txurio! Arnasea...

Hurreratu jatanean, intziria edo berbea egin neban.

— Lagundu...!

Garbitokiko arimearen berba lastimosua entzun harek, nonbait eta...

—Zer da hau? —itandu eban gizon sendoak, baina frantses mintzairan.

Gizon ederra zan, jagia, trinkoa, egundoko morroskoa. Itsas gizona, ziur asko.

Berehala egia zan lez eta zan ginoan adierazo neutsan. Gure arteko nahaste borrarsteak, zemaiak, heriotza arrisak. Kontuak garbitzeak, gure gisakoen argotean, kalamatrikan.

Bretoina zala esan eustan. Marinela. Ontzi handietakoa. Monparler maitagarriaz gomutea izan neban.

Soinean eroian jantzi lodia erantzi eta niri emon eustan.

—Zatoz. Zabaldu besook. Sartu!

San Martinen kapea neugan neukala sinestu neban. Eztitan nengoan, neure premina gorri haretan.

—Zatoz neugaz —esan, eta besotik oratu eta alkarregaz joan ginan, aspaldiko adiskide jatorrak baiginan.

Amultsu eta erne, zigarrotxoa eskeini eustan. Harek berak pipa galantean tabakua sartu, eta erreten hasi zan. Biok erreten. Zelanbait, lehenengo berogarria suaren eta keiaren bitartez izan neban gau haretako urtebarri hasiera ilunean.

Bretoinari eskerrak.

Inguru hareetako barri nik baino hobeto ekian. Ardadegui zazkar baten sartu ginan. Hangoa bai giroa, apaltasun ereduko izan arren, kanpokoaren ikusian!

Han etxekoa bailitzan, marinela bihotz zabal harek sukalderraino eroan ninduan. Rhum edari gogorra eka-

rrierazo, eta kanpo eta barru oparo igurtzi ninduan, hori, hasiera besterik ez zala.

Aldagarriztat barruko zahar bat eta alkondara iluna laga eustezanean, neure soinekoak kendu negizan, albo-ko gelara eroan ninduen. Biloiz jarri nintzan eta jantzi barriz zertu.

Barriro suetaratu eta sartainekoa jan genduan. Ogia eta ardaoa ezan falta. Madari handi bana, gero. Eta barriro ekin rhum lehengoari, kafe bero beroa txikaran geunkala.

Gora igon, eta han, gela estu bateko ohe zabalean sartu ginan biok, kunplimenturik barik. Mundu latzeko gizonak ginan eta, zeri mizkeriarik?

Giza berotasunez alkar berotu genduan. Gudu gogorretan ohi dan lez. Gudari jasankorrek lur hotzaren ganean, bi edo hiru lagun alkarren ondoan etzunda, alkar berotzen daben gisan. Egia esan, harek berotu ninduan ni, eta edari sendo haren zurrutada luze luze harek.

Ba dakit lo nasai egin nebana.

Nik ere, uste uste barik, neure bizkar-jagola morroskoa aurkitu neban-eta. Bizkar-jagola atxikiagorik, ezin. Lotan ere halantxe egon ginalako: bizkarrez bizkar.

Amak lo eragin deutsan umeak ainean atsedean nasaia gozartu ondoren, argi-urratzea umezaroko goizerik harrigarriena lakoa izan jatan.

Begiak edegi, nire narrua balaz zulatu barik egoela egiaztatu eta nire lagun urgazlea hain lo betean zurrun-



gakada ohartzean, bigarren loaren zurrunbilan murgil-  
du nintzan, ez gose, ez hotz, ez bildur.

Ordutik dakit olerkariak kantatu eban goizaldeko  
loaren ederra, loaren gun zoragarria, emazterik alboan  
ez izan arren.

Ohekide neban ene samariar bedeinkatuari begiratu,  
lo betean egoan bretoin gizon zintzo hari, eta barru ba-  
rrutik esan neutsan, nahiz-eta harek ez entzun:

— Jaunak bedeinkatu zaizala orain eta beti!



## Bitarte

Makalaldia izan neban, horraitino. Nire osasuna guztia beharreko bihurtu zala uste izan neban.

Karolek laguntzen eustan diruz. Harrezkero, ez neban Txurio ikusteko betarik izan. Ezta gogorik ere, orduan behintzat.

Anderrain antza izan neban, biri-azala maxkar. Unada haretan kilikolo ibili nintzan, jateko gogorik ez, adorea urri.

Mendiarteko basetxe batera jo neban. Bide zabaletik aparte egoan, zer gerta ere, gure baserritar jatorren gizar-tean apurka apurka sendatu nintzan. Basetxean elektrika zerak artez ipini eta gehitu ere, egin neutsezan. Bazter guztietara eroan neutsen gaberako argitasuna, hari luzeak erruki barik ipiniz.

—Jauregia dirudi, hainbeste argiz, gure basetxeak orain —esaten eutsen etxekoek panparroikeriaz auzoko baserritarrei—.

Barreak egiten genduzan.

Han aspaldian lo euken erloju luzea ere, konpondu neutsen. Etxeko umeak zoraturik egoten ziran dilin luzeak eta zoliak entzunez. Auzoko kakanarru guztiak ere, pozik etorten ziran kontzertu bardin samarra entzutera.

Agur egiteko unea heldu jatan, eta atsekabez laga ni-

tuan etxeko eta auzoko. Hareek batak be ez ekien nire ordurarteko bizi aldi bateko lazturarean barri. Zori onekoak hareek, eta ez ni.

Uri haundira nintzan barrero.

Karolek ingurak egin eta ardandegi handi bateko sotoan, lurpean edo, zerbait arazo eginez jarduten neban egunez, jentegandik ostenduta, hango edale bezeru eta abarrak ikusteke. Satorraren antzeko bizitzea, labur esateko.

Harako «Lorka» horixe zan.

Horrelan ba, Txuriogandik zeharo urrundu eta ostendua nengoan. Etxe haretan bertan lo gelea eskaini eusten. Bapo, Txurio... Harek ez ekian ni urpean ala lurpean nengoanik.

Bai. Lurpean nengoan, lurpean nenbilen, baina bizirik.

Bizirik eta egun garaiaren zain.

Jainko handiaren antzera, nik ere ez neban batere es-turarik zuzentasunaren eguna goiz ala belu helduko.

Heldukizun zan. Horixe sinesturik bizi nintzan. Eta nahikoa izan aldi haretan nik.

Sotoko lanak arruntak ziran ete neke handi bakoak.

Kupel gilbor hedatuak ardauz beterik ekarten ebe-zan, eta nik, han sotoan, polito polito boteiletara aldatzen neban mama gozoa. Boteila erduetara aldatzen neban eta txikerragoetara ere bai. Gerri gerrian paper politak ezarten neutsezan, edaleen pozgarri izango ziranak. Kortxo guztiz onak, eta ganeko txapel dotorez jaz-

tean erakusgarri geratzen ziran nire eskuek buruturiko laneginak. Boteila dotoretu hareek gure ardandegian ezezik beste edaritegi batzuetan ere, estimau izaten ebezan. Ez neuk esateko, baina...

Harrezkeroko guztian Karol esker oneko izan zan niganaz.

Ez neutsan galdetu, eta ez nekian anartean, nire arriskubidea izan zanaren ordezkari neutsan berbea beteteko ahaleginik egiten ete ebanentz. Zera, bere emazte Zelinek zorion apurra gehitzeko aukerarik eta modurik eskaintzen ete eutsan.

Ez neritxon egoki. Haren laguntasunpean nengoan. Eta egun hobeen begira.

Ez nintzan, horraitino, satorren antzera sekula santa bizi izango. Ausaz, Lazaro nintzan, zuloan sartua, baina ustel usainik eta kiratsik bakoa.

Ez zan gitxi, ikusiak ikusita gero.

Egunen joaneran, gau baten ni neure lekuan, neure sotoan nengoala, han goian edate gizategi hedatsuan, berba eta berba ziharduenean artean, Txurioren ahotsaren mintzura gorrotagarria entzun nebala uste izan neban.

Odola zanetan gora goraka hasi jatan.

Bertatik gora igon eta gizon petral hari samatik oratu eta oiloari lez bihurtzeko gogoia izan neban.

Neure zorakeria garbia izan eiteken, Txurio aldean armarik bage egongo ez zalako.

Eta... komunetarako beherako mailaditik ez baina sotorakoa soilik zanekoan behera norbait etorrela uste izan neban. Aurki, Txurio bera izan eitekela.

Arnasea eten jatan. Ez nintzan kikildu, ostera. Lehenengo ta behin dart! argia itzali neban eta katu esturatuaren antzean jarkiteko prest jarri nintzan. Mailadi erdiuneko zabalkora igon eta han ilunetan egingo neban neure esku jokoa. Hantxe itoko neban kaska motza.

Lilura ustela, horraitio. Pausu hotsak amaitu egin ziran. Argia biztu neban. Katu biak ebiltzan han kartoi batzukaz zipirri zaparra olgetan, geure katutxu biak.

Izerdi likinez neukan gorputz osoa. Pentsatu ere...!

Ez neban lo gozorik egin gau haretan. Txitean pitean itzarraldiak eta ames gaiztoak; lo errea, egia esan.

Eta «otsoa aipatu, otsoa agertu».

Goiz baten, kalean ibiltaldi txikerra egin ondoren, neure soto ilunbezura ninoiala, Txurio ikusi ez neban, ba?

Begiak igurtzi nituan lazkiro, ea gaueko mamoa, ames mozorroa edo iratxo baltza ete zan. Nire bideez kontrara etorren. Zaharrago begitandu jatan.

Zaharrago begitandute hori, bestelan ez ete zan? Zera, zahartu nintzana neu ez ete nintzan.

Ez etorren bakarrik, ostera. Haren ondorik Birbiz etorren. Eta atzera samar Gibelurdin.

Hareek ezagutzen baninduen galduta nengoela uste

izan neban. Bat hiruren aurka. Arpegian neban bizar sastrakea gorabehera, zergaitik ez ninduen ezagutuko?

Nundik joko, zer egingo, zer asmatuko nengoala, aurrean ikusi neban lehengo zulora sartu nintzan.

Ez zan edozelako zuloa, ostera.

Han kaleko espaloi ertzean bertan kapitone orga sabel handia atear ziran gino zabal zabal zituala konturatu, eta goruntz jauzi egin eta buruz aurrera sartu nintzan. Erredize batzuen atzean kokoriko jarri eta zelatean hasi nintzan.

Ba etozan, ba etozan hurrengorik hurrengo hiru morroez zantar hareek. Parera heldu ziran eta euren bidetari ekin eutsen.

Ni kurika, badaezpadan. Horra! Handik laster geratu egin ziran eta hirurak batzandurik, berbetan hasi.

Usaina hartu ete eben katu-txakur hareek, ni neu sagua izanik?

Barru barrura sartu nintzan. Langileek bapatean traste gehiago ekarri eben kapitonea, ugari eta bras-tadan. Kanpora urtetea erabagi nebanean, altzari ekar-leek atzeko ate biak itxi zituen. Katigu geratu nintzan. Motor zakarra martxan jarri eben, eta tarrant tarrant, ezusteko ibilera gazigozoa egingo neban. Txoria kaiola ilunean, bakartadean... Sekula halakorik! Zeinek esango niri...!

Han barruan ostera, haizerik ez egoan, eta bai motoretiko gas edo zana zalakoaren hats zakarra. Zorabioa egingo jatala-ta, estutzen hasi nintzan.

Ibilaldia luzea ala laburra izango zan ez nekian. Ixilki geratu ala zarataka hasi. Kapitonearen ormea jotetari ekin neutsan. Entzun? Bai zera!

Horraitio harik lasterrean geratu zan. Motorra ere, aertu eragin eben, antza, eta ixildu zan.

Grin-gran, gizon langile hareek atea barriro edegi zituen. Beste nunbaitera heldu ginan. Ez nekian nun zan egotaldia. Baina kale zabalean ostera ere, kurik egin eta ikusi nebalako.

Altzariak atara eta espaloian lagaten zituen. Aldra bat atara ondoren, etxe baten sartzen hasi ziran.

Nire biriak haizez bete, nagiak atara, eta lehenengo aukeran kalera jatsi eta anka egin neban taxi handi hare-tatik, Jonas txikerra bainintzan.

Begira ta begira atanda egin neban eta ba nekian nundik nora ibili neure sator zulora bihurtzeko.

Baretu nintzan arren, ez nengoan neure buruagaz konforme. Ahari topeka guztietan atzera egiten eban aharia neu suertatzen nintzan beti.

Eta hori ere, ez. Gauzeak aldakuntzea behar eban.

Gertu nengoan azken kartutxoak jaurtitzeko. Baina ziur, zuzen, onuraz; ez ganora barik. Horixe ez!



## Batzarrerako deia

Harik lasterrean Karolek adierazo eustanez, Txuriok batzarrera dei egin eutsan.

Agiri zanez, Txuriok Karolgandik diru gehiago lortu gura eban. Harako Exclusif zeraren ondorioz Karol dirutzan igari ete ebilen, eta diruzale edonor izanik...

Harek diru gehiago gura. Horraitino harek berak nigaz eukan zorra, hor konpon! Horren ardurea, izan ere, zelan eukiko eban nire gomutarik ere, ez eban-eta? Tetuanera joan nintzala, eta akabo.

Ni, ostera, ez nintzan Tetuanera joan. Han nengoan. Gehiago zana. Han nenbilen kalean ere nasai, batera bestera, bizar luzea okotzean eta matrailetan, betaurreko kristal berdeak sudur ganean.

Iluntze baten Karolek jakinerazo eustan eskaria, eta hori konponduteko batzarra egin beharra agertu eutsala.

Ni, Karolen alde nengoana honek ondo ekian.

Horraitino argi ta garbi adierazo neutsan zer hau. Arazoa behin eta betiko atondu behar genduala. Txuriori belarriak berotu baino gehiago egiteko ere, gertu nengoala.

Bizkar-jagola izango nintzakola, esan neutsan Karoli.

Baietz erantzun eustan.



Nortzuk batzandu behar ziran? Buruz buru izango ei zan harako azken bilerea.

Nire eretia gero ta hurrerago susmatzen neban. Eskuak gozaro igurtzi nituan. Pelota jokoa hasiko genduan.

Ta ganera, neu izango nintzan esku.

Sake zitala botako neban.

Txuriok jaso ezin halakoa. Jaungoikoaren egia!

Ni orduan Karolen alde jartea az zan diru kontu soila. Zelineren zoriona ere, ahazturik ez neukan arren, ez zan. Jardun izan neban harako Kixote berri antzean, emakume aratz eta garbiaren aipu ona zikintzen edo atsekabatzen ziharduanari zuzentasuna, neure modu berezian, irakastekotan edo ezartekotan.

Etoia zan Karol, senar etoia, zintzoa ez zalako.

Beste zera, ostera, Txurio barrabasa, nire bizia diruagatik hondatu gura izan eban etoia zan.

Etori biren erdian, traidore pare bitan zertu behar neban ezkerro, Txurioren kaltez areago jarri nintzalako, Karolen alde jokatuko neban. Goenean, neure buruaren alde.

Zeline, nirekiko, galdutako ondasuna lakoa zan.

Baina Txuriok ez ninduan ni galduko. Lehen egin ez ebana, ez eban geroago ere egingo.



## Erabagia

Txuriok nire bizkardunari eskatzen eutsana ez zan ahuntzaren gaberdiko eztula. Bizkarduna dinot, ni haren bizkar-jagolea nintzalako; Karolen bizkar-jagolea.

Dolarretan gura eban, ganera.

Txurio western zalea zana esanik dot. Ogerlekoko elaberriskak irakurten zalea.

Neuk apiztu neban harako azal gorrilunaren buzta-na, luzea zan, nonbait. Amairik bako txantajea ekarren kaska motzak eskuartean.

Iturburua neuk bilatu eta idoro, eta urak beste uber-ka batzuetan zehar joan behar ebela, hori ere ba zan, ba!

Nik egin lana, eta besteek... jana.

Diru mordoia emon ezean, mehatxua ta zemaia nire nagusitzako barriari Txurioren aldetik.

—Zer egingo dogu, Melki? —itandu eustan Karo-  
lek—.

—Zer egingo? Ondo lotu zekor hori! Arerioak dei egin deutsu, bai, eta ez deutzazu bizkarrik emon behar; bularra baino. Ba dakizu esana, «ihesi doan arerioari, zi-darrezko zubia». Baina, ez. Zubian zidarra barik, taketa ipiniko deutzagu. Baina, dirurik... Kia!

—Erdia, edo?

—Ezta erdia ere. Diru mordo hori nire arnasearen

salneurria dozu, nire biziaren, nire bizi ederraren izari murrizta. Bizia kentzeko ahaleginak egin zituan harek nigaz. Ni erail eta orain, ganera, harako dirua gura dau. Nanai! Ez dago horrelakorik!

— Bildur naiz, Melki.

— Ni ere izan naiz. Eta lotsaz dinot bildurregi ere izana nintzana. Lar izatea kaltegarri danez, bildur lar izan dodalako, orain nik izua eta ikarea aldebat laga ditut.

— Biler horretara joan egingo al naiz, beraz?

— Bai. Joan egingo zara. Ez bakarrik, horraitino. Neure gain hartzen dot estrategia eta taktika osoa.

— Diru ta guzti joango?

— Hori... ganeko egunetan asmatuko.



## Bakartadean

Uri handitik urrunago egoan toki baten izango zan tratante bien tratua. Etxe bakarra, bide zabaletik hurrean egoana, horixe batzar leku hautatua.

Neguan ez zan inor bizi. Udan ere, ez beti.

Txuriorren itzulinguruz lortu ei zan erreztasun hori.

Etxearen foto irudi polita, alde batetik egina, bialdu eutsan kaska motzak Karoli, eta mapatxo baten marra-txo barruan hesiturik. Uritik aintzirara bidean, zubi nagusitik hiru kilometrora, joaneran ezkerretarà.

Argazki txikarra ikusi neban, baina neure begiz eta neure oinez ikusi eta zapaltzea gurago izan neban. Pape-retako zerak eta idazkizko aginduak baino berbazko esanak eta tokiko azi-orraziak neure begiz zertzea, beti bai beti egokiago izan jatalako.

Arriskuak, honeek zelan saihestu. Alde onak, honeetaz zelan baliatu. Hau da, on-gaitzei tokian bertan haz-tamu egin.

Beraz, ba nekian bilerea nun izango zan.

Noiz izango zan ere bai.

Nire janzte modua eskekoarena izan zan. Soineko zarpil, bizar sasitsua, betaurreko ilunak. Bizkarrean,

saku zikina. Makilea eskuan, biderik bide joan nintzan bilera eguna baino egun batzuk lehenago, etxe bakar harretaruntz.

Nagusi barriari —bere emaztea maitagarri jatan-eta— zelanbait lagundu guran.

Lehengo nagusi gaiztoari saputzetik oratu eta musturrak lur latzean marruskatu nahian.

Nahikoa urrundik begiztatu neban etxe bakar jakina. Han egoan. Hurreratu nintzanean, leiho guztiak itxirik zituala konturatu nintzan.

Eguzkiak ez eukan indar handirik, eta ibileran ez nintzan ez hoztu ez berotu.

Batean hurre samar, hurrengoan urrunago, etxearen inguru-minguru ibili nintzan, bidertzean eta burdibidean goruntz, burruka lekuaren hazpegiak, sakon eta konkorrak ezagutuz.

Beribilak noizean behin bizkor joiazan bidean zehar.

Oinezkorik gitxi, zaldizkorik gitxiago.

Arratsaldean, oster, Gibelurdin begiztatu neban, etxeruntz etorrela. Lehentxoago kamioi bat igaro zan, eta ni geldiunea egin ebanaz konturatu nintzan. Hantxe etorri zala uste izan neban gero.

Aspaldi haretan ikusi bakoa, lehen baizen bizkar eder egoala nekusan.

Bidertzera nintzan eta harri mokorrean jesarri edo.

Nire parera zanean, arratsalde on! esan, eta hurrena, zigarrotxo bat eskatu neutsan, ez lotsa ta ez bildur, nirea ez zan berba motelez, sudur mintzo antzekoz.

Aldakera hori zerago egiteko, aurretiaz ahoan harri koskorra sartu neban, Demostenes atzekoz-aurrerakoa bainintzan.

Ez jatan komeni nire lehenago lapur lagunak ni eza-  
gutzerik.

Gibelurdin kirtentxoa zan arren, barru onekoa izan  
neban beti.

Harek emoniko tabako ziria eskuan neukanean,  
—Sugarririk ere, ez dot, ba —gehitu neutsan—.

Harek nasai asko mistua isiotu eta su ta ke jarri  
eustan zigarrotxoa. Gero, beste hainbeste egin eban ha-  
rek.

Horraitino —ni ere, okerbera izan eta— sua emon  
eustanean, erdi irriz zertu neutsan, guzur eztula egiten  
nebala:

—Kontuz, adiskide, bizarrrik erre ez deidazun.

Uzkarti harek barre gozoa egin eban, ohi eban lez,  
bere begi biribil handiak hara hona dantzan erabiltzan  
artean.

—Etxe horretan inor bizi al da! —itandu neutsan—.  
Zera, eskean alperrik joan ez nadin; horregaitik.

—Bai zera! Ez. Ez da inor bizi. Ni, barriz, horren ar-  
durea dodana izan, eta garbitzen etorri naiz.

—Garbitzera, e? Horixe tamala! Ni, gose eta egarri,  
eta etxe horretan inor ez.

—Edari zerbait egongo al da! Zatoz!

Eta etxeruntz joan ginan.

Ha ixilik, ni ere ixilik, aurrera ta aurrera.

Etxeak mutur baten aterpetxoa eukan, eta bertan,

sartzaierako atea. Teilatupe horrek bere goitian eta horman, zurezko ohol luzeak eta habe-langak zituan. Gibelurdin nagiak berba astiro eginez, hara, bide zabalera begiratu nengiala esan eustan.

Bide zabalera begira jarri nintzanean Gibelurdinek han ohol artean sartu eban eskuaz; berehala bira egin nebalako ikusi neban, baina ez ikusi egin ere bai.

Etxeko giltza hartu eban. Nik, murtik ere ez.

Serrailan sartu eban eta jira bi eginez, mingereak zirkin egin eban. Atea edegi eban eta adiguritsu, sartu nendila esan.

Behean bertan, sukaldera eroan ninduan. Ba egoan hautsa baino ez zana. Ba eukan garbitu beharra. Armairu handi baten ateari tiratu, eta zan gino zabal jarri eban.

Ardao botelak egozan. Asko ta asko, hutsik. Bat, erdi beterik egoana atara eban.

— Garraztuta egongo da ardao hau —zertu eban—. Ea besteren bat, osorik dagoana edo.

—Nigaitik ez, e! —esan neutsan, azalkeria garbian—.

Boteila bete betea eskuan, gangorreko txapela urratu utsal eta zipotziriagaz kortxoa atara ere bai.

— Ez egizu nigaitik...

— Ba! Bihar egun handia dogu.

— Kontxo! Bai, e?

— Halantxe, ba. Gure nagusiaren eguna ei da. Saria ere...

— Zertan diharduzue, ba? —nik, zirika—.

— Guk u... komisino zeretan eta... abarretan.

— Ederto.

Haren borondate ona zertuz, barreari eutsi ezinik nengoan. Baso koipezto bi erdi garbitu zituan, eta hareek ardaoz bete, eta zurrut egin genduan.

—Nik hor goian hautsa astindu bitartean, edan egizu nasai —esan eustan.

—Goi aldeak garbitzen neuk lagunduko deusut —gehitu neutsan Gibelurdini—.

—Ez, ez, ez. Goian ez dau inork ibili behar. Nagusia-  
ren paperak eta zerak dagoz hor. Ta... ba dakizu ba, goi-  
ko jentea beti keixu izaten da euren paperak eta gauzak  
nahastau eta aldendu ez daitezkan. Goikoen bildur gan-  
garrak. Ja, ja, ja...!

Bigarren basokada ardaoa edan, eta ha gora, eta ni kanpora, gertakaria arrisku usainez ez luzatzeko.

Eskerrak emon neutsazan, eta ospa egin neban.

Gibelurdin bapere malizia barik, mailadian gora joan zan, mantar saskela eskuan.

Kanpora nintzanean aldapan goruntz jo neban. Han egoan artaditxoan ezkutatu nintzan, zelatean jarduteko.

Gaua ganean genduan.

Harik laster, ibarra ilunpean etzun zan, lo nasai ederra egiteko. Txoriak aspaldi ixildu ziran. Beribilen bat edo beste, zamazalaren baten tarrantadak, beste ezereen zaratarik ez zan.

Zirrikituetatik zehar konturatu nintzan Gibelurdinek etxe bakarreko argiak amata zituana. Goikoak lehenengo, behekoak gero.

Etixeruntz hurreratu nintzan. Hobeto ikusteko.

Gerogarrenean Gibelurdin etxetik kanpora zan. Atea hertsu eta giltza teilapetxo haretako ohol bitartean gorde ebalabegintandu jatan.



Gero, bidertzean auto-stop egiteko geratu zala uste izan neban, bada, beribil bat geratu eta behingoan barriro abiatu zala ikusi nebalako.

Luzarotxoan itxaron neban eta han ohol artean neure esku biakaz haztamuka ibili, eta halako baten idoro neban bila nenbilen giltza.

Serrailan sartu eta edegi zan gura neban atea. Hor ikutu, hemen arakatu, argiaren zera ere han neukan, eta argia biztu neban.

Handik gorakoan, etxearen tokikuntzea azterkatu neban. Behean, sukaldea eta gela bi. Bata, egontokia; bestea hutsik.

Lehenengo oinera igoteko mailadi eroso. Han, logela bi, irol apaina eta despatxua edo. Mahaia, besaulkiak, aulkiak, kuadru batzuk hormetan dingilizka, armario ederra.

Despatxu horrek ate bi zituan.

Hurrengo, bigarren etxoinera igon neban. Han gela bi egozan eta beste ate bat edegi nebanean, egutera zabal samarra, etxegain polita zirudiana, ilun egoan arren.

Toki egokia inguruak goitik ikusteko, hegan doan txoriak ohi dauan lez.

Baina gau baltz haretan, ezin nik ezer begiztatu.



## Egitamua

Bertatik egin neban nire asmogaia. Behingoan zertu nituan in situ jarduerako lerro nagusiak.

Buruan nituan hango leku, zirkilu eta abarrak.

Gauzarik larrienak ba nekizan. Zehetasunak gero ikasiko.

Goitik behera jatsi-ala, argiak itzali, atea kontuz itxi, giltza bere tegian laga eta bizkor aldegin neban.

Bide zabalean zehar, hortik hemendik heldu nintzan urira eta orduan bizi nintzan etxera.

Azkar ibili nintzan eguna argitu ebanekoxe. Karolegaz berba egitea ezin gerorako laga. Nire ibilerako gorabeherak adierazo neutsazan eta zapaldu behar genduan lekua polito azterkatu nebala. Papertxo baten jarri nituan ikerturiko zerak. Gaiak behar nituan, zeharo prest egoteko.

Horraitino, garrantzi handiko lana aldez aurre gertatu neutsan. Dialektika arazoa zan.

— Karol, oraintxe berton Txuriori hots egiozu telefonoz, eta bilerarako puntuak adierazo. Sei puntukoa zan gure plana.

- 1) Ordua, gau beranduan izango da. Goizeko ordu bietan, egin egin.
- 2) Ordu horretan, dakigun etxera baino lehen dagoan bidekurtzean, 7 kilometro harriaren parean bat egingo dabe beribil biak, Txuriorenak eta Karolenak.
- 3) Beribil bakoitzean ez da beste inortxo joango, eta ezta beste inongo beribiletan ere. Tratua ere, biok soilik egin behar izango dozue-ta.
- 4) Tratu dirua 10.000 dollar izango da, zati ezbardinetan uzitu behar dana. Zatik gizenena Karolentzako izango da, behar dan moduan eztabaidatu eta ebatzi ondoren.
- 5) Tratua goizeko hirurak jo baino lehen amaitu behar izango da; eta lehenengo Karol joango da etxera, osasunez eta askatasunez; eta
- 6) Biziak diruak baino balio handiagoa daukala ez dabe tratulari biek ahaztu behar. Eta zorra dauanak, ordaindu egin beharko.

Nire esanera, geroago Karolek dei egin eutsan kaska motzari.

Honek, zelan halan ontzat emon zituan, behin behin nekoz Karolen (nire) sei puntu hareek.

Seigarrenak ba eban bere... zera. Txuriok behar zangoan ez ebalu ulertu uste dot.



## Bilera aurea

Zer batek kezkatu ninduan, ostera.

Txurio hara, etxe bakarrera bera bakarrik ez zala joango. Ziur.

Hori horrelan izatekotan Karol eta ni arrisku es-tuagoan sartu geintekozala. Bildur horixe.

Zerbait erabagi behar, horrezaz, eta ez nekian zer egin. Gorkari adierazo edo, gau haretako tratua. Ba-daezpadan polizi gizonakaz berbatua egon zedila edo.

Ala inortxori ezer ere adierazo ez.

Ba nekian Txurio amarruzalea zana, etoia, azpiza-poa.

Ez nekian, ostera, kontu horretan egin eben tratua-ren guna zein zan.

Esanak esan, Karolen alde soil soilik egin beharra izan balitz ez neukean egingo. Haren emaztea izan neban gogoan, barriro ere. Txikitako neure neskato laguntxo.

Zana zala, ez neban arinkeriez jokatu behar.

Karoli dei egin neutsan. Agur eta gero arte esateko. Gero hori, baina, lasterreko geroa genduan.

—Karol! Ba noa haruntz. Dana esanik dogu. Dia-

lektika apurra zeure kontura isten dot. Jarraiangoa dinamika, hori neure pentzudan laga egizu. Gauzatxoak prest ditut. Nire gogoa eta adorea, areago. Agur, ba!

Ilunabarra baino lehen, harako etxe bakarraren inguruan eskale bat ebilen kusan, susmoan. Eskeko hori eketa zan. Argiago esateko, neu nintzan.

Atea jo neban, behin eta barriro. Hurrena, han goratxoago zuhaitz artean ezkutatu neban neure burua. Esku-emisora baten preminaz nengoan, Karolegaz hartu-emona izateko, alkarren barri jakiteko. Ausaz, Gorkagaz ere.

Baina ez egoan astirik ez betarik ames horreetan murgiltzeko. Ordu laburrak genduzan bitarte.

Saku zikin arrea neukan, eskeko jatorraren antzean. Hantxe neukazan gau haretarako egoki jatazan zerak.

Barriro atea jo. Ixila kanpoan, eta barruan.

Orduan eskekoa nintzan hau, ikusmiran hasi eta haztamuka jardunez, ohi eban lekuan aurkitu neban etxera sartzeko giltza. Bere zuloan sartu eta grisk grask! edegi neban ate nabarra.

Aguro sartu nintzan.

Ez neban, horraitino, han barruango elektrargirik izetu. Linterna jaseko batez baliatu nintzan.

Sagu gizarajoa katu ankerraren erpeetan lez jaustea, ez jatan bapere opagarri, egia esan.

Han barruan bizidun bakarra nintzan, zirudianez.

Mailadian gora ekin neutsan. Lehenengo etxoinean geratu nintzan eta etxatzeko balkoe baten, sakuan nerioan lokarria sendo lotu neban. Soka sendoa zan, lodiegia ez baina.

Nire sakua barruan laga eta behingoan soka behera lurreraino jatsi nintzan. Barrurako ate nagusia eskuan neukan giltzagaz hertsu, eta giltza, bere toki ezkutuan gorde neban, polito polito.

Beraz, etorrena etorrela, etxean ez egoan inor.

Atea itxita. Giltza bere lekuan formal formal. Lehenengo itxurakeria zertu neban.

Etxatzera azkar bihurtu eta sokeari sendo heldurik gora ta gora hasi nintzan. Balkoeko atean zehar barruratu eta atsedean piskat.

Une haretan egotea beste zereginik ez neban. Egotea eta itxarotea.

Adierazo ziran puntuen araei jarraitu ezker, hara ez zan munduko kristinaurik agertu behar, orduetan eta orduetan.

Ez neban nik, horraitino, hainbesteko segurantzarik. Arerioa ni baizen azeria zan, eta areago ere bai. Sasi-umiltasunik bage dinot.

Argi eta erne egon behar neban. Ikusmena zuhur, entzumen zuhurrago. Barruko ixilaren ixilak batzuetan durundi bereziak sortzen ebazala uste izaten neban. Barriri ere, kapitone barruan sartu ete nintzan. Sen osoagaz, oster.

Adiskidea eta arerioa ziran etorteko. Arerio bakarra? Horixe ez jakin. Txerrena han egoan ordurako. Neu nintzan. Txerren gustu heze likina lakoa neukan neure zane-

tan zehar. Euki ez neukan; ibili ebilen gora ta behera. Neure pentsamentuak ainean.

Zelatean jarri nintzan, han goian, terrasan, bigarren etxoinean. Hara etorriko zana, ez zan argirik bage iluntan itsu mustuan ibiliko.

Horretara ezkerro, ikusi ahal izango neban gizasemeen ibilerea eta joan-etorria.

Nire asmoek ustel urtetea eitekena zan. Horregaitik bost zentzunak ailart izan behar nituan.

Neu eta neure sakua, horixe neban orduko batasun gura ta gura ezekoa. Ataka gaitzean sartu nintzanez, neure dinamika noiz zelakoa jorratuko neban.

Jateko neukana jan neban, termoan epel epel neukan kafea drungadaka astiro edaten neban, inguruan zer ikusiko eta zer entzungo adi adi nengoala.



## Bilerea

Gau erdia iragan zan. Oinetako arinak neukazan, gomazkoak, azpia ere bigun biguna eukenak. Katua baino ixilago ibili behar neban. Ikusi, entzun, usain egin.

Zeruko izarrak ikasten jarduteko aukera zertu jatan. Ez neukan teleskopiorik. Egia esan, astirik bai, astirik ez; baina beta eta egokitasunik ez, esku-artearen nerabilen arazo latza zala-ta.

Noiztik noizera barrura sartu eta linternea isiotuz, erlojuari begiratzen neutsan, eta terrasara azkar barriro.

Bai ordu luzeak! Hiru lau bidar lehenengora eta beharaino ere jatsi nintzan. Zirkiluak begiztatu eta barriro, arin gora! Sukaldean aizkora zakar bat hartu eta zer gertako, nengoan lekura jaso neban. Eratsitako arboleari egur egitea suertatuko balitz.

Eskale jantziak kendu nituan. Bizarra goiz haretan moztu neban ezkerreko, gazte antza hartuko neban barriro, eskale saskelaren ordean.

Oilarraren moduan nengoan, zut, harro, erpeak zorrotz.



Koxka eta untzea honetan egoan, zera, Txurio baka-  
rrik etorriko ete zan.

Uuummm... haren morroe zatarrak ez ziran urrun  
ibiliko.

Horrelan izatezkero, ez egoan, dirurik emoterik. Zer  
dinot dirurik emoterik! Ez, ez. Tratu gaua izango zan.

Amaitu neban kafea. Une gogoangarria laster izan-  
go.

Karolen bizia ere, arriskupe jarri eiteken. Horraitino,  
Txuriok odol nahastea barik diru gizona gurago izango  
eban. Dirua hurrengoan ere, modu baltzen baten lortu  
ahal izateko ereti barriaren hazkuratxo.

Han bide zabalean, argiak salatuten ebanez, beribila  
etorren, ez handia. Harik ezer ezean, beste bat, handi sa-  
marragoa edo.

Bata bidertzean geratu zan. Baita beste beribila ere.  
Han urrunago gelditu behar eben, baina tira! zirudianez,  
etxetik hurrerago zertzea berbatu izango eben, edo.

Bakoitzak bere linternak biztu eta gizaki bi han eto-  
zan bide zabaletik goruntz. Ipertargiak zirudien, lurga-  
nean narrasean.

Etxondora ziranean, ni han goitik begira ta begira  
egon nintzaken eta ezagutu nituan. Inguru osoari nire  
begiak adi, eta behingoan, sartu egin nintzan. Orduan  
behintzat, beste inor ez etorren.

Etozan biak etxera sartu zirala, argiak biztu zitue-  
nean igarri neban.

Belarria adi, eta han etozan mailadian gora. Ni, biga-

rren oineko eskailera buruan nengoan, oinen puntan erne, bizi bizi.

— Ez nabil ondo —esan eban Karolek—. Hainbeste maila nekagarri jataz.

— Nekagarri? Hementxe, lehenengo oineko despatxu honetan egingo dogu egitekoa —erantzun eutsan Txuriok—.

— Lehenbizikoan... ondo da.

Han gelditu ziran. Etxe hutsean hareen zapatak eta hareen berbak durundi bedegarra sortzen eben.

Despatxu aretora sartu zirala konturatu nintzan.

Atea itxi ebela ere bai. Zirrist zarrastadan, aulkiak hara horra erabili zituela uste izan neban. Gero, ixilago.

«Jesarri dira» —esan neban neure kolkorako—.

Oinen puntan ixil ixilik jatsi nintzan bigarren etxoinetik lehenengoraino.

Ateari eutsala jarri neban ezkerreko belarria.

— Armarik ba al dozu aldean? —itandu eutsan lotsabaga Txuriok Karoli—.

— Iskiloa, zertarako? —erantzun eutsan besteak—.

Mahaiaren kaixa zapalari egin eutsan zarrastadearen bitartez, Txuriok bere pistola hantxe laga ebala antzemon neutsan.

— Tira, ba. Diruak ekarri al dituzu?

— Diruak ekarri...? Ez da gaur diru eguna; baldintzak eztabaidatzekoa baino ez dozu.

— Baldintzak... zertuak edo esanak dira. Oraingoz ekarri egidazuz dollarok, eta gero gerokoak.

— Ez jauna. Ez da horrelan izango.

— Ba...! ez dot lar hasarratu gura.

— Oraingoz, hamar mila horretarik lauren bat izan-go litzateke, zuretzako atal hori.

— Zelan...! Horrek eta beste hainbeste zan berbea.

— Noren berbea, Txurio?

— Neurea, erregeren berbea.

— Hemen ez dogu erregerik, eta behar ere ez.

— Hain diru eskasagatik ez neuke heriotzarik egin gura. Emon egidazu esan deutsudana, eta gero...

— Tiroz zulatuko al nozu?

Txuriok irrigaizto egin eban. Irribarre hori, ostera, guzurrezkoa zala antzemon neutsan. Kaska motza arbin egoan, artega, erre antzean edo. Oinetako zazkarrak arrast erabiltzan oinazpiko zurari igurtzi latzak eginez. Horixe uste izan neban.

Txurio edozein gaiztakeria egiteko gauza zala burutatu jatan, eta nire ordua heldu zala. Gizonaren ordua.

Txurioren bizkarraldean egoan atea ixilik baina bapatean edegi neban. Eta hari berari kokotazurrean ipini neutsan nire mitrailetearen aho biribil hotza, kainoe puntea.

— Txurio, geldi!! Geldi!! Ez dagizula atzera begiratu ere, egin.

Txuriok zirkinik egin baino lehen, Karol jesarlektutik jagi eta kaska motzak mahai kaixa zapalean sartu eban pistoleaz jabetu zan. Karol ere, Txurioren bizkarraldean paratu zan.

— Karol —esan neutsan— zaindu egizu mailadia, ea etoi honen menpeko petralik ete datorren.

—Nor zaitut? —itandu eustan Txuriok—.

—Zoaz horma ondora, geldiro eta atzera begiratu bage. Ni, Melkiren arimea naiz, baltzez eta zuriz jantzia burutik behatzetaraino. Zure arimearen baltza eta nirearen errubakotasunaren agergarri antzera. Tira, jagi! Jagi, eta besoak gora, lapur gaiztoarenak egin eban lez, zureak ere,...

Ez neban esaldia amaitu. Nasai nengoan, zoratuta lez, odol-egarriak samea lehortu baileustan.

—Txakur amurratua baizinan garbitu zaikedaz. Baina zure odolik ikusi ere, ez dot nahi, zeharo zikina izango dalako.

—Melki, parkatu!! Zoraturik nengoan gau haretan. Ez nago ondo. Makal dot bihotza.

—Zertarako dozu bihotzik, ez begirik, laster zabalduko dan egunsentia zuretzat lar izango dan ezkerero...?

Txurio arnas estuaz susmatu neban. Baina hori, komeria barria izan eiteken.

Horregaitik, garrazkiro agindu neutsan:

—Txurio, zagozan eran, hormeari begirik kentzeke, erantzi egizuz soineko guztiak, amak mundura bota zinduzanean zengozan ainean jantzia zertu zaitezcan arte. Narru gorri geratu arte.

Jaka lodia, jersey nabarra, alkondara nahikoa garbia, barrukoa... gorputzetik kendu zituan.

—Gehiago, Txurio! Ni soineko ta guzti joan nintzan uretara; zu, narrugorrian joan zeintekez lur gogorrera. Ken egizuz oinetakoak, galtzerdiak, galtzak, zàragoilak.

Nagiroy baina biloiz biloiz geratu zan.

—Txurio! Eskuak goian dituzula, bira egizu orain astiro eta hortxe geldi loturik, ikusi nagizu.

Nire esanera bira egin eban eta nire itxurea ikusi eban, bihotz erdiragarria zan intziria egin eban. Begiak itxi zituan.

— Zoaz orain nire aurretik, eta beti ere eskuak jasota goiko oineraino.

— Zertarako?

— Aurrera, ixil ixilik. Ez dagizula atzerakadarik egin.

Mailadian gora joan ginan, ha aurretik, ni atzetik.

— Zer egingo deustazu?

— Niiik...? Ezer ere ez. Zeuk egin behar izango dozu, Txurio.

Goiko terrasara urten genduan, ha aurretik, ni atzetik.

Han egutera, giro hotza egoan, batez ere biloiz egoatea suertatu ezkeror.

— Nik, zuk aginduta, uretan egoan gabarra zabalera salto egin behar izan neban. Zuk, ostera, hortik behera botako dozu zeure burua.

— Ene, ba!

— Zeure arima baltz hori Jaungoikoari zertu egiozu.

— Ez da Jaungoikorik!

— Birao egin dozu, zikin horrek. Ez dozu zuzentzeko asmo sendorik. Nik lau kontaktu baino lehen, dzapart egingo dozu. Bat!... Bi!... Hiiiiiru!

Txuriok urrats bi egin zituan baranda alderuntz. Bapatean, bunbala! terrasako zemento hotzaren ganean etzun zan; luze, zan ginoan.

Txintik atara barik.

Neure mitrailetea eskuan, Karoli dei egin neutsan.

Puzka heldu jatan.

— Lurrera jausi da zerraldo. Ez deusat ikuturik ere egin, Karol. Ez lehen, ez orain.

Linterna bien argipean ikusi genduan aratin egoan gizona.

Ixilik, geldi, ahoa zabal, begiak zabalago, sudurra eta belarriak zorrotz... Halantxe egoan Txurio zana.

— Hilda dago —txutxumutxu egin eban Karolek ezpan-artean—.

Jatsi egin ginan. Sukaldean berbotsa lakoa igarri nik, eta eupadea egin neutsen.

Nonbait, nasai asko ardao edaten ziharduen Zozokume eta Maltzurko agertu ziran. Ni modu haretan jantzita, soineko zuria goitik beheraino, bizkarrean kapa baltz zabala, ikusi ninduenean ezin gehiagoan izututa geratu ziran. Mutututa. Geldi.

— Mutilak! —esan neutsen—. Aske zagoze. Lanbide okerrak, azken makurra. Txuriorenak egin dau.

Karol aurretik, ni atzetxotik, handik laster urrundu ginan.

Eskuetan neukan mitraileteari igurtzi leun samurrak egin neutsazan. Hotz hotza egoan. Txori onez, ez eban inortxo ere hil.

## ATZENA



## Aurkibidea

Erremin .....	22
Lekutako dozenerdia.....	25
Polpoldarrak .....	28
Erlojulari zaharra.....	32
Itxaine .....	36
Andra Polpol eta Beñat .....	40
Txurio.....	47
Lagun hurkoak, ziria.....	51
Very old pale .....	54
Behartsuaren makalaldiak.....	57
Ni ere, artaldean .....	61
Buruzagia .....	63
Esku-jokoak.....	67
Lapur .....	71
Arau barriak .....	75
Agindua bat, emona bi.....	79
Ikaslea, berrikasle.....	82
Gorka.....	86
Monsieur eta abar .....	90
Aldakuntza.....	94
Sari barik.....	97

Polpolenean .....	99
Errana, arrana .....	103
Amaginarrebarenean .....	108
Zeline .....	110
Saule .....	115
Bizkar berotzeak .....	120
Harrimenik harrimen .....	126
Kaiolan .....	133
Sumin .....	144
Bitarte .....	155
Batzarrerako deia .....	161
Erabagia .....	163
Bakartadean .....	165
Egitamua .....	171
Bilera aurea .....	173
Bilerea .....	177



LABAYRO-IRASTEGIA

BIBLIOTEKA - DERIO

Sarr 12.872/87

Gala.

Tokia.

## SUTONDOAN SORTA

1. EGUNEKOA  
Ebaristo Bustinza «Kirikiño»  
Aurkezpena: Xabier Perea - J. M. Agirre
2. JOSETXO  
Jose Manuel Etxeita  
Aurkezpena: Aitor Etxebarria - A. Arejita
3. AZALPENAK  
Urkiaga'tar Estepan «Lauaxeta»  
Aurkezpena: Jon Kortazar
4. BERTOLDA ETA BERTOLDIN  
G. C. della Croce - «Otxolua»  
Aurkezpena: Adolfo Arejita
5. JAIOKO DIRA  
Eusebio Erkiaga  
Aurkezpena: Lino Akesolo
6. EDO GEUK EDO IÑOK EZ.  
EUSKERAREN ALDE  
Ebaristo Bustinza «Kirikiño»  
Aurkezpena: Xabier Perea - Adolfo Arejita
7. IPUIN ANTZEKO ALEGI  
MINGOTSAK  
Mikel Zarate  
Aurkezpena: Igone Etxebarria
8. BATETIK BESTERA  
Eusebio Erkiaga  
Aurkezpena: Iñaki Sarriugarte
9. AUÑEMENDIKO LOREA  
Txomin Agirre  
Aurkezpena: Rosa Mari Arano
10. KRESALA.  
Txomin Agirre  
Aurkezpena: Mirari Alberdi - Jon Arretxe
11. JAIOTERRI MAITIA  
Jose Manuel Etxeita  
Aurkezpena: Iñaki Sarriugarte
12. TXURIO TXORIA  
Eusebio Erkiaga  
Aurkezpena: Igone Etxebarria

### Agertzekotan:

GAROA  
Txomin Agirre